

GAI BEREZIA:
TESTU-ANTOLATZAILEAK.
ERABILERA ESTRATEGIKOA

**TESTU-ANTOLATZAILEAK.
ERABILERA ESTRATEGIKOA**
Liburuaren aurkezpena¹

Pello Esnal

Euskal prosa arruntaren izatea, egoera eta huts-beteak aztertu nahi genituzke, «gramatikatasunean» landaturik baina «gramatikatasun» soilean oinak itsasten ez zaizkigularik.

Koldo Mitxelena, 1968, Arantzazuko txostena

1. BI GALDERA NAGUSI

Askotan, zaila izaten da atzematea liburu baten muina eta arima, bereiztea alea eta lastoa, ez galtzea orrialdeetako labirintoan. Gure liburu honek ere badu horrelako arriskurik. Ea asmatzen dudan aurkezten.

Liburu bat aurkezteko, atzean dituen galderak azaltzea izan daiteke egokiena: zertara dator liburu berri hau?, zertarako egin dute egileek?

Bi galdera nagusi daude *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* honen abiaburuan. Hauexek:

- Zergatik dira ulergaitzak / ulerterrazak zenbait euskal testu, ahozko nahiz idatzi?
- Nola bihurtu ulerterrazago zenbait euskal testu ulergaitz?

Beraz, zailtasun bat dago liburu honen iturburuan, denok nozitzen duguna. Testuak sortzerakoan, nekez sortzen ditugulako. Zenbait testu entzun edo irakurtzerakoan, nekez ulertzen ditugulako. Eta hori, neurri batean edo bestean, bai ahozko testuekin gertatzen zaigu, bai testu idatziekin. Zailtasuna, berriz, berehala bihurtzen zaigu galdera: zergatik gertatzen da hori?, zer egin zailtasuna gainditzeko?

¹*Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* liburuaren aurkezteko, bi baliabide prestatu nituen: idatzi soil bat eta diapositiba-muntaia. Aurkezpena, diapositiben harian egin nuen eta idatzia oinarri. Honako, moldatu egin dut idatzi soila, artikulu moduan osatuz eta diapositibetako informazioa ere nolabait bertaratu.

Galdera horiei era orokorrean erantzun diezaiekegu. Esanez, adibidez, erdaraz pentsatzeagatik sortzen ditugula testu ulergaitzak, edo presaka ibiltzeagatik edo euskara normalizatu gabe dagoelako. Liburu honetan, erantzun horiek zehazten saiatu gara, dagokien testuinguruan kokatu ondoren.

Bi maisu handi hartu ditugu gidari, lehen kapituluan azaltzen dugunez [17-22]²: Koldo Mitxelena (Mitxelena, 1968) eta Luis Villasante (Villasante, 1975, 1976, 1988); horiek izan ditugu abiaburu eta oinarri. Garrantzi handiko kapitulua da gure ustez. Hor ageri dira, funtsean, bi galderen testuingurua, garrantzia eta sustraiak; eta erantzunak ere bai, neurri batean.

Villasanteren pasarte batek zabaltzen du lehen kapitulua (Villasante, 1988: 142). Askotan errepikatu zuen ideia bera:

Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, euskara bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena.

Euskara hizkuntza bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena.

Gernikarrak, gainera, prosa gutxitu horren eragile nagusia ere salatu zuen: XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, euskararen mundua astindu zuen garbizalekeria. Horren ondorioz, «besoz eta zangoz katigatua» geratu zen euskal prosa (Villasante, 1975: XII; 1976: XV). Eta, hain zuzen, testu-antolatzaileen erabilera murriztua izango da prosa gutxitu honen ezaugarrietako bat (Villasante, 1975: X-XI) eta hitz-ordena desegokia, bestea.

Era berean, bai Villasantek eta bai Mitxelenak argi erakutsi zuten non aurkitu konponbidea. Mitxelenak, esaterako, honela zioen Arantzazuko 1968ko biltzarrean (Mitxelena, 1968: 218-219):

Lege zaharrei eginahalean eustea da, noski, Euskaltzaindiaren eginbidea eta ez du amorerik emango ezinbestean baizik. Euskal autore gailenak ditu eredu eta, haiei buruzko iritziak denborak gutxi edo gehiago aldatzen baditu ere, badu hor oinarri sendoa.

Sartaldeko hizkuntzarekiko prosa zenbait bidetan barrena ibiltzen ikasia eta trebatua da, latinaren ondotik, jakina, goragororik aipatu gabe. Era berean, hainbeste ez bada ere, geure hizkuntza.

Ibilaldi horiek hizkuntza, edozein hizkuntza, arinago, zaluago, malguago bihurtu dute. [...] Latinaren, eta erabat sortaldeko hizkuntzen, kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, onar dezagun, eta goazen aurrera bide horretarik.

² Artikuluaren zenbait pasarte eta izenburutan, zenbakiak ageri dira taktik [] artean; *Testu-antolatzaileak*. Erabilera estrategikoaren orrialdeei egiten diete erreferentzia.

Hain zuzen, erantzun horiek zehazten eta garatzen saiatu gara liburuan zehar. Jakinda, batetik, ez garela lehenengoak hori egiten eta ezinbestekoa dugula euskalgintzan ari garenon elkarlana eta, bestetik, liburu honetan ez dela gaia agortzen eta bide luze samarra dugula oraindik eginkizun.

Esan gabe doa: hemen esandakoa baliagarria da, aldeak alde, bai ahozko testuentzat, bai idatzientzat. Beraz, liburuak *testu* dioenean, ahozko testuak eta testu idatziak esan nahi du. Halaber, sinonimotzat har daitezke, pasarte askotan, *hiztuna*, *idazlea* eta *hizkuntz erabiltzailea*.

2. ZERGATIK DIRA ULERGAITZAK ZENBAIT EUSKAL TESTU, AHOZKO NAHIZ IDATZI?

Gure buruari askotan egindako galdera da. Erantzuten ere saiatu ohi gara. Besteak beste, bi arrazoi aipatu genituen Joxe Ramon Zubimendik eta biok *Idazkera-liburuan* (Zubimendi; Esnal, 1993: 171-176; 189-230): atzerakarga eta pausaldiak markatzeko zailtasuna. Atzerakargarena bere bidea egiten joan da estilo-liburuetan eta idazleen artean; pausaldiarena ere bai, baina neurri apalagoan.

Liburuan, biak aipatu eta jorratzen ditugu; baina hirugarren bat ere salatzu: ikuspegi gramatikal soila. Eta, hain zuzen, ikuspegi honen baitan kokatu behar dira biak; hor indar handiagoa hartzen dutelako; eta hortik ateratzeak, ikuspegia aldatzeak, erraztuko digulako korapiloen askabidea.

Atzerakarga [41-43]

Atzerakarga hitzak berak iradokitzen duenez, euskal testuak atzean –esaldiaren amaieran– eraman ohi du askotan mezua ulertzeko giltza. Eta askotan –gehiegitan– ez dugu jakiten nola irakurri (nola ulertu) esaldi bat, harik eta amaierara iristen garen arte. Hona hemen, muturreko adibide bat (Ararteko, 1991: 13):

Txosten honen helburua Ertzaintzak nahiz Udaltzaingoak atxilotutakoak askatasunik gabe ordu batzutan, berriro aske utzi edo, agiango epaia egin dakien, epaikarien esku jarri arte egoten direneko, Euskadiko udal kalabozo eta Ertzaintzaren espetheen benetako eta lege aldetikako egoera aurkeztea da.

Esaldia ulertzeko, ezinbestekoa da azken hiru hitzak irakurtzera (entzutera) iristea. «Egoera aurkeztea da» horretaraino iritsi arte ez dakigu zein den «txosten honen helburua». Ez da esaldiaren arazo bakarra, baina bai funtsezkoa.

Gehienetan, aditza azken aldean ipintzeak eragiten du esaldia ulertzeko zailtasuna edo ezina. Baina ez beti. Eta, hain zuzen, horixe azpimarratu nahi izan dugu liburuan, gure ustez adibide esanguratsu bat erabiliz; oso idazkera zaindua duelako testuak (Kintana, 2002: 311):

Esango nuke San Martinek, bere belaunaldiko beste idazle askoren antzera, norbere pertsonaren distira eta ospe handiagorago barik, bere herriaren kultura maila hobetu eta haren literatur premiak asetzeko xedeaz hartu duela luma, apaltasunez, inolako pretentsiorik eta hantusterik gabe, euskararen eta Euskal Herriaren helburu orokorrekin konpromiso sakona eta saihestezina harturik, idaztea herriaren zerbitzutan aritzea dela dakien intelektualaren konbentzimenduaz.

Oraingo honetan, testu-antolatzaileen kokapenak zailtzen du esaldiaren ulergarritasuna:

Esango nuke San Martinek, bere belaunaldiko beste idazle askoren **antzera**, norbere pertsonaren distira eta ospe handiagorago **barik**, bere herriaren kultura maila hobetu eta haren literatur premiak asetzeko **xedeaz** hartu duela luma, apaltasunez, inolako pretentsiorik eta hantusterik **gabe**, euskararen eta Euskal Herriaren helburu orokorrekin konpromiso sakona eta saihestezina **harturik**, idaztea herriaren zerbitzutan aritzea dela dakien intelektualaren **konbentzimenduaz**³.

³ Agian, errazago ikusiko dugu testua gaztelaniara (edo frantsesera) itzulita:

Diría que San Martín, **como** otros muchos escritores de su generación, **sin** buscar el brillo personal ni una fama mayor, ha cogido la pluma con humildad, **con el objeto** de mejorar el nivel cultural de su pueblo y de saciar sus necesidades literarias, **sin** ninguna pretensión ni vanagloria, **comprometiéndose** de forma profunda e ineludible con los objetivos generales de Euskal Herria, **con** el convencimiento del intelectual que sabe que escribir es trabajar en servicio del pueblo.

Are nabarmenago geratzen da kontua, lerroka idatzita. Lehenik, euskaraz:

Esango nuke San Martinek, bere belaunaldiko beste idazle askoren **antzera**, norbere pertsonaren distira eta ospe handiagorago **barik**, bere herriaren kultura maila hobetu eta haren literatur premiak asetzeko **xedeaz** hartu duela luma, apaltasunez, inolako pretentsiorik eta hantusterik **gabe**, euskararen eta Euskal Herriaren helburu orokorrekin konpromiso sakona eta saihestezina **harturik**, idaztea herriaren zerbitzutan aritzea dela dakien intelektualaren **konbentzimenduaz**.

Eta gaztelaniaz:

Diría que San Martín, **como** otros muchos escritores de su generación, **sin** buscar el brillo personal ni una fama mayor, ha cogido la pluma con humildad, **con el objeto** de mejorar el nivel cultural de su pueblo y de saciar sus necesidades literarias, **sin** ninguna pretensión ni vanagloria, **comprometiéndose** de forma profunda e ineludible con los objetivos generales de Euskal Herria, **con** el convencimiento del intelectual que sabe que escribir es trabajar en servicio del pueblo.

Pausaldiak markatzeko zailtasuna [43-44]

Testu bat irakurtzen ari garela, beharrezkoa zaigu jakitea non egin pausaldiak, nola bereizi testu-zatiak, idatzia behar bezala ulertzeko.

Hona hemen zenbait esaldi solte⁴:

Pozgarriztat jotzen da haurra helduaren interesgune bihurtu izana gizarteko zenbait sailetan.

Haurrak gai izan beharko du berarengan ipinitako itxaropen izugarriari erantzuteko.

Haurraren gain-gainean egotea gurasoen neurosia ezkututzen duen morrontza da. Eta are ezkutuago geratzen da giro kulturalaren eraginez eta merkataritzaren presioagatik.

Haurraren egiazko premia bat dator berak azaltzen duenarekin.

Helduaren zeregina haurrari laguntzea da heldu bihurtzen.

Esaldi horiek guztiak dira zuzenak. Baina batzuk bitan irakurri behar dira, pausaldiak non egin jabetu ahal izateko. Zer egin hori gerta ez dadin?

Horrelakoetan, batzuek koma bat idatzi ohi dute pausaldia adierazi behar duten aldiro. Uste dute beti bat datozela pausaldi prosodikoak eta pausaldi ortografikoak Baina ez da hala.

Beraz, nola adierazi pausaldiak, zer baliatu, puntuazio-markak erabiltzea desegokia denean?

Ikuspegi gramatikal soila [18-22]

Aurreratu dudan bezala, bi zailtasun horiek are indar handiagoa hartzen dute, gauzak ikuspegi gramatikal hutsetik begiratuta.

Eta *huts* hori azpimarratzen da liburuan. Liburuak *ikuspegi gramatikala* dioenean, ikuspegi gramatikal hutsa esan nahi du. Hau da, ez du ikuspegi gramatikala gutxiesten eta are gutxiago gaitzesten. Ikuspegi gramatikal hutsa salatzen du, gramatikaren gehiegikeria.

Gauza bera dio Mitxelenak Arantzazuko txostenean (bereak dira kako-txak; bestalde, *huts* ez baina, *soil* darabil berak):

Euskal prosa arruntaren izatea, egoera eta huts-beteak aztertu nahi genituzke, «gramatikatasunean» landaturik baina «gramatikatasun» soilean oinak itsasten ez zaizkigularik.

⁴ «Jainko txikia» artikulutik daude atereak eta soilduak (Rose, 1991).

Liburuak, hari berean, dio bi uste oker bezain gaizto daudela euskaldunon artean zabaldua euskal gramatikari buruz: batetik, arautzen duena baino gehiago arautzen duela gramatikak eta, bestetik, zenbait hizkuntz baliabideren erabileran (esaterako, testu-antolatzaileen eta hitz-ordenaren erabileran) nahikoa dela arau gramatikalak betetzea.

Baina beste murrizketa eta gehiegikeria bat ere badakar ikuspegi gramatikal soilak: esaldira mugatzen du arreta. Horren arabera, nahikoa da zuzena izatea testu bateko esaldi bakoitza, testu osoa ere zuzena izateko. Ondorioak begien bistakoak dira, zenbait testu-antolatzaileen kasuan. Ia-ia ez zaie garrantzirik ematen.

3. NOLA BIHURTU ULERTERRAZAGO ZENBAIT EUSKAL TESTU ULERGAITZ?

Azken batean, galdera hauxe ardatz hartua dago osatua liburuak; eta horri emandako erantzuna du mami eta eduki, izenburutik beretik hasita: testu-antolatzaileen erabilera estrategikoak lagunduko digu, neurri (handi) batean, gaurko euskal prosaren bi arazo nagusi(ak) gainditzen, baina betiere ikuspegi gramatikal soilak gaindituz. Horregatik, hemendik hasiko gara.

Ikuspegi gramatikaetik ikuspegi komunikatibora [27-29]

Arestian ikusi dugunez, ikuspegi gramatikal soilaren arabera, dena da gramatika hizkuntzan eta honen erabileran. Dena arau daiteke, eta nahikoa da arau horiek betetzea. Arauak betez, zuzen ez ezik, egoki ere erabiliko dugu hizkuntza.

Ikuspegi murriz eta eskusibista hori gainditu nahi du ikuspegi komunikatiboak. Ikuspegi berri honek bere baitan hartzen du ikuspegi gramatikala, eta beste hiru ikuspegiz osatu eta zuzentzen du. Ikuspegi soziolinguistikoa, ikuspegi testuala eta ikuspegi estrategikoa dira beste hiru ikuspegiak.

Baina norbaitek gaizki ulertuko luke ikuspegi komunikatiboa, baldin eta lau ikuspegi horien metaketa soil bezala ulertuko balu. Ikuspegi komunikatiboa ez da eskuratzen ikuspegi gramatikalari beste hiru ikuspegiak gehitu hutsez. Osotasun berria baita ikuspegi komunikatiboa. Ikuspegi komunikatiboak pentsamolde berria eskatzen du: paradigma-aldaketa. Nekez lortzen den paradigma berria.

Gurean ere, zaila gertatzen ari zaigu ikuspegi-aldaketa. Liburuan, bi adibide aipatzen dira, zailtasun hori azaltzeko:

- Ohikoa izan da, profesionalen euskara hobetu behar-eta, Euskaltzaindiaren arau berriak azaltzeko ikastaroak eratzea; baina horretara mugatuz, arauak ikastea eta horiek betetzea nahikoak balira bezala; konturatu gabe euskara egokia sortzeko beste gaitasun batzuk ere landu behar direla, gaitasun gramatikalaz gain.
- Duela urte gutxi batzuetako estilo-liburuetan, toki handia hartzen zuten gramatika-arauek, noiz eta liburu horiek arauak jakintzat eman eta harago joan beharko luketenean.

Orain, hirugarren adibide bat ekar dezakegu hona.

- Duela lau urte, Haritschelharren euskaltzainburutza amaitzera zihoala, euskaltzain batek esan zuen, balantze modura, euskara batuaren gaia egoki bideratua zegoela; eta, lorpenak banan-banan aipatu ondoren, erantsi zuen gauza bakarra gelditzen zela eginkizun: Mitxelenak 1968an Arantzazurako egindako txostenaren seigarren atala –joskerarena– garatzea. Eta hori Gramatika batzordearen esku zegoela.

Bai eta ez. Bai: joskera geratzen da eginkizun, euskara batuarena erabat burutzeko; eta, agian, Gramatika batzordearena izango lan hori. Baina ez: joskera ez dagokio gramatikari arautzea. Gramatikari, soilik, gutxienekoa arautzea dagokio. Hortik aurrerakoa ez da gramatikaren lana.

Izan ere [17], hizkuntzaren erabileran dena ez da arau eta lege, estu nahiz lasai. Behin arau gramatikalak betez gero eta testuaren legeak aintzat hartuta, eremu handi bat zabaltzen zaio hiztunari: askatasunaren (eta erantzukizunaren) eremua.


Eta, eremu horretan, hiztunari berari dagokio erabakiak hartzea. Horretan lagun izango ditu, lagun preziatu, gure aurreko hiztunek utzi diguten ondarea eta moldatu diguten tradizioa. Baina hiztunak berea du azken hitza, lortu nahi duenaren arabera. Berari dagokio zer aukera hobetsi, zer baliabide hautatu, zer estrategia erabili erabakitzea. Erabakimen honi deitzen diogu gaitasun estrategikoa.

Horretaz ere mintzo da Mitxelena Arantzazun. Are gehiago (nahiz eta terminoa bera erabili ez), gaitasun estrategikoa aipatuz eta goraiatuz amaitzen du joskeraren atala, sintaxiarekiko eta estilistikarekiko auziei eskainia; eta atal horrekin burutzen du txosten osoa:

Hitz-ordenaz eta aurkitu diren legeak ez dira idazlea estekatzeko gateak, honen kemenak gehi ditzaketen lanabesak baizik, hitzen indar ezkutua nabarmenduaz. Idazlearen eginkizuna erraz da adierazten, gaitz betetzen: hizkuntzari bere burua menderatuaz, hizkuntza menderatu, hizkuntz legeen lokarriak eta trabak, airea hegaziarentzat bezala, sostengu eta laguntza bihur daitezten.

EUSKALZAINDIA - JAGON SAILA
Corpus Batzordea

Testu-antolatzaileak
Erabilera
estrategikoa



EUSKALZAINDIA

Testu-antolatzaileak era estrategikoan erabiliz [87-91]

Behin geure buruak ikuspegi komunikatiboaren baitan kokatuta, egokiago hitz egin dezakegu testu-antolatzaileen erabilera estrategikoaz.

Atzemandako arazoen arabera, bi estrategia sail bereiz ditzakegu: aurre-rakarga arintzekoak eta pausaldiak markatzekoak. Dena den, batzuetan, kontua ez da mugatzen testu-antolatzaileetara. Hauek erabiltzean (lekuz aldatuz, ordezkatzuz, berriak tartekatuz...) aldatu egin beharko dira testuko beste osagai batzuk ere; puntuazio-markak ere bai, agian. Hain da estua osagaien arteko elkarreragina. Horregatik, tarteka, testu-antolatzaile batekin ez ezik, birekin ere jokatu beharko da.

Adibideak, «Jainko txikia» artikulua bi bertsiotatik hartu ditugu (Rose, 1991). Itzulpena da lehena, eta *Unescoren Albistarian* plazaratu zen lehenbizikoz. Lehen bertsiio horren moldaketa da bigarrena; besteak beste, testu-antolatzaileak era estrategikoan erabiliz egina. Eranskinean datoz bi bertsiok.

1. Atzerakarga arintzeko estrategiak

Lau estrategia erabil ditzakegu:

Testu-antolatzailea, ahal den neurrian, lotzen dituen zatien tartean erabili, edo ahalik aurreen.

Batzuetan, nahikoa da antolatzailea lekuz aldatzea (horretarako aukera ematen badu, jakina):

haurraren <i>tontokeria</i> batzuen aurrean, adibidez (13) ⁵	adibidez , haurraren <i>txorakeria</i> batzuen aurrean
--------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------

Beste batzuetan, alabaina (testu-antolatzaileak horretarako aukerarik ematen ez duenean), bestelako strategiak erabili beharko dira. Esaterako, berez aurrean joaten den (edo joan daitekeen) sinonimoaz ordezkatu:

Haurrarekin hitz egitea beharrezkoa bada [ere]... (13)	Nahiz eta haurrarekin hitz egitea beharrezkoa izan...
---------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------

⁵Parentesi arteko zenbakiak adierazten dute artikulua zein paragrafotakoak diren esaldiak.

Edo, nahiz eta sinonimoa izan ez, antzeko balioa-edo duen testu-antolatzaileaz ordezkatu, egin beharreko gainerako aldaketak eginez:

<p>Gure garaikideei begiraturaz, ikusten da haurra sarri jainko berri ukiezin-zko bihurtu dela (2)</p> <p>armonia kasu honetan elkar osatzen duten indarren arteko oreka baino gehiago istilu gabezia bezala definitzen delarik (7)</p> <p>Baina nola bultzatu dinamika hau, inguruak etengabe adierazten badu haurra beti asebate behar dela? (11)</p>	<p>Gure garaikideei behatzean, ikusten da nola haurra sarri bihurtu den jainko berri ukiezin</p> <p>eta harmonia, kasu honetan, gehiago da gatazkarik eza, indar osagarrien arteko oreka baino.</p> <p>Baina nola bideratu dinamika hori, non eta haurra etengabe asebetetzera bultzatzen duen giroan?</p>
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Iragarlez hornitu hala horni daitekeen testu-antolatzailea

Testu-antolatzaile batzuek (**ba-** baldintzazkoak, **arte** denborazkoak, zenbait superlatibok, **ere** lokailuak...) iragarleren (indartzailerren) bat eraman dezakete aurretik: **baldin (eta)**, **harik (eta)**, **ahalik (eta)**, **baita**, **ezta...**

Esaterako:

<p>Zenbat gurasok ez du aitortzen, munduko kontzientziarik onenaz bestalde, beren haurra dela «guztia beraientzat», guraso bezala duten egitekoa guztiz bestelakoa izan beharko zukeenean: beraiek izan behar dute erakarpen gunea beren haurrentzat. (3)</p>	<p>Guraso askok aitortzen dute, gauzarik naturalena balitz bezala, beren haurra dela «dena berentzat», noiz eta gurasoen egitekoak guztiz bestelakoa izan beharko lukeenean: beraiek izan haurraren erakarpen-gune.</p>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Tarteki (testu-markatzaile) bihurtu, eta aurreratu, berez ez dena

Batzuetan, sintagma jakin bat, nahiz eta berez tarteki (testu-markatzaile) izan ez, tarteki bihur daiteke esaldiaren esanahia funtsean aldatu gabe. Eta, hala, aurreratzeko aukera ere ematen du, behar izanez gero.

<p>hurrengoan gisa bereko egoerei hobeto aurre egin ahal diezaien. (10)</p> <p>Sarri depresio sakon bat [...] agertuko da une horretan (15)</p>	<p>eta, ondoren, gero eta hobeto aurre egiteko antzeko egoerei.</p> <p>Orduan, depresio sakon bat sortzen zaie askotan</p>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Testu-antolatzailea sartu

Testu-antolatzaile berriak ere sar daitezke testuan:

Moral bitxi honek psikoanalisiaren ekarpenak ukatzen ditu –handik elikatuz, hala ere–: psikoanalisiak garbi azpimarratu du pozak eta nekeak txandaka joan behar dutela haurraren munduarekin dituen harremanetan. (9)	Moral bitxi honek ukatu egiten ditu psikoanalisiaren ekarpenak, nahiz eta bertatik elikatu. Izan ere , psikoanalisiarentzat garrantzizkoa da pozak eta nekeak txandatzea, haurrak munduarekin dituen harremanetan.
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

2. Pausaldiak markatzeko estrategiak

Hiru estrategia erabil ditzakegu; hirurak, ikusi berri ditugun horien antzekoak. Orain, ordea, ahalik eta aurreen ez baina, pausaldien tokian joango dira testu-markatzaileak: subjektuaren eta predikatuaren artean edo aditzaren eta osagaien artean.

Testu-markatzailea kokagunez mugitu:

Ordainetan, noski , berarengan ipini den itxaropen izugarriari erantzun beharrean izango da haurra. (4)	Ordainetan, haurrak gai izan beharko du, jakina , berarengan ipinitako itxaropen izugarriari erantzuteko.
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Tarteki (testu-markatzaile) bihurtu, eta kokagune egokira eraman (behar izanez gero), berez ez dena

Eta pozgarrizat jotzen da gaur gizarteko zenbait sailetan, haurra helduaren interesgune bihurtu delako (2)	Pozgarrizat jotzen da, gaur , haurra helduaren interesgune bihurtu izana gizarteko zenbait sailetan
«Haurra kontutan hartu» izan ordez «hura bizitzako erdigune bihurtu» bilakatzen da orduan . (3)	«Haurra kontuan hartu», orduan , «haurra bizitzako erdigune egin» bihurtzen da.
Bi ondorio nahiko nola halako dituen bi postulatutan oinarritzen da jokamolde hau. (7)	Jokaera horren oinarrian , bi uste daude, ondorio zalantzagarririk dituztenak.
Nerabe honek ezintasunik txikiena bortizkeria bezala sentituko du (16)	Nerabe honentzat , erresistentziarik txikiena ere bortizkeria da

Testu-markatzailea tartekatuta

<p>baina kultur aldetik dagoen adostasunak eta merkataritzaren presioak joera hori indartzen dutenez oso zaila da azalerarazten. (5)</p>	<p>Eta are ezkutuago geratzen da, gainera, giro kulturalaren eraginez eta merkataritzaren presioagatik.</p>
<p>bestetik, haurraren egiazko premia berak azaltzen duenera egokitzen da eta hau bere aldetik gurasoek premia horretaz duten iritziarekin bat egiten da. (7)</p>	<p>Bestetik, haurraren egiazko premia, berriz, bat dator berak azaltzen duenarekin eta hau ere bat dator gurasoek premiaz duten ideiarekin.</p>

4. AMAITZEKO

Hona iritsita, egoki izango da bai atzera begiratzea, hemen azaldutakoa laburbilduz, bai aurrera begira ipintzea, eginkizun duguna aurreikusiz.

Deigarria gerta daiteke, agian, aurkezpen honetan jakintzat eman izana zer diren testu-antolatzaileak. Liburuan, bai, ematen da horien berri [30-40], eta banaka batzuk modu xehean ere azaltzen dira [49-64] eta beste batzuk adibidez hornitu ditugu [67-75].

Hemen, ordea, jakintzat ematen ditut, gauza bat azpimarratu nahian. Izan ere, hasieran esan dudanez, bat baino gehiago gal daiteke liburu honetan. Esaterako, uste izanez testu-antolatzaileez diharduela, noiz eta estrategiak di-tuenean gai nagusi. Saiatu gara, behin eta berriro, galbide hori ixten, izenburu-tik hasita, letren tamaina ere baliatuz.

Askotan erabili ohi da behatzaren eta ilargiaren adibidea: nola norbaitek lagunari behatzez ilargia erakusten dion eta nola laguna behatzari begira geratzen den. Liburu honek estrategiak ditu erakusgai; behatzari begira geldituko da testu-antolatzaileetara mugatzen dena.

Erabakiak hartuz ikasten da erabakiak hartzen; estrategiak erabiliz, estrategia erabiltzen. Estrategiak erabiltzeko, ordea, gaia behar da: estrategiak zerekin hartua, zeri buruz hartua. Zer horiek, liburu honetan, testu-antolatzaileak dira.

Baina non erabaki hartu asko dago testugintzan. Eta horietako bakoitzak ematen digu aukera erabakiak hartzeko. Orain testu-antolatzaileak bezala, beste elementu bat izan dezakegu hurrengoan bitarteko. Balioko ahal digu gaitasun estrategikoa lantzen jarraitzeko; besteak beste, Mitxelenaren Arantzazuko txostenaren seigarren atala –«Joskera» izenburu duena– ikuspegi estratagikoaz irakurriz.

Eranskina

Hona hemen, azkenik, «Jainko txikia» artikulua, zutabe banatan: ezkerrean, *Unescoren Albistarian* argitaratu bezala; eta, eskuinean, egokitua (Rose, 1991).

Egokitzailak artikulua ez zuen egokitu, berez, testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa adibidez hornitzeko. Agian, horregatik, adibideak ez dira batzuetan hain nabarmenak. Alde horretatik galdutakoa, ordea, beste aldetik irabazten dugu. Adibideak, naturalagoak eta aberatsagoak gertatzen dira horrela. Bestalde, erreferente zuzena izan zuen beti jatorrizko bertsioa: frantsesez idatzia.

Liburuan bi bertsioak errespetatu dira funtsean, baina ortografia gaurkotuz, eta zenbait hitz nabarmenduz: bi bertsiotan, **letrakera lodian**, testu-antolatzaile esanguratsuenak eta **letrakera lodian azpimarratuta**, liburuan iruzkindukoak; eta jatorrizko bertsioan, azpimarra soilez, testu egokituari antolatzaile bihurtuak [81-86].

Jainko txikia	Jainko txikia
<p>Maitegia gerta al daiteke haurra?</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Gaizki maitaturiko haurrak aipatzen direnean, sarri etorri ohi da gogora nahiko maitea ez den bat, are bat ere maitatua ez den bat, sekula ez ordea maitatuegia den bat! 2. Eta pozgarritzat jotzen da <u>gaur</u> gizarteko zenbait sailetan, haurra helduaren interesgune bihurtu delako; baina oraindik finkatzeko dago harreman mota berri hori. Gure garaikideei begiraturaz, ikusten da haurra sarri jainko berri ukiezinak bihurtu dela, izaki sakratua, denek bere babeslekuan gorde nahi dutena, munduko erasoetatik urrun. 3. «Haurra kontutan hartu» izan ordez «hura bizitzako erdigune bihurtu» bilakatzen da <u>orduan</u>. Zenbat gurasok ez du aitortzen, munduko kontzientziarik onenaz bestalde, beren haurra dela «guztia beraientzat», guraso bezala duten egitekoa guztiz bestelakoa izan beharko zukeenean: beraiek izan behar dute erakarpen gunea beren haurrentzat. 	<p>Maite al daiteke gehiegi haurra?</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Gaizki maitatutako haurrak aipatzean, gutxiegi maitatuak etortzen zaizkigu gogora, baina ez gehiegi maitatuak. 2. Pozgarritzat jotzen da, <u>gaur</u>, haurra helduaren interesgune bihurtu izana gizarteko zenbait sailetan; baina oraindik zehaztu gabe dago harreman-modu berri horren zer-nolakoa. Gure garaikideei behatzean, ikusten da nola haurra sarri bihurtu den jainko berri ukiezin, izaki sakratu, bakoitzak bere txokoa babestu nahi duena, munduko erasoetatik urrun. 3. «Haurra kontuan hartu», orduan, «haurra bizitzako erdigune egin» bihurtzen da. Guraso askok aitortzen dute, gauzarik naturalena balitz bezala, beren haurra dela «dena berentzat», noiz eta gurasoen egitekoak guztiz bestelakoa izan beharko lukenean: beraiek izan haurraren erakarpen-gune.

<p>4. Haurra, desiratua denean, sarri gurasoen ni ideal bilakatuko da: hutsune bat betetzen du, bikotearen garaipen gorena da. Eta nork egingo dio aurre jainko txiki bati? Haurra jainkoen mailara jasotzean, ez zaio ezer ukatzen, eta gurasoak prest egongo dira beren buruak hilduratzeko haurrak hildurarik izan ez dezan. Guraso askok lanbidea bera edo etxea aldatzen dute, edo are dibortziatu egingo dira, haurraren ustezko «ongizatea dela-eta». Ordainetan, noski, berarengan ipini den itxaropen izugarriari erantzun beharrean izango da haurra.</p> <p>5. Haurrari erantzuteko prest egoteak sarri mendekotasun moduko bat ezkututzen du, edo gurasoen neurosia azaltzen delarik, baina kultur aldetik dagoen adostasunak eta merkataritzaren presioak joera hori indartzen dutenez oso zaila da azalerarazten.</p> <p>6. Gure hiri modernoetan, parkeak, autobusak, eskolako inguruak, jatetxeak kultu berri hau aztertzeke leku apartekoak dira. Alde guztietan errepikatzen da lelo bera: haurra babestu. Bestela esanda: bere ekimenak ito eta bere nagikeria indartu.</p> <p>7. Bi ondorio nahiko nola halako dituen bi postulaturak oinarritzen da jokamolde hau. Alde batetik, gizonak ahalik eta neke gutxienak pairatu behar ditu armonikoki garatzeko, armonia kasu honetan elkar osatzen duten indarren arteko oreka baino gehiago istilu gabetia bezala definitzen delarik; bestetik, haurraren egiazko premia berak azaltzen duenera egokitzen da eta hau bere aldetik gurasoek premia horretaz duten iritziarekin bat egiten da.</p> <p>8. Bestelako hitzetan, haurrak, mundura etortzearekin batera, jakingo luke bere senak bultzaturik, zer den on beretzat. Harrigarria kontzientzia oro senaren azalpen soilera murrizte hau. Nolabait, azken mendeko moral victoriarraren gehiegikerien ordaina da.</p>	<p>4. Haurra, desiratua denean, gurasoek idealizatu egiten dute sarritan: hutsune bat betetzen du, bikotearen garaipenik gorena da. Eta nork esan ezetz jainko txikiari? Haurra jainko-mailan ipinita, ez diote ezer ukatzen, eta gurasoek nahiago dute beren burua zapuztu, haurra zapuztuta ikustea baino. Askok lanbidea aldatzen dute, edo etxea; eta dibortziatzera ere iristen dira, haurraren ustezko «mesedetan». Ordainetan, haurrak gai izan beharko du, jakina, berarengan ipinitako itxaropen izugarriari erantzuteko.</p> <p>5. Haurraren gain-gainean egotea, askotan, gurasoen neurosia ezkututzen duen morrontza da. Eta are ezkutua geratzen da, gainera, giro kulturaren eraginez eta merkataritzaren presioagatik.</p> <p>6. Gure hiri modernoetako bihotzean, parkeak, autobusak, eskola-inguruak, jatetxeak dira kultu berri horren aparteko behatoki. Alde guztietan errepikatzen da lelo bera: haurra babestu. Bestela esanda: bere ekimenak ito, bere nagikeria indartu.</p> <p>7. Jokaera horren oinarrian, bi uste daude, ondorio zalantzarriak dituztenak. Batetik, gizakiak ahalik eta neke gutxien jasan behar du era harmonikoan hazteko; eta harmonia, kasu honetan, gehiago da gatazkarik eza, indar osagarrien arteko oreka baino. Bestetik, haurraren egiazko premia, berriz, bat dator berak azaltzen duenarekin eta hau ere bat dator gurasoek premiaz duten ideiarekin.</p> <p>8. Beraz, haurrak, jaio orduko, senaz jakingo luke zer den on beretzat. Harrigarria: senaren azalpen hutsera murrizten da kontzientzia. Nolabait, azken mendeko moral victoriarraren gehiegikerien ordaina da.</p>
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

<p>9. Moral bitxi honek psikoanaliaren ekarpenak ukatzen ditu –handik elikatuz, hala ere–: psikoanaliak garbi azpimarratu du pozak eta nekeak txandaka joan behar dutela haurraren munduarekin dituen harremanetan.</p> <p>10. Frustrazio modu bat baliozkoa izan daiteke, baldin horrek gizakia muga baten aurrean jarri eta ezintasun hori bereganatzeko gai izango den egitura psikiko bat garatzeko aukera ematen badio, hurrengoan gisa bereko egoerei hobeto aurre egin ahal diezaizen. Frustrazio bat gainditzeko gaitasun hau da gizontxoari bere autonomia astiro eraikitze bide ematen diona.</p> <p>11. Baina nola bultzatu dinamika hau, inguruak etengabe adierazten badu haurra beti asebate behar dela?</p> <p>12. Helduaren zeregina, hasteko, haurrari heldutasunerako bidean laguntzea da, hau da errealitateari aurre egiten, ez hari ihes egiten laguntzea. Beraz, borondaterik onenez, haurraren eta egiazko bizitzaren artean horma bat altxatzen badute, haurrari egiazko esperientzia izan dezan eta erreferentzia puntu egokiak finka ditzan eragozten diote gurasoek.</p> <p>13. Haurrarekin hitz egitea beharrezkoa bada, zenbait pertsona helduren argibide sistematikoek eta beren pazientzia mugagabeak –haurraren <i>tontokeria</i> batzuen aurrean, adibidez– errealitatea bere alderdi guztietan sumatzeko gaitasuna ken diezaiketete beharbada haurrari, bizitza bere okerren aurrean beti onbera izango dela erakutsiz bezala.</p> <p>14. Era berean, munduarekiko harreman sentzuala kenduko dio, harreman erabat zerebral baten mesedetan. Adibidez: zerbait ukituz gero</p>	<p>9. Moral bitxi honek ukatu egiten ditu psikoanaliaren ekarpenak, nahiz eta bertatik elikatu. Izan ere, psikoanaliarentzat garrantzizkoa da pozak eta nekeak txandatzea, haurrak munduarekin dituen harremanetan.</p> <p>10. Frustrazio jakin bat onuragarria izan daiteke, baldin eta gizakiari aukera ematen badio egitura psikikoa garatu eta ezintasun hori gainditzeko eta, ondoren, gero eta hobeto aurre egiteko antzeko egoerei. Frustrazio bat gainditzeko gaitasunari esker egingo da ume koxkorra, astiro-astiro, bere autonomiaren jabe.</p> <p>11. Baina nola bideratu dinamika hori, non eta haurra etengabe asebetetzera bultzatzen duen giroan?</p> <p>12. Helduaren zeregina, lehen-lehenik, haurrari laguntzea da heldu bihurtzen; hau da, laguntzea errealitateari aurre egiten –eta ez bizkar ematen–. Gurasoek, hobe beharrez, hesia jartzten dutenean haurraren eta errealitatearen artean, benetako esperientzia eragozten diote eta erreferentzia egokiak finkatzeko aukerak ukatzen dizkiote.</p> <p>13. Nahiz eta haurrarekin hitz egitea beharrezkoa izan, zenbait helduren argibide sistematikoak eta pazientzia neurrigabea, ordea –adibidez, haurraren <i>txorakeria</i> batzuen aurrean–, kaltegarriak izan daitezke haurrarentzat, murritzuta egiten baitiote errealitatea osorik atzemateko gaitasuna, eta sinestarazi bizitza beti onbera izango dela bere hutsegiteekin.</p> <p>14. Horrela, eragotzi egiten diote munduarekin harreman sentzuala izatea ere, harreman erabat zerebralaren mesedetan. Adibidez: berdin al da</p>
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

<p>min ematen duela <i>jakitea</i>, eta <i>ukitu</i> eta <i>sentitzea</i> gauza bera al dira? Haurrak <u>beretz</u> bilatzen ditu ezin dituen gauzak, bera kokatzeko eta nortasuna eraikitzeko bide emango diotenak. Aurkitzen ez baditu, orain ez bada geroago, hutsune horrek sortzen dion antsiaren aurrean jokabidearen bat hartuko du.</p> <p>15. Gure haurrek ez dute ikasten gehiago mundura jaiotzen, eta adoleszentiako aldaketa jasanezinezko trantze bezala azaltzen zaie. Sarri depresio sakon bat, zinismoz eta nihilismoz jantzia, agertuko da <u>une horretan</u>, haurrak huts hori, gabezia hori azaleratuko balu bezala: ezerk ez du ukitu, ez du ezer ukitu, beraz ez dio ezerk ukitzen!</p> <p>16. Nerabe honek ezintasunik txikiena bortizkeria bezala sentituko du, bizitzaren indar bizia jasanezinezko bihurtu zaio. Bere gabeziak jota bizi da, bera egituratu eta ez inguratu soilik egingo lukeen maitasun baten egarri, egiazkora eta honek duen gogortasunera iristeko bide eskaintzen dioten aukerei ihes eginez ordea beti ere. Oldarraren eta malenkoniaren erdian harrapatu, sufritzen dagoen izakia ezin da bere kabuz abiatu bizitzara.</p> <p>17. Hala, gizarte laguntzaileak, medikuak, psikologoak edo psikoanalistak gero eta sarriago egin behar diote aurre desespero mota berri bati. Haurraren arazoak ez dira sortu haurtzaro zoritxarreko batetik, bai aldiz haurtzaro <i>mimatu</i> batetik.</p>	<p><i>jakitea</i> zerbaitek, ukituz gero, min ematen duela, eta <i>ukitu</i> eta <i>mina sentitzea</i>? Haurra, beretz, erresistentzien bila dabil, bere burua kokatzeko eta garatzeko. Aurkitu ezean, hutsune horrek sortutako antsiaren aurka erreakzionatuko du bihar edo etzi.</p> <p>15. Gure haurrek ez dute ikasten mundura «jaiotzen», eta jasanezina egiten zaie adoleszentiako aldaketa. Orduan, depresio sakon bat sortzen zaie askotan; eta horri, gainera, halako jarrera zinikoa eta nihilista eransten zaio, lehen bizi izandako gabezia azaltzen ariko balitz bezala: ezerk ez du ukitu, ezerk ez du hunkitu, dena zaio higuigarri!</p> <p>16. Nerabe honentzat, erresistentziarik txikiena ere bortizkeria da; bizitzaren indar bizia, jasanezina. Gabeziak jota bizi da, eta egituratzeko –eta ez soilik babesteko– aukera emango dion maitasunaren egarri; atzera eginez, ordea, errealitatera eta honen basakeriara iristeko aukeren aurrean. Agresibitatearen eta malenkoniaren erdian harrapatu, sufritzen dagoen izakiak ezin du bizitzan berak bakarrik aurrera egin.</p> <p>17. Hala, gizarte-laguntzaileak, medikuak, psikologoak edo psikoanalistak etsipen-mota berri batekin egiten dute topo gero eta gehiagotan. Haurraren arazoaren sorburua ez dago zoritxarreko haurtzaro batean, baizik eta, alderantziz, haurtzaro <i>mimatu</i> batean.</p>
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

BIBLIOGRAFIA

- ESNAL, PELLO (2002): «Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa», in *Hizpide* 51: 19-33.
- MITXELENA, LUIS (1968): «Ortografia», in *Euskera* 13: 203-219.
- VILLASANTE, LUIS (1975): «Hitzaurre gisa», in Altube, Sebero. *Erderismos*. Bilbo: Indauchu, V-XII.
- (1976): «Seigarren edizioari aitzinsolasa», in Axular, Pedro. *Gero*. Oñati: Jakin, IX-XXXIV.
- (1988): *Euskararen auziaz*. S.l, s.n. («Luis Eleizalde» saila 9).
- ZUBIMENDI, JOXE RAMON; ESNAL, PELLO (1993): *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ADIBIDEEN ITURRIAK

- ARARTEKO (1991): *Kalabozoak. Ertzantzaren eta udalen atxiloketa egoitzak. Los calabozos. Centros de detención municipales y de la ertzantza*. Vitoria-Gasteiz: Ararteko - Euskal Herriko Unibertsitatea.
- KINTANA, XABIER (2002): «Juan San Martin Ortiz de Zarateri urrezko luma», in *Euskera* 47: 311-313.
- ROSE, ANNE (1991): «Jainko txikia», in *Kurrikulu-garapena: 2001-2002. Testuak*: 38-39; HABEren barne-argitalpena (egokitua). Jatorrizkoak: «Jainko txikia», in *Unescoren Albistaria* 83: 32-33; «Le petit dieu», in *Le Courrier de l'Unesco*, 1991ko urria: 32-33; «Un pequeño dios», in *El Correo de la Unesco*, 1991ko urria: 32-33.

TESTU-ANTOLATZAILEAK GAZTERIAREN IDAZKERARAKO ARGITASUNA ETA GARBITASUNA

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

1. AURKEZPENA

Iruñeko Jaso ikastolara dator Euskaltzaindia, edo hobeto esanik, Euskaltzaindiko Jagon Saila ezen, Iker Saila beti hor izanda ere, gaurkoan jagonek eta zainduk hartzen baitute protagonismoa.

«**Testu-antolatzaileak gazteriaren idazkerarako argitasuna eta garbitasuna**» jartzen dudanean izenburu, helburu jakina nahi da jendarteratu, beti ere, Jagon Sailaren xedearekin batera.

Jagotea, zaintzea zeri deritzagun ulertzeko, berariazko jardunaldiak dira gaurkoak, hain zuzen ere, Jagon Sailaren eginkizuna ezin nabarmenago erakusten dutelako.

Euskaltzaindia arduraz azaltzen da ikusirik, euskal testugintzak badituela arazo nagusi bi, beste batzuen artean, euskaraz irakurtzeko zailtasuna eta euskal prosazko tradizio sendoak taiutu barik irautea; hortik, pausaldiak markatzeko zailtasuna, eta testuak azkarga eraikitzea. Jokabide horrekin, Jagon Sailak bere berea duen funtzioa betetzen du, alegia, euskara jagotea, zaintzea, ikertzeaz gainera; euskaldunen premia bati erantzuna ematea.

Edozelan ere, euskal munduko oztopo horri aurre egitean, inplizitoki bada ere, onartu egiten da, XXI. mendeon bertan ere, geure artean ditugula, euskarari dagokionean, garbitu gabeko kontuak. Euskaltzaindiak, jakitun egonik, jardunaldiotan erantzuna dakar *testu-antolatzaileak* deritzan 7. liburukia ere bertan aurkeztuz.

2. HELBURUA

«Hegoak ebaki banizkion, neurea izango zen». Baina ez zitzaizkion ebaki, behintzat, Leizarragarengandik hasirik mila eta bederatziehunera arte, txoria nahi zelako neure baino aske. Euskal prosaren hego paretarik bata Greziako bideari jarraitzen zitzaion, bestea ahoz aho iritsi zitzaigunari. Harik eta hego klasikoaren mozturik, txoria neure bihurtu zen arte, arranoa hegazkada laburreko hegazti.

Geroztik, Aita Villasante doluminetan irakurri izan dugu: «Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat».¹

Mintzoa soilik duen hizkuntza hego bakarreko da, ezen bigarren hegoa, alegia, idatzresna, tradizioz eratzten dena, eten egin baitzen. Harrezkero, aunitz saio eta euskara eder ordenagailuratu arren, prosa egiteko moldeaz deitoratzen dihardugu. Zaldia eta astoa batzandurik mando ederrak sortu ditugu; mandoak, ordea, ez dakar kumerik.

Geroan, begiak iraulirik, gaintitu egin beharko dugu 1900eko mendikatea, ordura arteko klasikoei jarraikiz eraikitzen baita euskal prosa, edonoiz baten, ahozkoaren transmisio bideari idatzizkoa batu dakion; laburrean loturiko hegatzia arrano dadin, ezen nik «txoria nuen maite».

Zein bidek ginderamatzake hara? Lehenengo eta behin, ohartzeak gure aktibitate linguistikoa osatua dagoela, ez perpausa isolatuz, bakanez, ezpada perpausa multzoz, zeinek lotura duten beraien artean. Abiapuntua, testu-antolatzaileak dioen bide-seinalea dugu. Horrants ditugu zuzenduko neska-mutil elebidunak, zeintzuk euskara ez eze erdara ere soinean daramaten.

3. TESTU ANTOLATZAILEAK

3.1. Marko teorikoa

3.1.1. Status quaestionis: *Perpausa azkargak eta pausaldiak*

Gure prosaren ezaugarrietakoak izango dira: testu antolatzaileen erabilera murriztua, batetik, eta bestetik, pausaldiak markatzeko zailtasuna. Eta gaitz horien kausaz, arazo bi atzematen ditugu gaurko euskal testugintzan; idatzian, batez ere: azkarga idaztea eta pausaldiak markatzeko zailtasuna:

Gainera –dio Pello Esnalek– gaurko testugintzaren egoera ulertzeko, beste faktore bat ere kontuan hartu behar da gure ustez, garbizalekeriarekin batera: gramatikaren izenean arautu nahi izana edo ulertu izana, besteak beste, hitz-ordenaren eta testu-antolatzaileen erabilera, soilik gramatikaren alorreko balira bezala.²

Horrela ulertu da maiz, zenbait hizkuntza baliabideren erabileran nahikoa dela arau gramatikalak betetzea.³

¹VILLASANTE, L. (1988) *Euskararen auziaz*, Luis Elizalde Saila, Lizarra, 142. or.

²EUSKALZAINDIA (2008): JAGON *SAILA*, *CORPUS BATZORDEA* (2008): *Testu antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*, Jagon Bilduma, 6, Corpus Batzordea 18. or. Bilbo.

³Edonola ere, denok hartu beharko genuke aintzat Iñaki Gamindek dioena: «Gramatika bada hiztunaren gogoan hizkuntza erabili ahal izateko dagoen arau multzoa, ez dut ikusten non dagoen gramatikaren kontrako grina».

Denean dela, euskal testugintzak –gorago aipatu bezala–, konpondu gabe ditu testu-antolatzaileen murrizketak eta hitz ordena desegokiak sortutako arazoak.

3.1.2. *Ikuspegi teorikoa baino pragmatikoa*

Guk helburu praktikoak ekarri gura izan ditugu hona, beti ere ahantz gabe, Kurt Lewin-ek idatzi zigunez:

*There is nothing so practical as a good theory.*⁴

Alde horri begiraturik, hariari eusteko besterik ez bada ere, norabidea erakusten digun teoria –bertorako doitua eta taiutua den arren, «ad hoc» baka- rrik ez dena–, azalduko dugu.

Edonola ere, batik bat, *Ad usum scholarum* denez, gure neska-mutilen idazkera nahiz irakurketa argiago eta garbiago gerta dadin, ikuspegi komu- nikatiboaz baliatuko gara, hots, ikuspegi gramatikala gainditzera datorrenaz.

3.1.3. *Ikuspegi komunikatiboa*

Hizkuntzaren erabilerako estrategiak zer diren ulertzeko, laguntza handia dira ikuspegi gramatikala eta ikuspegi komunikatiboa.

Ikuspegi komunikatiboan, formatik komunikaziora egiten da jauzi; ez da arreta jartzen mezuaren hizkuntza formetan, ezpada komunikazioan. Irakaslea, hortaz, komunikazio-helburua bete dadin ahaleginduko da, arreta forman ipini gabe.

Ikuspegi gramatikala gainditzera dator ikuspegi komunikatiboa. Ikuspegi berri horrek bere barruan hartzen ditu ikuspegi gramatikala, ikuspegi soziolin- guistikoa, ikuspegi testuala eta ikuspegi estrategikoa. Edozein modutan, ikus- pegi komunikatiboari leku egiteak, paradigma-aldaketa eskatzen du, eta, hu- rrean, ez da hain kontu erreza ezen, euskaltzale asko aiseegi makurtzen baita ikuspegi gramatikalaren aurrean, hiztunari dagokion askatasunaren eremuari uko eginik:

Edozein hizkuntzatarako baliagarri den bereizketa, oraindik oraintsu azpimarratzen hasia dena, alegia, alde batetik, gramatikak ezarritako hitzordena, eta bestetik, testuaren zein solaskideen aukerakoa, euskarari dagokionez are ba- liagarriagoa dela frogatu nahi izan dugu lan honetan, kontuan izanik euskara hi- tzordena –edo sintagma ordena– libreko hizkuntza dela eta ordena aldaketa bi- dezko fokalizazioaren erregela aplikatzen duela. Solaskideen aukera hori, berriz,

⁴LEWIN, K. (1972): in *Idioma y poder social*, Ninyoles, R., 7. or.

S.O.A. ordena ez markatuaren eta markatu guztien artean egin ohi da diskurtsoaren hari ezberdinen ildotik. Komunikazio estrategia ikusi dugu sintagma ordenaren aukeren oinarrian.⁵

Arterago ere aipatu dugunez, beraz, hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboan, laguntza handia eskaintzen ari zaigu azken urteetako aurrerabidean.

Diskurtsoaren analisiari buruzko obra guztietan agertzen den ideia da –eta adostasun osoz– perpausa ezin izan daitekeela analisirako unitate minimoa, ezen unitate sintaktikoa baita, abstraktua, teorikoa, hizkuntzaren sistemari dagokiona, eta beraz, diskurtsoaren planoan kokatzen ez dena:

*Il testo è l'unità fondamentale della nostra attività linguistica. Un'unità che corrisponde ad una determinata intenzione comunicativa e che si distingue dalla frase non tanto quantitativamente quanto piuttosto qualitativamente. Il testo nasce da un equilibrio delicato tra un'esigenza di continuità e un'esigenza di progressione (di sviluppo). Il testo è un insieme di frasi, ma può consistere anche di una sola frase, purché essa abbia senso compiuto e rappresenti un messaggio che l'emittente considera completo.*⁶

Ondorioz, bilatu behar dena da analisirako unitate minimoa, testuari eta errealtate komunikatiboari dagokiona, testuinguru errealean igortzen dena eta lege diskurtsiboan pentsudan dagoena, baita ere, lokutore batek igorria eta hartzaile batek jasoko duena eta, gainera, egongo ez dena gramatikaltatearen kriteriopean. Unitate hori enuntziatua da.

Horrez gain, enuntziatua sintaxiaren ingurutik urruntzeak eskatzen digu mintza gaitzen maila diskurtsiboaz, enuntziatiboaz edo testualaz. Azken baten, enuntziatua beste maila baten aurkitzen da, nahiz eta noizbehinka, bat etorri estrukturen perpausarekin, eta estrukture hori, forma pertsonaleko aditza nagusi duena izan.

Hitz laburretan azalduta, perpausa da, unitate minimoa maila sintaktikoan; enuntziatua unitate minimoa maila diskurtsiboan.

Zer da, ordea, enuntziatua? Hara elkarrizketa hau adibiderako:

–*Hartu duk berokia?*

–*Bai!*

–*Orduan jantzi ezak irten aurretik, hotz egiten du-eta!*

Testu horretan hiru enuntziatu ditugu. Bestalde, ordu bi dirauen berbaldi eten gabea ere enuntziatua da.

Hortaz, arterago argitutakoaren ildoari jarraikiz, adierazteko moduan gara, maila diskurtsiboa dela testu-antolatzaileen joko zelaia. Ahozko mintzairan, berezitasun prosodikoak dira –etenak-eta– enuntziatuaren mugak markatzen

⁵OSA, E. (1990): *Euskararen hitzordena*. Euskal Herriko Unibertsitatea, 295. or.

⁶DARDANO, M. ETA TRIFONE, P. (2006): *Gramatica italiana*, Zanichelli, Milano, 529. or.

dituztenak. Idatzizkoan, asmo prosodikoa era ortografikoan adierazten da, puntuazio zeinuen bidez.

Horrenbestez, testu-antolatzaileek beti jokatu dute kokagune interenuntziatiboan, hots, enuntziatu batzuk besteekin erlazionatuz; baina –eta horixe da guretzat giltza– enuntziatuaren eduki osoa erlazionatuz eta ez haren elementuarik bat, ezen horri esker jakingo baitugu *baina* bezalako juntagailuak noiz ari diren jokatzeko maila diskurtsiboan eta noiz ez.

Arlo honetan, diskurtsoaren azterketarako oinarrizko kontzeptuak koherentzia eta kohesioa dira. Koherentzian adimen ahalmenaz dihardugu; kohesioa, ostera, era askotako mekanismo linguistikoz ari da.

Kohesiorako prozedura linguistikoen artean –testuaren koherentzia indartzeko artean– agertzen zaigu enuntziatuen arteko erlazioa, testu antolatzaileen bidezkoa.

Munarri honetaraino iritsirik, iragartzera emateko moduan gara:

1. Testu-antolatzailearik gabe ere testua izan daitekeela koherente.
2. Testu-antolatzaileek ez dutela sortzen koherentzia, baina lagundu egiten dutela koherentzia indartzen.
3. Testu-antolatzaileek bermatu egiten dutela hartzaileak mezua argi bezain garbi jasotzea, gutxi ez dena, batik bat gazteen idazkerari erantzun praktikoak bilatzeko saioetan gabiltzanean.

Gramatikaz ari garenean, hizkuntzaren zuzentasunaz ari gara. Zuzentasun hori, baina, ez da nahiko hizkuntza modu egokian erabiltzeko. Testua osotasuna da, ez esaldi solteen pilaketa hutsa. Eta ikuspegi testualak ulertarazi dигenez, osotasun horrek ere baditu bere legeak.

Edonola ere, dena ez da arau eta lege, behin arau gramatikalak betez gero eta testuaren legeak aintzat hartu, hiztunari askatasunaren eta erantzukizunaren eremua zabaltzen zaio; hiztunari berari dagokio erabakiak hartzea.

Hori horrela, gaitasun gramatikalaz baliatuta erabakitzen dugu hizkuntzaren erabileran zer den zuzena eta zer ez. Baina zuzenaz gain, egokia ere izan behar duenez hizkuntzaren erabilerak, alde batetik, testugileen araberakoa gertatu beharko du, eta, testuinguruaren araberakoa, bestetik. Eta egokitasun bikoitz hori lantzeko baliabide ezin hobea gertatuko zaigu gaitasun estrategikoa. Gaitasun horiek egoki erabiliz jardungo dugu euskal prosan aurrera egiten.

Honainokoa azaldu ondoren, arteragoko euskaldunek teorian zein praktikan egina aintzat harturik arakatu beharko dugu, gaur eguneko euskal testugintza. Horretarako, testuaren arloan kokatuko gara, eta testuaren osagaie-tako bat aztertuko dugu, alegia, testu-antolatzailea; era horretara, euskal prosa taiutzeko saioetan gertatu den desbideraketa norabide egokian jarriko dugu.

3.2. Edukia

3.2.1. *Zeri deritzo testu-antolatzaile*

Testu-antolatzaileen zeregina testu zatiak lotzea da. Horrez gainera, iragarri ere egin dezakete, baita tarteki izan ere.

Testu-antolatzaileetan hiru sail bereiz genitzake:

1. Testu-markatzaileak (hauen barruan kokatuz lokailuak).
2. Juntagailuak eta menderagailuak.
3. Zenbait adberbio, adberbio-esapide eta postposizio-sintagma.

1. Testu-markatzaileak. Euskaltzaindiko Jagon Saileko 7. liburukian, testu-markatzaileen barruan kokatzen dira lokailuak.⁷

2. Juntagailuak eta menderagailuak.

Testu-markatzaileena baino handiagoa da testu-antolatzaileen eremua, izan ere, eremu horretakoak ditugu-eta juntagailuak eta menderagailuak ere. Horien zerrenda gura duenak, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordean ditu (1994, 1999, 2005).

3. Zenbait adberbio, adberbio esapide eta postposizio-sintagma. Halakoak dira: *nolanahi ere*, *edozeelan ere*...

3.2.2. *Zertarako erabili testu antolatzaileak?*

Testu-antolatzaileek lotura egiten dute, batzuetan estuagoa, lotura sintaktikoetan, juntagailuak eta menderagailuak direnean; beste batzuetan lasaigoa, esaldien arteko direnetan, markatzaileek-eta gauzatutakoetan.

Bestalde, batzuetan testu unitate handiak lotzen dituzte (esaldiak edo esaldi multzoak); besteetan, sintagma, hau da, unitate txikiagoak.

Gainera, beste egiteko bat ere badute testu-antolatzaileek lotura egiteaz gainera: ostean zer datorren iragarri, ondorengo nola irakurri –nola entzun– adierazi.

Horrez gain, tarteki moduan ere erabili ohi dira testu-antolatzaileak –*ere* eta halakoak izan ezik–, koma artean idatziz. Ostera, juntagailuak eta menderagailuak ez dira inoiz tarteki.

⁷ Oharra: Artikulu honetan ez dut sartu antolatzaileen sail osoa ezen, Euskaltzaindiaren 1990eko Euskal gramatikako *lehen urrats*etik hasirik, Bittor Hildagoren ikerlanetatik eta Alberdi A.en *Eskola gramatikatik* igaroz Jagon Saileko 7. liburuki honetara arte –*Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* deritzanera– bilduma ederra baita ukagu eskura.

Azken batean –abiapuntuan iragarri bezala– euskal testugintzaren arazo nagusi biak konpontzeko bidea eskaintzen dute, hots, atzerakarga eta pausaldiak markatzeko zailtasuna.

3.2.3. *Euskal prosaren tradizioa: aldeko jarrerak eta aurkakoak*

Euskal prosak ezagutu izan duen tradizioa, eskola, aldatu edo moldatu baino baztertu egin zen orain ehun urte. Harrezkero, tradizioaren aldekoen jarrerak eta aurkakoenak pil-pilean dira.

J. A. Mujikak idatzi zuen Zeruko Argian 17-11-74an:

Prosa... egiteko dago oraindik, neurri handi batean behintzat. Eta, haatik, beharrezkoa dugu, poesia bera baino beharrezkoagoa beharbada. Gaur, euskara literarioaren inguruan dabilkigun borroka honetan, nahi eta ezkoa dugu prosazko tradizio sendo bat osatzea.⁸

Baieztapen horri segitzen dio Luis Villasantek esanik:

Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, euskara bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da.

Geroago, honela darraio:

Euskararentzat gauza denetan bakar bidea nahi da: hitzetan, sintaxian, orotan. Ordura arteko idazleek erabilitako prosan kutsadura besterik ez zuten ikusten.

Horrela,

Lehengo tradizioa, nazioarteko prosaz bat zetorrena, zokoratua, madarikatua eta ahantzia izan da.⁹

Ikus dezagun, adibiderako bada ere, Mendebaldeko tradizioaren bilakabidea, Bibliako testuen erkaketa bidez:

Grezieraz

⁵ και αλλο επεσεν επι το πετρωδες | [και] | | οπου ουκ ειχεν γην πολλην και ευθυσ εξανετειλεν δια το μη εχειν βαθος γης

⁶ και οτε ανετειλεν ο ηλιος εκαυματισθη και δια το μη εχειν ριζαν εξηρανθη

⁷ και αλλο επεσεν εις τας ακανθας και ανεβησαν αι ακανθαι και συνεπνιξαν αυτο και καρπον ουκ εδωκεν

⁸VILLASANTE, L. Op. cit., 142.

⁹VILLASANTE, L. Op. cit., 146. or.

Latinez

- ⁵ Aliud cecidit super petrosa, ubi non habebat terram multam, et statim exortum est, quoniam non habebat altitudinem terrae;
- ⁶ et quando exortus est sol, exaestuavit et, eo quod non haberet radicem, exaruit.
- ⁷ Et aliud cecidit in spinas, et ascenderunt spinae et suffocaverunt illud, et fructum non dedit.

Ingelesez

- ⁵ Other seed fell on rocky ground where it had little soil. It sprang up at once because the soil was not deep.
- ⁶ And when the sun rose, it was scorched and it withered for lack of roots.
- ⁷ Some seed fell among thorns, and the thorns grew up and choked it and it produced no grain.

Frantsesez

- ⁵ Une autre partie tomba dans un endroit pierreux, où elle n'avait pas beaucoup de terre; elle leva aussitôt, parce qu'elle ne trouva pas un sol profond;
- ⁶ mais, quand le soleil parut, elle fut brûlée et sécha, faute de racines.
- ⁷ Une autre partie tomba parmi les épines: les épines montèrent, et l'étouffèrent, et elle ne donna point de fruit.

Espainolez

- ⁵ Otra parte cayó en terreno pedregoso, donde no tenía mucha tierra, y brotó en seguida por no tener hondura de tierra;
- ⁶ pero cuando salió el sol se agostó y, por no tener raíz, se secó.
- ⁷ Otra parte cayó entre abrojos; crecieron los abrojos y la ahogaron, y no dio fruto.

Leizarraga

- ⁵ Eta berze *parte bat* eror zedin leku harrizuetara, non ezpaitzuen lur anhitzik: eta bertan ilki zedin, zeren ezpaitzuen lur barnetasunik.
- ⁶ Baina iguzkia goratu zenean, erre zedin: eta zeren errorik ezpaitzuen, eihar zedin.
- ⁷ Eta berze *parte bat* eror zedin elhorri artera, eta elhorriak handi zitezen, eta itho zezaten hura, eta etzezan frukturik eman.

Euskaraz gaur (Bibli Elkarte Batua)

⁵ Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen tokian; eta, axaleko lurra izanik, berehala erne zen;

⁶ baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu.

⁷ Beste zenbait ale sasi artean erori zen: sasiek, haztean, ito egin zuten hazia eta ez zuen fruiturik eman.

Erakusketa sinoptiko honetan, aski da begiratu arina konturatzeko Leizarragaren atal azpimarratuak bat datozela gainerako hizkuntzetakoekin; Bibli Elkarte Batukoa ez, ostera.

Prosa gorpuzteko zeregin honetan, gaur egunean ere, Villasanteren uanean bezala, haren berbaz esanik:

Kontua da, ea euskarak kokatua dagoen toki eta aldian, besterik egin zezakeen. Eta orain ere besterik egin dezakeen. Ikusi dugun bezala, nazioarteko prosa bat dago, guztiona dena. Eta guztion hori gurea ere bada, eta horren beharrea gara, gainera.¹⁰

Prosa egiteko modu hori, Mendebaldeko kultura bera bezala, Grezian sortu zen; gero latinak hartu zuen eta latinaren bidez Mendebaldeko hizkuntza guztietara zabaldu da. Gure idazle zaharrek, euskalki guztietakoek, bide hori bera hartu zuten. Beraz, Europako beste hizkuntzetako idazleak bezalaxe jokatu ziren. Eta zinez, ez dugu beste biderik. Ez dugu euskara salbatuko bakar bideak ibilaraziz edo beste hizkuntzen errepidea alde batera utzirik.¹¹

Zehatzago esanik:

Latinaren ume ez diren hizkuntzek –hala nola alemana edo ingelesa–, prosa egiteko kontuan onartua dute latin eta grekoaren subordinazio eta koordinazio-sistema (nahiz eta bakoitzak bere berezitasunekin), eta, horri esker, itzulpenak egitea hizkuntza horietara ez da beste munduko lana.¹²

Stylo syntaktikoaren aldetik Leizarragak maisuki gurutzatzen zituen bereziki euskaraz phrase laburretan erabiltzen dena, alderdi batetik, eta mende honetan «zeiñismo» izenarekin bataiatu zutena tradizio zaharraren kontra hura arbuizten saiatu zirenek, bestetik, horrela erabateko konstrukzio luzeari astuntasuna eta pisua txairoki arindurik. Egin dezagun kontu dioenean; Egen nehor ezta igan zerura, cerutik iautsi dena baicen, cein baita guiconarem seme ceruan dena. Azkenean datorren phrasea erabateko konstrukzio luzean honela litzateke: Ecen nehor ezta igan cerura, cerutik iautsi den eta orain ceruan den guiconarem semea baicen, styloaren aldetik astuna, eta zenbat eta gehiago phrasea luzatu hainbat eta astunago.¹³

¹⁰ VILLASANTE, L. Op. cit., 147.or.

¹¹ VILLASANTE, L. Op. cit., 151. or.

¹² VILLASANTE, L. Op. cit., 152. or.

¹³ IRIGOIEN, A. (1990): *De re philologica linguae uasconicae*, III, Bilbao, 212. or.

Teorian hain garden irakatsi nahiz erakutsi diguten bideari segitu ez badiogu geurea da erantzuna eta ez euskararena, dakigun moduan jakinik Koldo Mitxelenak irabazia zeukan izen handia lagun zuelarik iragarri ziguna:

Latinaren eta erabat sortaldeko hizkuntzen kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, eta goazen aurrera bide horretatik.¹⁴

3.2.4. *Euskal prosa gaur egun*

Gaur eguneko euskal prosa ez da orain 30 urtekoa, ikerketan nahiz praktikan bide luzea egin da, usteak uste:

Lehendik gauza jakina eta sarri aipatua da sintaxia izan dela euskal hizkuntzalari eta gramatikalarien artean gairik isilduena eta zokoratuena. Ez da hor ezer harrigarririk. Beste hizkuntzetan ere, aldeak alde, berdintsu gertatu bide da: «La sintaxis es aquella parte de la lingüística que todo el mundo espera que estudien los demás».¹⁵

Euskal prosaren barruan, Bittor Hidakok hauxe dela dio euskal joskera:

Euskal joskera da euskaldunok nagusiki erabili ohi dugun hura gure artean euskaraz komunikatzen jardun dugunean. Orain eta lehen. Ahoz eta idatziz.¹⁶

Erabileran, ordea, hauxe esanik darrai Bittorrek:

Hitz ordena beti beretsua aurkitzen dugu eta hitz ordena beti beretsu honek zerikusi gutxi du Azkue/Altuberen lege nagusiekin.

Baiezko esaldi nagusietan, prediku nagusia –galdegaia-edo–, oro har, aditzaren ondoren ematen da nagusiki. Batez beste, esaldien %64,6 batean, 3 esalditik 2k betetzen ez duelarik, nabarmen.

Mendeko esaldietan, aditz jokatu bidezkoetan –erlatiboak aparte–, %46,7ak soilik betetzen du Azkue/Altuberen preskripzioa aditzaz amaitzeko. %21,2ak baino ez, esaldi luxeagoetan.

Ez guke inolako espanturik behar, hau aldarrikatzeko gure joskera bezala. Ze, hori ez da gatzeleraren joskera, errealitatea nahasten duen haren buruan baino.

Zer gertatzen da orduan «gure gaurko estandarrean»? Gaur –eta hau ikaragarria da– «gure» estandarrean idazten da beste inongo, inoizko eta inolako euskaldunek inoiz hitz egin edo idatzi ez duen bezala, edota kontrara. Kanpoko edozeinek ez luke sinetsiko kontatuz gero. Beldurgarria. Batez ere, gaurko idazkerak, ulergarritasun/komunikatibotasun arazo larriak erakusten dituzte, gorago aipatu ditugun beste hizkera/idazkera mota horien guztien aldean. Larria.

¹⁴ VILLASANTE, L. Op. cit., 145. or.

¹⁵ PLAMER, F, in OSA, E., Op. cit., 101. or.

¹⁶ HIDALGO, B. (1988): *IVAP*, 21. 1988, 18eta 19. or.

Horrela burutzen du Hídalgok gaurko prosaren gaineko epai zorrotza.

Euskaraz eskribitzen dutenen arteko giroa honelakoa izanik ere, orokorrean, ezin zaku berebetean sartuko ditugu, kasurako, J.M. Irigoienen *Lur bat haratago* edo Xabier Mendiguren Bereziarturen itzulpena: Karl Marx: *Idazlan hautatuak* edo Gabikagogeaskoa Albertoren itzulpena: John Rawls-en *Justizia-aren teoria bat* edo Dionisio Amundarainen itzulpena: *Biziaren iturria bioetika*, J.R. Flecha Andrésena, zeinek XIX. mendeko bidetik ibiltzen diren, dabilten bezala zenbait *opera minor*. Aiko hemen giroa eta adibideak:

Aiko hemen Juan Mari Irigoieni buruzko iruzkina neure aspaldiko artikulatik jasoa eta Juan A. Hernandezek komentatua:

Axularren presentzia gaur egunean bizirik dago», dio Juan Luis Goikoetxea euskaltzainak¹⁷, 1991an idazlearen estiloari buruzko azterketa lana argitaratu zuenak. Hori arrazoitzeko hainbat adibide jar daitezkeela uste du aditu honek; eta guztietan agerian geratzen da Axularren itzala. «Ikusten duzu Bergaran egiten den amodiozko gutunen lehiaketa eta aurtengo irabazleak, Iñaki Serranok, Axularren idazkera bera erabiltzen du naturaltasunez, esango genuke plagiatuta.

Gaurkotasan horren adierazlea Joan Mari Irigoien ere izan daitekeela dio Juan Luis Goikoetxeak –jarraitzen du Hernandez, J. A.k. Idazle honek Axularren estiloa hartu zuen oinarri Lur bat haratago idazterakoan. Irigoienek berak aitortzen zuenez, berarentzat benetako «deskubrimendua» izan zen Axularren lana, «orain 30en bat urte edo» irakurri zuenean. «Euskaldunok ohituta gaude esaldi laburrak erabiltzen, gure erlatiboa dela eta», azaltzen du, baina Guero irakurtzean ikusi nituen esaldi luzeak». «Orduan ikusi nuen euskara gai dela edozein gauzatarako. Hori deskubritu nuen», azaltzen du idazleak.

Artikulu honetarako har dezagun Juan Mariren pasarte bat *Lur bat haratago*tik:

«Eta, nola ustekabea baita, ongi dakizun bezala, jendea gibelat bihurrazteko modurik boteretsuena eta eraginkorrena, haiek ere gibelat egin zuten. Eta, haiek gibelat egiten ikusi orduko, hazi egin nintzen, halako tailuz, non ahul, eskas eta uzkur zena egin baitzen, begi herts-ireki baten bitartean, ausart, azkar eta kurios».¹⁸

Hurrengo, hona Xabier Mendiguren Bereziarturena:

Estatuaren eta zuzenbide-filosofia alemaniarraren kritika, zeinak Hegelekin hartu baitu bere forma koherente, aberats eta azkena, gauza bata eta bestea da, nola estatu modernoaren eta hari lotutako errealitatearen analisi kritikoa, nola kontzientzia politiko eta juridiko alemaniarraren aurreko modu guztiaren ukapen erabakigarria, zeinaren adierazpen gailena, unibertsalena, zientzia izateraino jasoa zuzenbide-filosofia espekulatiboa bera baita.¹⁹

¹⁷ HERNANDEZ, J.A. El País, reportaje: *Gaiak*, 2003-04-07.

¹⁸ IRIGOIEN, J.M. (2000): *Lur bat haratago*, Elkarlanean S. L. Donostia, 2000, 551. or.

¹⁹ MENDIGUREN BEREZIARTU, X. *Marx Karl: Idazlan Hautatuak*, 87, Klasikoak, Bilbao, 2005.

Ondorik, hona Alberto Gabikagogeaskoarena:

Gainera, esan dezakegu ezen, baldintza berdinetan, ordena juridiko bat beste bat baino justizia handiagoz administraturik dagoela, baldin legearen inperioaren manuak hobeto betetzen baitu.²⁰

Azkenik, hara Dionisio Amundarainena:

Batetik, itxuragabeki ugalduta dira egoerak, zeinetan teknikak esku hartzea erabaki baitu gizakiaren bizia kantitatez luzatzeko, ez kalitatez hobetzeko.²¹

Agerian dagoen kontua da, edozein modutan, batzuek halako erreparatu dutela *nola* edo *zelan* testu-antolatzaileak erabiltzeko, eta hauen ordez, soil-soilik *–ela* menderagailua erabili ohi dutela, biak izanik zuzenak. Gainera, erabili ere biak dira erabili tradizioan, 1900 arteko eta osteko idazleen artean «testu iraulketa» –Hidalgoren hitzetan– gertatu arte.

«Mutatis mutandis», gaurko euskal prosarako joera edo joeretariko bat begien aurrera ekartzeko, eredu egokia gerta daiteke IVAPeko *Estilo liburua* eskaintzen diguna. Honela dakar 3.1 puntuan²²:

Esaldiak moztu. Administrazioan esaldiak puztu eta luzatzeko ohitura dugu, uesteko maila «jaso» baten bila. Baina, gaztelaniaz «ondo» irakurtzen diren esaldi motroilo horiek euskaraz, askotan, irentsi ezinak izaten dira. IVAPeko idazkietan, ahal dela, ez dugu honelako esaldi erraldoirik egingo.

Are argiago, esaldi laburrak erabiltzearen abantailak aipatu ostean, era honetara azaltzen ditu esaldiak laburtzeko aholkuak:

Esaldia, gehienez, 20 hitzetakoa izan dadila. Beste batzuek 30 hitzetan jartzen dute.²³

Beste alde batetik, hitz iragarleei buruz dakarrena, bat dator Euskaltzaindiko Jagon Saileko 7. liburukian esaten denarekin:

Euskaraz, askotan, zenbait giltza-hitz esaldiaren atze-atzean geratzen zaizkigu, hain zuzen ere, mezua lehenengoan interpretatzen laguntzen digutenak. Horrelakoetan, esaldia oso-osorik irakurri arte itxaron behar izaten du irakurleak esanahiaz jabetzeko. (...) Zer egin menpekoa hain luzea denean? Bada, semaforo moduko bat jarri, hau da, hitz iragarleak erabili.²⁴

Eta hor zerrendatzen ditu: *alegia, hots, hain zuzen ere* eta abar.

Horiez gainera, galdegaiaz, deklinabide kasuen pilaketaz-eta dakartzan gomendiorik gehienak praktikan ondo funtzionatu dutenak izanik, oso egokiak

²⁰ GABIKAGOGESKOA, A. (2008): Rawls J., *Justiziaren teoria bat*, KLasikoak, Bilboa, 300. or.

²¹ AMUNDARAIN, D. (2000): *J. R. Flecha Andrésen Biziazen iturria bioética*, Erijiio kulturaren bilduma, Deustuko Unibertsitatea, 66. or.

²² IVAP. *Estilo liburua*, 121. or.

²³ IVAP. Op, cit., 121. or.

²⁴ IVAP. Op, cit., 123. or.

direla aitortzea besterik ez da gelditzen, alegia, prosa argi bezain garbirako eredu gertatu direla.

Haatik, guk defendatzen dugun jokabidearen kontrabidetik ibilirik, alferrikako erlatiboak goiburuz izendatzen du 3.7 puntuko atala:

Gaztelaniaz, erlatibozko kate luzeak egiten ditugunean ez da arazo handirik egoten mezua ulertzeko, erlatibozko erdal partikulek (que, el cual, de quien, con el cual, a la que...) erlatibozko mendeko perpausaren aurrean kokatuta, iragarle lana egiten duelako. Baina, esaldi horiek hitzez hitz euskaratzen ditugunean arazo ugari izaten dugu, mezua behar bezala ulertzeko, euskal erlatiboaren egitura-gatik.²⁵

Baieztapen tinko honen ondoren, galdera zorrotz bi geratzen dira erantzuteke:

1. Gaztelaniaz –edo ingelesez– erdal partikulek iragarle lana betetzen dutelako arazorik ez badute eta geuk ere –*zein, non...*– partikula iragarleak baditugu, nola izan liteke euskaraz idaztean ilun gertatzea erdaraz argia denean? Berba baten, zergatik egiten zaie uko euskal partikulei?
2. *Alegia, hots, hain zuzen* eta halako hitz iragarleak erabiltzea onartzen du IVAPeko estilo liburuak; aldiz, euskarazko erlatiboak –kasurako– ordezkatu egin behar direla dio ulergarri bihurtzeko. Euskaltzaindiko Jagon Sailak Testu-Antolatzaileak deritzan liburuan proposatzen dituen testu-antolatzaile multzoetarik onartzen ditu, testu-markatzaileak –horien barruan kokatuz lokailuak– baina ez juntagailuak eta menderagailuak.

Azken finean, bidenabar, testuak moztea gomendatzen duen IVAP administrazioa euskaraz, kontraesanean erortzen dela dirudi. Halaxe dakarkigu:

Jakina da: Administrazioeko testuek ez dute helburu estetiko edo literariorik. Administrazioeko testuen helburua modu objektiboan komunikatzea da; horretarako izan behar du, bada, mezuak argia, zehatza eta zuzena.

Hori horrela izanik ere, ahaleginak egin behar ditugu, gai lehorrena modu atseginean emateko, eta horretan asko laguntzen digu erritmoak. Idazten dugunean, konturatu barik gehienetan, tankera bereko esaldiak erabiltzen ditugu: antzeko osagaiak, antzeko egitura, antzeko antolamendua... Ez gara konturatzen gure esku dagoela testuari erritmo bat edo beste bat ematea: guk erabakitzen dugu nola egituratu eta osatu; guk paratzen ditugu hitzak behar den tokian. Hori guztia da erritmoa. Ikusten duzunez, ideiak jartzea baino gehiago: belarria gozatzea.²⁶

Ene iritzian, asmo jator hori ez dator bat euskararen ondareko diren juntagailuak eta menderagailuak testu-antolatzaileen sailetik, iragarle zereginetik baztertzearekin. Ezen, argitasunaren ohoretan, erlatiboetatik «zeiñismoa» sai-

²⁵ IVAP. Op, cit.

²⁶ IVAP. Op, cit.

hesten badugu eta pasarteak zatikatu, batetik, euskarak bere-berea duen ahalmen bat galtzen du; eta, bestetik, esaldiak moztu badira, dosifikatzen badira, zelan hegaldatu hego gabeko txoria? Zeren erritmo motelak, esate baterako, mendeko perpausa luzeak eskatzen baititu.

Beste alde batetik, erdara itzultzen bada esaldi laburrez-eta baliaturik, galdetu beharko genioke geure buruari, ea gai izango ginatekeen euskarara itzuli dugun liburu hori berririo jatorrizko hizkuntzara itzultzeko, edo itzuliz gero, zer aldaketa izugarri ez genukeen topatuko. Azken baten, gainera, seguru gaude, euskarazko itzulpena azpian geratuko litzatekeela, frantsesaren edo ingelesaren menpeko.

Areago, horrelako jokabidean jardunik, ez ote dugu saihebidia bide normalizat hartzen, eta era berean euskara beste hizkuntza horien mailara ezin hel daitekeela erakusten?

Guk, dena den, irakaskuntzan idazketa lantzerakoan, ezin baztertuko dugu idazle klasikoen eskola, ezen, didaktikaren erakutsiei jarraikiz, perpausak zazitzen ere irakatsi beharko baitugu, zeren, ezin eskriba baitaiteke erritmo, tonu, berean bederatzi urterekin eta hamazortzirekin.

4. XXI. MENDEKO GAZTEEN TESTUAK

4.1. Marko teorikoa

Irakasle Euskal Herrikoa jakitun dago zelan aurpegiz aurpegi dituen ikasleak elebidunak diren, nahiz eta ez elebitasun orekatukoak, orokorrean. Bartzuek euskal elebidunak dira –erdara ere badakitenak, baina bizi euskaraz direnak–; beste multzokoek erdal elebidunak dira –euskara ere badakitenak, baina erdaraz bizi direnak–.

Ikaslea aipatzen dugunean, gainera, ez gara ariko berak dakienaz bakarrik ze, pedagogia kritikoak dioenari jarraikiz, guk, ikasleak dakien horretan sartzen baitugu familia, lagunak edo inguru euskalduna edo erdalduna. Hitz horiekin iragarri gura dugu, Grezia-Erroma bidez mendebalderatuko prosakera oso zabaldua agertzen dela ahozko testuetan ere:

Zein eta moda bat balitz moduan». ²⁷ Edo beste hau: «Miguel Angelek esan eustan **ze**,». Edo: «Anegako zakua altxau dauela-eta **honako ze**, gauza itzela egin baleu moduan.

Elebitasun horrek, ondorioz, –diglosia/elebitasuna noiz eta non-eta ez gara hemen tematuko– eragin bortitza du ikasleengan –baita nagusiengan ere–, eta, hain zuzen, testu-antolatzaileen erabilerarako ere bai.

²⁷ ARRIETA, S. Ahozko grabaketa, Mungia, 1987-12-13.

Gure ikasleak elebidunak dira, euskaradunak eta erdaradunak –edo eleanitzak– txandaka darabiltzate hizkuntza biak, eta ukipenean bizi dira berbeta biok ikasle horrengan. Ideia hori ezinbestekoa da gaurko neska-mutilen euskarazko testuak ulertzeko:

*In the present study, two or more languages will be said to be **in contact** if they are used alternately by the same persons. The language-using individuals are thus the locus of the contact.*

*The practice of alternately using two languages will be called **bilingualism**, and the persons involved, **bilingual**. Unless otherwise specified, all remarks about bilingualism apply as well to multilingualism, the practice of using alternately three or more languages.²⁸*

Bestalde, guk testu-antolatzaileak metodo egokiz irakatsi gura baditugu, ikasleak arterik dakiena hartu behar dugu aintzat, hots, atal honetan, aurretik ezagun zaion euskara moldea. «*Hezkuntza psikologia guztia printzipio baka- rrean bildu behar banu, honelaxe enuntziatuko nuke: apendizaiian eraginik handiena duen faktorea, ikasleak badakiena da. Iker bedi hori eta irakas dadi- la kontsekuenteki.*²⁹ Beraz, ikasgeletan eragina lor dezagun gura badugu, hizkun- tzen ukipena gaur egun bizi duten neska-mutilak arakatu beharko ditugu:

El aprendizaje significativo, por el contrario, tiene lugar cuando se intenta dar sentido o establecer relaciones entre los nuevos conceptos o nueva información y los conceptos y conocimientos existentes ya en el alumno o con alguna experiencia anterior.³⁰

Ikasketa esanguratsua izan dadin, baldintza bikote hau bete behar da. Lehenengo, edukiak potentzialki esanguratsu izan behar du. Ikaslearen esanguratsuki ikastearen aldeko jarrera lortze bidean, irakaslearen parte hartzea faktore erabakigarria izanik.

Horretan finkaturik arrazoitzen dugu Ausubelek-eta teorizaturiko *Dakigu- netik ez dakigunera* jokabidea, zein Labayru Ikastegiak eslogan duen.

Edozelan ere, ikaslea dakienetik ez dakienera eramateko, ezinbestean egin behar dugu hurrengo oharra ezen, horren bitartez balia baikintezke testu- antolatzaileez:

Se habla a veces, como si la expresión verbal, tanto la oral como la escrita, empezase por ser espontánea y por tanto personal para adaptarse progresivamente a los modelos que se le proponen, forzosamente colectivos e impersonales. Y la escuela sería primera responsable por esta imposición de modelos y consiguiente pérdida de la espontaneidad. Pero los datos aducidos invitan a razonar más bien en sentido contrario. La expresión oral en gran parte y la escrita totalmente empiezan por apoyarse en fórmulas recibidas, muy simples, escasas en número y totalmente monótonas y sólo en la medida en que el sujeto

²⁸ WEINREICH, U. (2003): in Euskaltzaindia, *Euskalkia eta Hezkuntza*, IKER, 13, Bilbo, 14. or.

²⁹ AUSUBEL, P.: In Euskaltzaindia, Op, cit., 74. or.

³⁰ AUSUBEL, P. ETA BESTEAK, (1989): Mexico, Trillas, 37. or.

*llega a dominar el instrumento lingüístico y en la medida en que se ha hecho capaz de reproducir modelos muy distintos que puede sentirse libre para producir una expresión verbal original y personal.*³¹

Irakaslearen zeregina da, beraz, ikasleak idazterakoan aukera ugariarekin topa daitezten. Aukera horietan dira sartzen testu-antolatzaileak, baita idazle klasikoen prosabideak ere. Horrela dugu ulertzen dakigunetik ez dakigunera.

Horrez gainera, eskolak aintzat hartu behar du, gazteak etxetik dakarren hizkera:

Behin betikotz jakin dezagula, jatorrizko hitzuneak daukatela konpetentzia eta euskaldun zaharrak ez badira euskaldun, ez da euskararik, arima gabeko euskaranto hil bat baizik.³²

Baxoken baieztapen hori sakonean ulertzeko bidea gesu baten aipatuko dugun Chomskyren gaitasun eta performantziara jotzea da. Hizkuntzalaritza moderno honetan, jatorrizko euskaldunak gaitasuna du:

- Ezagutzeko, esaldi jakin bat euskarakoa den ala ez.
- Ezagutzeko perpaus bat gramatikala den ala ez
- Sortzeko eta interpretatzeko perpaus kopuru infinitua.
- Esaldi bat parafraseatzeko edo laburtzeko, aldatzeko pareko perpaus batekin.

Testuinguru horretan uler genezake jatorrizko euskaldunak eskolaratzean duen gaitasuna, baita testuak sortzerakoan ere, eta ondorik, testu-antolatzaileak erabiltzean.

Eta beti izan beharko dugu aurrean, eskolan ikasia –esate baterako testu-antolatzaileak– noraino den gero inguruko artean, egoera sozial askotan erabilgarria:

*Las posibilidades de ejercicio real de los progresos lingüísticos y del desarrollo funcional del lenguaje es la auténtica ventaja del niño que crece en un ambiente cultivado –gure testuinguruan giro euskaldunean– y el gran handicap para el progreso escolar del que crece en otro ambiente.*³³

4.2. Edukia

4.2.1. Testu irakurriak eta idatziak

Euskarak dituen askatu gabeko korapilo bietarik bata, pausaldiak markatzeko zailtasuna zela idatzi dugu arestian. Argi bila aipu hau ekarri dugu:

³¹ SIGUAN, M. (1990): *Lengua del alumno, lengua de la escuela*, ICE, 1990, 27. or.

³² BAXOK, E. (1986): 135, in *ASJU XXVIII*, 378. or.

³³ SIGUAN, M. Op, cit., 28. or.

Ahozkoaren esparruan irakurketa ozena ez ebaluatzeak dakartzan kalteen gainean luze jardun genuen gure aurreko lan baten (Gaminde eta Goikoetxea, 2005). Argi erakutsi genuen, irakurketa ez lantzeak bat-bateko ahozkoari berari eragiten diola. Berorren ondorioz gaztelaniaren arau fonologikoak aplikatu egiten zaizkio euskarari, are gehiago fonemen inbentarioa bera aldatu egiten da. Gaur eguneko geure gizartean idatziak garrantzia handia dauka eta talde honen eragin sozialagatik irakurketa ozenak bat-bateko mintzaeraren fonologiari eragiten dio. Egoera normalizatuan dauden hizkuntzetan, gaztelaniaz adibidez, erregistro ez-formalek irakurketa ozena praktikatzen den erregistro neutro jasoari eragiten dio. Geurean, ostera, alderantziz gertatzen da. Eredu formalek eragiten diete ez-formalei.³⁴

Berorren ondorioz –irakurketa ez lantzearen ondorioz– gaztelaniaren arau fonologikoak aplikatu zaizkio euskarari. Eta horren bidetik planteatzen dugun itauna da: aldameneko hizkuntzaren arau fonologikoak aplikatzen bazaizkio euskarari, nola ez zaio, era berean, testu-antolatzaileen dinamika barneratuko, jakinik dakigun moduan, gaurko euskaldunen kolektibitatean behin eta berriro entzuten ditugula –ez hain zuzen ere euskaldun berrien ahotik, ezpada euskaldun ia elebkarrenetik–:

Ojala, igual, bai itxura! lo que pasa que, bastante, por si acaso, seguramente, sikiera, entre que, si, justu, eta abar.

4.2.2. *Gazteen testuak irakaskuntzan*

Testuliburueta testu-antolatzaileak

Gaur eguneko testuliburuetan –Euskal hizkuntza eta literaturakoetan– argi azaltzen da nola erabili testu-antolatzaileak modu estrategikoan. Aspalditxoan aldatu zen ikuspegi hura zeinetan erakusten zen testu-antolatzaileak gramatikako alorreko baino ez zirela:

Gramatika tradizionalak uste izan du hauexek zirela hizkuntzan geneuzkan kohesio edo lotura prozedura bakarrak. Gaur egun, gramatika testualaren ildotik, ikuspegia erabat aldatu da. Hauxez gain, ondoren ikusiko dugun bezala, beste hamaikaxo modu daude hizkuntzaren baitan testuaren kohesioa bermatzeko.³⁵

Honela jartzen zaie DBHko 3. mailako neska-mutilei:

Antolatzaileak: testuko ideiak lotzen dituzten eta euren artean erlazio semantikoren bat ezartzen duten unitate linguistikoak dira.³⁶

³⁴ GAMINDE, I. et alii. (2005): *Irakurketa ozena ebaluatzeko irizpideak Bizkaian*. Mendebalde Kultura Alkartea, *Izaro* Bilduma, 1. or.

³⁵ ALBERDI, A. (1996): *Eskola gramatika*, DBH, Elkar, Donostia, 55. or.

³⁶ ALDASORO, M. ETA BESTE BATZUEK, *Euskara eta literatura*, 3: 2.a Munduan hizkuntzak mila, 43. or. Donostia, 2005.

Gero, seguru asko, definizio horrengatik, irakasleak kexatu egingo dira, abstraktuegia delako eta erlatiboz josia. Denean dela, antolatzaileen ikuspegi guztiz eguneratua eskaintzen dute. Ondorik, gainera, 4. mailan berriro agertuko dira antolatzaileak.

Praktikan, zoritxarrez, ezagutza gramatikala behar bestean ez dutenez lantzen, aspektu batzuk hobetzeko gramatika betikora itzuli beharrean aurkituko da irakaslea. Hala ere, deklinabidea, kasurako, testuaren sortzeko ikuspegitik aztertuko da:

Hona hemen testu bat sortzean maiz gertatzen den arazoa: hizkuntzaren arauai ez erreparatzea eta hainbat hutsegite egitea.³⁷

Holako egoeren aurrean, nolana ere, badira gramatikan trebatzeko liburu modernoak, ATALAK deritzenen erakoak.³⁸

Laburbilduz, segurtasunez baieztatu genezake, testu-markatzaileak metodologia egokiz eskolaratzen direla; juntagailuek eta menderagailuek, aldiz, jarduera pasiboetan baino ez dute lekua, hots, ikusi egiten dira, erabili ere bai, neurri baten, baina jorratuak joratu, idazle klasikoen tradizioak ez du, harri-garria bada ere- gaurko euskal letretan mendetik gora jasan duen bazterketa gaintitu, gramatikagile zenbaiten borondate ona gorabehera:

Euskaraz erlatiboa osatzeko era aski unibertsala mendeko adizkiari **-(e)n** atzizkia ezartzea bada ere, nor...bait-, zein...bait-, zein...bait- eta antzeko egiturarik ere bada, nahiz tradizio literarioan izan. Idazle zaharretan barra-barra aurki daitezke honelakoak.³⁹

Hori horrela, prosa finkatua eraikitzeke egitasmoak burutu barik segituko du, harik eta tradizio literarioko ekarria –egungo ikasle elebidunentzat guztiz emankorra– eskolan ere normaltzen ez den bitartean.

Teoriak teoria, dena den, hiztunari berari dagokionez ahozko testuak nahiz idatziak sortzea, hots, testu-antolatzaileen erabileran hiztunari berari dagokionez erabakiak hartzea, ikasle asko euskaraz ez bizitzean, ahalegin akademikoa –erdaretan ez bezala– hankamotz geratzen da, bereziki, ikasle erdal elebidunen kasuan.

Ondorioz, testu-markatzaile eta juntagailu eta menderagailu jakin batzuetara mugaturik geratzen da testu-antolatzaileen arlo zabal bezain estrategikoa, honelakoetara: *eta; gainera; batik bat; hori dela-eta; eta gero; beraz; baita... ere; alde batetik... bestetik...*, nahiz eta testuliburuetan-eta askoz gehiago landu antolatzaileen arloa. Guztiarekin ere, azkenerako kaltegarriena, testu-antolatzaileak gramatikako atal soil baten espiritzu ikastea.

³⁷ ALDASORO, M. ETA BESTE BATZUEK, *Euskara eta literatura*, 3: 2.a Munduan hizkuntzak mila, 43. or. Donostia, Elkar, 2005.

³⁸ BUTRON, J. IRIONDO (1999): E. *Atalak 1 eta 2: Currículum materialak hizkuntza eta literaturarako*, OT argitaralpenak, Bilbo.

³⁹ ALBERDI, A., op. cit. 213.or.

Juntagailuak eta menderagailuak ikasleen testuetan

Testu-antolatzaileen arloari, bereziki begiratuz gero, ikasleek izen funtziozko menderakuntza euskaraz eta erdaraz aldi berean ikastea da gomendagarriena. Erlatibozko perpaus subordinatuek ez diete gure ikasle elebidunei arazorik sortzen zenbait moldetan, beste batzuetan, ordea, guztiz lagungarria da gure idazle klasikoen eredura jotzea.

Gaztelera: *Los espectadores que llegaron tarde no pudieron entrar.*

Euskaraz: *Berandu heldu **ziren** ikusleak ezin sartu izan ziren.*

Itzulpen horretan gazteek ez dute oztoporik erlatiboarekin.

Beste kasu honetan, ostera, tradizio literarioko egitura aproposa da:

Gaztelera: *Los espectadores, que llegaron tarde, no pudieron entrar.*

Euskaraz: *Ikusleak, zeinek berandu heldu baitziren, ezin sartu izan ziren.*

Beti ere badakigu, koherentzia testuaren propietate bat dela, laguntzen duena testua ulergarri bihurtzen, horrexegatik komeni da –bereziki erlatiboarekin– anbiguotasuna saihestea. Adibiderako,

Gaztelera: *Esta es la casa de Pacho, cuya historia ya conoces.* Iluna da, anbigua.

Euskaraz:

1. *Hau Patxoren etxea da, zuk ezagutzen duzu haren historia.* Iluna, anbigua.
2. *Hau Patxoren etxea da, zeinen historia ezagutzen duzun.* Iluna, anbigua, klasikoek zerabilten zein erabili arren.
3. *Zuk ezagutzen duzun historia Patxoren etxearena da.* Egokia, argia.
4. *Etxe hau, zeinen historia ezagutzen duzun, Patxorena da.* Egokia, argia.

«Zeinismo» deitua ez erabiltzeak hego bat galarazten dio gazteari, idazleari, ordainetan ezer eskaini gabe.

Ikasleek –berehala ikusiko dugunez– baliatu egiten dira «zeinismoaz», baina kriteriorik gabe. Ez dute era sistematikoan irakaskuntzatik jaso –kasurako erlatiboan– zer onura dakarkion idatzi behar duenari **zein** eta –eN testuetan konbinatzeak.

Adibidea:

DBHko 2. maila:

«Klase honetako batzuk ez dute errurik, baina errua guztiei doa zergatik jendeak roioa zegitzen dio jende horri». Mezua igortzerik ere erdiesten ez duen

Arratek, dituen muga estuen artean, testu-antolatzaileetako menpekoak etxeo erdararen parean darabiltza.

DBHko 3. maila:

«Gehienetan ez da esaten nor den hitz egiten ari dena, pertsonaia bakoitzaren esanetatik eta tonutik igarri behar dugu nor den hitz egiten duena esaldi bakoitzean». Berez, errepikapena testuen kohesiorako errekurtso linguistikoa bada ere, Gentzeneren kasuan era nahasian idazteak eskatzen diona da, eta gainera, sinonimia, antonimia edo hiperonimiarik erabili gabe.

Bertoko, 3. mailako Anderrek, ahoz beti esan ohi du «*Noa autobusera*» edo «*Da polita*»; hemen, berriz, honela erredaktatzen du, nonbait, eskolaren eraginez:

Bertso honen gaia, pertsona bat gerran dagoen egun baten etxean egiten duena da.

Konbinaketa egiten badaki, zorte onez, 4. DBHko Iratik:

Batetik, lehenengo zatia, non narratzaileak bere paranoiak kontatzen dituen; eta, bestetik, Giselleren istorioa gertatzen den lekua.

Maila bereko Nereak, aldiz, denetarako darabil *zeren* nahiz eta ia beti bait- gabe:

Protagonistari, azkenean, kaleak lasaitasun antzerako bat sortzen dio, zeren jadanik ez dago haurdun eta lasai paseatzen da.

Anek –maila berekoak– irakaskuntzatik jaso duen eredu atzerakarga darabil idazterakoan, ahozkoan beste era batera hitz egiten du-eta. «*Ginekologoak abortua ilegala dela diozso eta berak ez diola horrelakorik egingo esaten dio*».

Garikoitz –hau batxilerreko 1. mailakoa– erdal elebiduna da, bizi erdaraz da. Hala ere, perpausaren barruko hurrenkera ez da inondik ere gaztelerakoa:

Koaderno Handia liburuaren espazioa Amonaren etxea dagoen herrian gertatzen da bereziki.

2. BATXILERRA

Era bietara baliatzen da Libe erlatiboaz:

Eta lotsagarria iruditzen zaidana, D Ereduan badaudela irakasleak zeintzuk euskaraz espresatzeko gai ez diren.

Mirenek, bestalde, *Euria dela* baino *Nola euria den* du gogokoago eta, tamalez, modu bakarrari oratzen dio:

Nola euritan egin genduan...; Nola Zarautzera ailegatu ginen.

Aintzane, idazle trebatuaren tankeran baliatzen da:

Biztanleria handiko lurralde batean, non arraza desberdintasun handia ze-
goen, ez da erraza hizkuntzak aurrera egitea. Izan ere, ...

Edozelan ere, idazten gabiltzanok arkela ala ordotza den erabaki ezinik dihardugun artean, eskolako neska-mutilek erdararen kalko oharkabeokak darabiltzate lasai asko euskaraz. Honela datoz Eusko Jaurlaritzako *Kontuan izan* deituriko glotodidaktika argitalpenetako 54an, akatsen sailkapena eta erantzun zuzenena banaturik:

Okerrak: *Zuzenak:*

Zehar galderak osatzerakoan:

Ez dakit noiz etorri da *Ez dakit noiz etorri den.*

Aitzakiak, justifikazioak adierazterakoan:

Nola irakaslea ez dago, banoa. *Irakaslea ez dagoenez, banoa.*

Hor ere, kontua ez da iragarlea badarabilen edo ez, ezpada erdarako akatsa bereganatu duela. Hala ere, ikasle elebidunak euskara eta gaztelera ukipe-
nean dituela jakinik, pedagogia onak eskatuko luke irakastea *nahiz eta/nola...*
(*e*)n, ezen, iragarlea jartzea berez-berez dakarkie gaztelera:

Artetxoan aipatu bezala, erdal eragina agerikoa da:

Ya que ez datorren, goazen! *Ez dator, beraz, goazen.*

Ondorioak adierazterakoan:

Asi que alferrik zabilzta! *Beraz, alferrik zabilzta!*

Arrazoiak adierazterakoan:

Berandu nator zergatik lo hartu dut. *Berandu nator, loak hartu nau-eta!*

Atal honetan prosaz dihardugunean, idazketa ez eze irakurketa ere azter-
tu nahi dugu ezen, batak hartzen duen testu-antolatzaileen aurreko jokabideak
bestean ere eragin zuzen-zuzena izango baitu. Hala, esaldia oso luzea denean,
ez dakigu zelan irakurri, harik eta amaierako berbara heldu arte. Baina, giltza
aurretik ematen badugu, kasurako, *harik eta* esaldiaren hasieran ipintzen ba-
dugu, irakurlearen lana asko erraz daiteke. Beraz, txanponaren beste aldeari
begiraturik, idazlearen esku dago zenbat atzeratu lokailuaren kokapena ze,
atzeregi kokatuz gero, ilunegi gerta daiteke lotura.

Euskaltzaindiko (EGLU VI: 110) liburuan esaten da zenbait testu-antola-
tzailek iragarleren bat eraman dezaketela aurretik. Esaterako, *-eN arte* denbo-
razko menderatzaileak *harik eta* iragarlea.

Baieztapen hori honela argitzen du Pello Esnalek: «**Harik eta** erabiliz erraztu egiten da irakurketa».⁴⁰

Harik eta... arte honetaz esandakoak berdin balio du beste zenbait bikotetarako ere: **baldin eta...ba-**, **ea... -eN**, **baita...ere**, **ezta...ere**, **behin...-eZ gero**.

Idazleak –gure kasuan ikasleak– erabakia hartzeko orduan, kontuan izan beharke ditu testu-antolatzaileak eta testuaren goi-beheak, esaldien luze-laburra. Haren esku geratuko da erabakitzea, esate baterako, **-ela** oso atzean joateak zaildu egingo duen irakurketa, edo irakurle edo idazle gazteak errazago jasoko duen **nola** antolatzailearen erabileraz baliatuz. Gure gazteen arteko lanbideak erakutsi izan digunez, oro har, errazago, zalantzarik gabe: «Esan didate etxetik alde egin **duela**» baino «Esan didate **zelan** etxetik joan **den**».

Azken baten, gramatikaren baino pragmatikaren eraginaz dihardugu. Eusebio Osak damaigun adibide eredugarria:

Ba multzo errematikoaren buruan agertzen zaigu. Eta multzo errematikoa irispidetualaren bidez erabakitzen denez, **baren erabilera aukera komunikatiboak erabakitzen du**. *Esan nahi baita, Aitor dator eta Aitor badator-en arteko aukera, ez dela gramatikak hala behartua, pragmatikak eragina baizik, hots, testuak Aita fokutzat hartzera bagaramatza, ez dugu baren beharrik; Aita topikotzat jotzera eramaten bagaitu, aldiz, ba beharrezko du multzo errematikoak. Hau da, behar gramatikala aukera pragmatikoak sortzen du.*⁴¹

4.2.3. *Ikasle gazteak zelan ikasten du idazten?*

Noam Chomskyren bereizketa klasikoa gaitasunaren eta performantziaren artekoa, gure arloan honela planteatuko luke Krashen-ek: Gaitasuna kodigo idatzia dela eta performantzia edo ariketa testuaren konposizioa, hau da, autoreek erabiltzen dituzten estrategien multzoa testua sortzeko. Beste modu batera esanik, gaitasuna *jakitea* dela eta performantzia *egiten jakitea*. Horrenbestez, idazle den orok, biak behar ditu menperatu.

Beraz, kodigo idatzia da, hizkuntza idatziaz geure burmuinean gordeta dauzkagun ezagutza abstraktuek osatzen dutena. Ezagutza horiek geureganatzeko moduak dira: irakurketa –derrigorrezkoa nahiz atseginez egina–; testu idatziak buruz ikastea: legendak, ipuinak eta abar; gramatikako arauak ikastea; gogoko ditugun testu atalak buruz ikastea –zintak, poemak eta abar–.

Konposizio-prozesua, ostera, testu idatzia sortzeko erabili ohi ditugun estrategien multzoek osatzen dute. Estrategia horietan, gauzatzen ditugun ekin-

⁴⁰ ESNAL, P., EUSKALTZAINDIA, *Jagon Saila*, Op, cit. 55. or.

⁴¹ OSA, E. op. cit., 297. or.

tza guztiak sartzen dira harik eta zerbait idaztea erabaki genuen unetik abiatu-rik, testuaren azken orrazketari onespina ematen diogun arte.

Gure gazteak testu-antolatzaileak-eta erabiltzen ez dituztenak, testu-konposiziorako prozesu kaxkarrez baliatzen dira, edo estrategiarik eza da beraien oinarritzko akatsa. Zein motatako okerrak dituzte ikasleen halako idazlanek? Ideia ondo garatu bakoak, estruktura gaizki antolatua, anakolutuen erabilera, eta abar.

Halako ikasleei Daniel Cassany-k idazle blokeatuak deritze ezen, kodi-goaren jabe izanik ere, arazoak baitituzte idazterakoan. Halako idazleak dira gure gazteen artean, hitz egiten duten moduan idazten dutenak, alegia, testua behin baino idazten ez dutenak, eta idatzi ere, ez dakitelako zuzendu egin dezaketela eta berriro idatzi, gainera, hainbat aldiz zenbat behar duten, zeren ueste baitute ezen idatziak berez sortzen direla, ahozko testuak egiten diren era berean.

Dena dela, Krashen-ek aipatu ere egiten ez duen arren, kontrako arazoa dutenak ere badira gure ikasleen artean. Horiek, menperatzen dituzte konposizio-ko estrategiak, baina ez dira jabetu kodigoaz. Zein egoeretatik sortu dira horrelako ikasleak? Gure elebitasun/diglosia egoeretatik zeren, ondo ikasiak eta praktikatuak baitituzte erdarazko konposizio-estrategiak, baina euskara ez dute oraindik behar den mailaraino ikasi.

Beti ere, ezin ahaztuko dugu kodigoaren e- struktura aldatu egiten den arren hizkuntza batetik bestera, performantziako/ariketako estrategiak berberak direla edo antz-antzekoak hizkuntza batean eta bestean, eta, beraz, profitagariak direla bitzuetarako.

4.2.4. Zer jakin behar da ondo idazteko?

Arau fonetikoak eta ortografikoak, morfosintaktikoak eta lexikalak –zeinek perpausak sortzea posible egiten duten–, parte bat baino ez dira hiztunek ezagutzen dituztenetarik. Gainerakoa, beste partea, testuak osatzeko arauak dira: egokitasuna, koherentzia eta kohesio arauak.

Egokitasuna, testuaren berezitasun bat da, determinatzen duena erabili beharreko aldakia (euskalkia/estandarra) eta erregistroa (orokorra/berezia, ahozkoa/idatzia, objektiboa/subjektiboa, formala/informala).

Koherentziak adierazten digu egoera bakoitzerako informazio pertinentet-ek daudela; ez dela izan behar, ez berritsua, ez lakonikoa ere; hau da, badi- rela informazio esanguratsuak eta baita azalekoak ere. Esate baterako, curri- culum vitae-n, hizkuntzak dakizkizula aipatzea koherentea da; entziklopediak saltzen aritu izana, ez, ordea.

Koherentzia da, hortaz, testuaren izaera, aukera egiten duena informazio adierazgarri eta ez adierazgarriaren artean, baita egitura komunikatiboa modu jakin baten atontzen duena ere: sarrera, atalak, ondorioak eta abar.

Kohesioa: Testua osatzen duten era askotako perpausak sarean loturik daude beraien artean. Elkar lotze horretako mekanismoen artean dira testu-antolatzaileak. Kohesio formarik gabe, testua, perpausa solteen zerrenda hutsa izango litzateke, eta igorlearen mezua hartzailearengana iristeko oztopo larriak agertuko lirateke. Ez da euskal munduan superreskarmentuen premiarik, jabe gaitetzen, testu-antolatzailearik gabeko pasarte askotan zein neurritaraino den dioguna behaztopa harri.

Finean eta buruan, egokitasun, koherentzia eta kohesio mekanismorik barik, idazlea ez da gauza testu komunikatiboa sortzeko.

4.2.5. *Kodigo idatzia eskuratzeko bideak*

Jarduera gomendagarrien artean, aipatu beharrekoak dira.

4.2.5.1. Testuen irakurketa eta ulermena.

4.2.5.2. Txatal literarioak buruz ikatea, hala ahozkoak nola idatzizkoak.

4.2.5.3. Testuak kopiatzea.

4.2.5.4. Arau gramatikalak ikatea.

Denak ere, jakina denez, ohiko praktikak dira idazketako ikastaroetan-eta, baina, denean dela, bozgoraz iragarririk, jarduera didaktikoen artetik, zein jo genezake eraginkorrenzat? Autorerik autore eta praktikarik praktika aritu ondoren, honelaxe erantzungo genuke:

4.2.5.5. Atseginez, plazerrez irakurtzea da, askogatik, jarduerarik eraginkorrena kodigoaz jabetzeko. Gainera, ezinbesteko dirudi

4.2.5.6. Irakaslearen zuzenketa bakar-bakarrik da eraginkorra, baldin egiten bada testuaren konposizio prozesuan, hots, oraindik ikasleak zuzendurikoa testuko erredakzioan sar lezakeenean. Honetan, zirriborroa da garrantzitsua dakigunetik ez dakigunera jotzeko, ze etorri ahala idazteak –zirriborroan, alegia– idazlearen balioak nahiz akatsak agerian uzten baititu. Metodologikoki, zirriborroan azalduko oker hori edo bikain adierazitako txatal hura da zuzendu edo aztertu behar duena irakasleak. Berez, gure ikasleek berba egiten duten modu berean idazten dute, alegia, behin bakarrik, etorri ahala, baina hori guretzat zirriborroa baino ez da.

Honezkero, ohartuko zen inor, nola ikasleak atseginez irakur dezan, liburu atseginak behar diren, eta nola euskaraz, filosofiako testuliburuetan, kasurako, pasarte ulertezinak ehunka dauden, eta halako «euskara gordi-

nez»⁴² datorren mezua ulertu egiteko ere, behin baino sarriagotan behar dela atal bera irakurri. Beraz, hor ez dela goxotasunik.

Behin eta berriro Krutwig aipatzen duen Aita Villasantek dio –eta guk arterago ere aipatu izan dugu–:

Euskararentzat gauza denetan bakar-bidea nahi da: hitzetan, sintaxian, orotan.⁴³

Jokabide horrekin, ordea, ez da erdietsi euskararen bizitza historikoko giltza eta muina eskuratzerik.

*Algún lingüista –dio Aita Villasantek– ha sugerido como una de las posibles causas de esta subsistencia del vascuence la prodigiosa facilidad que tiene esta lengua para asimilarse elementos extraños, voces y formas de préstamo; lo que le permite adaptarse a la nuevas situaciones y capacitarse para expresar toda clase de nuevos conceptos. De hecho, los injertos de origen latino en la lengua son considerables en número e importancia, a juicio de los entendidos, y no se reducen tan sólo a préstamos de vocabulario. Cuando el euskera se encontró ante la disyuntiva de entregar la bolsa o la vida, o sea, la pureza que se resiste a adoptar elementos extraños, y se quedó con la vida. No estaría de más que nuestros puristas actuales considerasen si con sus purismos intempestivos no están obligando ahora a la lengua a sacrificar la vida antes que la bolsa.*⁴⁴

5. ONDORIOAK

Testu-antolatzailearik gabe ere testua izan daiteke koherente, beraz, antolatzaileak erabiltzearen aldeko Euskaltzaindiaren Jagon Saileko ahalegin hone-tan, antolatzaileak erabiltzea ez da «per se» testu koherentea sortzeko bermea, bai, ostera, laguntza itzela, nahiz eta sortu ez eurek, zeren zenbait aspektu formalek ez eze esanahiak ere lotzen baititu perpausak elkarren artean. Gainera, testu-antolatzaileek bermatu egiten dute hartzaileak mezua argi bezain garbi jasoko duela, gutxi ez dena, batik bat gazteen idazkerari erantzun praktikoak bilatzeko saioetan dihardugunean.

Finean eta buruan, badirudi ezen, errepide europarretatik zetorren euskal prosa desbideratu egin zela XX. mendearen hasieretan eta harrezkero, geure-geure diren usteko saihebidetarik gabiltzala.

Behar bada, arrazoiria etortzeko une egokira iritsi gara, begiak jasorik mendebaldeko testugintzako bideetara begira jarritz, kontrabidean jardutea behin betiko bazterrerara lagatzeko.

⁴²ZUBIMENDI, J.R. eta ESNAL, P. (1993): *Idazkera liburua*, 147. or.

⁴³VILLASANTE, L. Op, cit., 146. or.

⁴⁴VILLASANTE, L. (1961): *Historia de la literatura vasca*, Sendo, Bilbao, 30. or.

Geure-geurea delakoa soilik korrituz, atzera kargaz doakigu gurdia eta irakurle idiaren begiak nekatu egiten dira mezua bultzaka garraiaturik.

Orain, ordea, atzerakarga arintzeko ez dezagun testua aurrera karga zamatu, atzekarga bezain deserosoa baita aurrekarga. Testua orekan dabilen, bazter ditzagun idazlan beti azkargak, testu-antolatzaileen laguntzaz klasikoaren prosagintza zailduaren bidea ere geurea dela, behin betiko, onaturik.

Europako beste hizkuntzetako idazleen prosagintzari itxi egin izan zaio bidea, onartu gabe, Erromako murailetan aspaldi zabaldu zirela ateak eta barbaroak barrura sartu eta modernitatean ere ateak hertsirik iraun gura lukeenari komeniko litzaiokeela aintzat hartzea ezen, barbaroak behin honezkero etxean ditugula, borta giltzean itxirik ere. Euskaltzaindiak, zeinek Leizarraga nahiz Axular ere kide dituen, aspaldian izendatu zituen barbarook euskaldun.

6. AMAIERAKO EBALUAZIOA ENTZULEEI

Emaitzak baino prozesu didaktiko guztia baloratu ohi dugu, ikasle bakoitza ezagutuz eta etengabeko jarraipena eginik ezen, ikaslea banan bana ezagutzen baitugu.

Entzunari erantzunez:

1. Zein helburu ekarri da saio honetara? Bete da?
.....
2. Arterik, jadanik bazenekienetik, zer azpimarratu da hitzaldian?
.....
3. Zein ideia berri jaso duzu?
.....
4. Zein ideia, ilun zenekarrena, ez zaizu argitu?
.....
5. Hemen aditutakoa aditurik, zein aspektu, atal, aldatuko duzu zeure testugintzan edo ikasleenarenean?
.....
6. «Eta kriterio horiek dira oraindik guri iristen zaizkigunak. Eta askotan iristen zaigu batasunik eza: irakasle batekin, honela idatzi behar dut, aditza hemen jarri behar dut; batekin «errekurtsio» erabili behar dut, bestearekin «helegite»: aditza atzera pasatu, bada hori jasotzen dugun zerbait».

Autore horrek dioena egia da?

.....

7. Onartuko zenuke baieztapen hau?: «Baina uste dut itzulpengintzan, oraindik dauden irizpideak oso urruti daudela hizkuntza moderno, hizkuntza posible batetik, oso urruti dabilta eta horrela ez dago hizkuntza hori gazteei transmititzerik».
-

8. Honako esaldiak entzuten dituzu euskaldun biren ahotik, zure ustez, norena, nolako pertsonarena izan liteke euretariko bakoitza?

8.1. «Segun medikuak dioen, bihar joango naiz etxera».

.....

8.2. «Gaur presaz nabil, bihar pasetan naiz».

.....

9. Nik iturri bi ditut testuak lasai idazteko:

9.1. Bata, Grezia eta Erromatik Mendebaldeko hizkuntza landu guttiara hedatu dena.

9.2. Bestea, euskaldunen ahozko euskara jatorra.

Ados zaude?

.....

10. Ezin mintza gaitzke gu geure gurasoen erara, ez eta gure gurasoak Frai Bartolome Madariagarenera. Larrauriko urliaren 2008-09-09ko esaldi hau, nola ekarriko zenuke zeure euskarara?

«Badira epokak artxo asko jaten dana».

.....

7. BIBLIOGRAFIA

ALBERDI, A. (1996): *Eskola gramática*, Elkar, Donostia.

ALDASORO, M. ETA KIDEAK (2005): *Euskara literatura, 3. DBH*, Elkar-Ikastolen Elkartea. Donostia.

AMUNDARAIN, D. (2000): *J. R. Flecha Andrés: Biziaren iturria. Bioetika*, Erlijio kulturaren bilduma, Deustuko Unibertsitatea.

ARRIETA, S. (1987): Ahozko grabaketa, Mungia.

- AUSUBEL, P. (2003): In Euskaltzaindia, *Euskalkio eta Hezkuntza*, IKER 13, Bilbo.
- AUSUBEL, P. ETA KIDEAK (1989): *El desarrollo infantil: el desarrollo de la personalidad*, Mexico, Paidós.
- BAXOK, E. (1986): «Euskara euskalkiak», in ASJU XXVIII.
- BUTRON, J. ETA IRIONDO, E. (1999): *Atalak 1 eta 2, Currículum materialak hizkuntza eta literaturarako*, OT, Bilbao.
- DARDANO, M. ETA TRIFONE, P. (2006): *Gramatica italiana*, Zanichelli, Milano.
- DOMINGUEZ, M.N. (2007): *Conectores discursivos en textos argumentativos breves*, Arco/Libros, Madrid.
- EUSKALTZAINDIA (1990): *Euskal gramatika. Lehen urratsak-III, Lokailuak*. Bilbo.
- (2008): *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*, Jagon Bilduma, 6, Corpus Batzordea, Bilbo.
- ESNAL, P. eta ZUBIMENDI, J.R. (1993): *Idazkera liburua*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- GABIKAGOGEASKOA, A. (2008): *Rawls J., Justiziaren teoria bat*, Klasikoak, Bilbao.
- GAMINDE, I. eta GOIKOETXEA, U. (2005): *Irakurketa ozena ebaluatzeko irizpideak Bizkaian*. Mendebalde Kultura Alkartea, Izaro Bilduma, Bilbao.
- HERNANDEZ, J.A. (2003): «Gaiak», *El País*, reportaje, 2003-04-07.
- HIDALGO, B. (1988): Baina zer da euskal joskera? In *IVAP*, 21.
- IRIGOIEN, A. (1990): *De re philologica linguae uasconicae, III*, Bilbao, 1990.
- IRIGOIEN, J.M. (2000): *Lur bat haratago*, Elkarlanean, Donostia.
- IVAP (1988): *Estilo liburua*.
- LEWIN, K. (1972): in *Idioma y poder social*, Ninyoles, R.
- MENDIGUREN BEREZIARTU, X. (2005): *Marx Karl: Idazlan hautatuak*, Klasikoak, Bilbao.
- OSA, E. (1990): *Euskararen hitzordena*, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- PLAMER, F. (1990): in *Euskararen hitzordena*, OSA, E., op. cit.
- SIGUAN, M. (1990): *Lengua del alumno, lengua de la escuela*, ICE, Barcelona.
- VILLASANTE, L. (1961): *Historia de la literatura vasca*, Sendo, Bilbao.
- (1988): *Euskararen auziaz*, Luis Elizalde Bilduma, Lizarra.
- WEINREICH, U. (2003): *Euskalkia eta Hezkuntza* in Euskaltzaindia, IKER 13, Bilbo.

EUSKARAREN ERABILTZAILE ESTRATEGIKOA: HELDUEN EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZEAREN HELBURU

*Lourdes Elozegi,
HABEko teknikaria*

Ezer baino lehen, esker ona adierazi nahi diot Euskaltzaindiari, eta bereziki Corpus batzordeari; hasteko, gaurko jardunaldi honetara konbidatu izanagatik; baina, batik bat, helduen euskalduntze eta alfabetatzea aintzat hartzeagatik gaur ere.

Leku berezia eta zerikusi zuzena izan du Euskaltzaindiak helduen euskalduntze eta alfabetatzearekin. Besteak beste, ezaguna da Rikardo Arregik 1966ko urtarrilean Euskaltzaindira idatzitako gutuna, eta Akademia honek emandako erantzuna eta ondoren sortutako kanpainak. Eta, nahiz eta gero berariazko erakundeek hartu beren gain helduen alfabetatze eta euskalduntzea, etengabe ari da eragiten Euskaltzaindia helduen euskara-irakaskuntzan. Eten-gabea da bien arteko harremana.

Etengabe ari da helduen euskalduntze eta alfabetatzea Euskaltzainditik hartzten; eta etengabe ari zaio eskatzen. Esango nuke, era berean, etengabe ari zaiola eskaintzen ere, nahiz eta askoz maila apalagoan izan.

Horren harian, eta betiere nabarmendu nahian goizean aurkeztutako *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategia* liburuak zer garrantzi duen guretzat –helduen euskalduntze eta alfabetatzean ari garentzat–, bi puntu landuko ditut hitzaldi honetan: 1) helduen euskalduntze eta alfabetatzeak hasieratik egindako ibilbide kurrikularra eta 2) nola euskararen erabiltzaile estrategikoak sortzea den gure azken helburua.

1. HELDUEN EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA: IBILBIDE KURRIKULARRA

HABEren zuzendari nagusi Joseba Erkiziak artikulu jakingarri bat idatzi zuen iaz, azalduz helduen euskalduntzearen eta alfabetatzearen gaur egungo nondik norakoa (Erkizia, 2007), bai alderdi didaktikotik ikusita («didaktikoa baita HABEren jardueraren erdigunea»), bai alderdi instituzionaletik ikusita ere.

Alderdi didaktikoa hizpide, honela zioen (nirea da azpimarra):

Jarduera didaktikoa da euskaltegien funtsezko egitekoa; eta HABErena, funtsezko jarduera hori sustatzea eta bideratzea.

HABEk, egiteko horretan, kurrikulua jotzen du oinarrizko baliabidetzat; horren arabera gauzatzen baitu irakasle bakoitzak, jakinaren gainean nahiz oharkabean, eguneroko jarduera didaktikoa.

Azken batean, bi kurrikuluk gidatu dute helduen euskalduntzea, azken hogeita sei urte hauetan: soil esanda, kurrikulu gramatikalak eta kurrikulu komunikatiboak.

Data mugari bat ere jar daiteke, bien arteko bereizle: 2000ko otsailaren 9a; egun horretan jarri baitzen indarrean Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua (HEOK), hori onartzen zuen Agindua bezperan argitaratuta.

Baina ondo ulertu behar da bereizketa hori. Izan ere, hasiera-hasieratik antolatu zuen HABEK euskararen irakaskuntza benetako komunikazioari begira, nahiz eta gramatikaren arabera zehaztu zituen ikas-edukiak. Hasiera-hasieratik saiatu zen uzartzen hizkuntz formen ikasketa eta lau trebetasunen (entzumena, mintzamena, irakurmena eta idazmenaren) garapena. *Hasiera-hasieratik jo zuen euskararen ezagutza eta erabilera lotzera*, ikasgelatik bertatik hasita eta ekintza osagarriak eta kanpo-ekintzak eta barnetegiak sustatuz. Eta hasiera-hasieratik hasi ziren euskaltegiak eta barnetegiak euskaldun osoak sortzen.

Apurka-apurka, gorputz hartzen joan da nahi komunikatibo hura, eta kontzeptu bihurtzen hasierako intuizio eta senak: funtzio, nozio, testu, estrategia... gaitasun komunikatibo; eta ikas-eduki berriak gehitu zaizkie lehengoei. Eta lan hori guztia biltzera, sendotzera, indarberritzera eta biribiltzera etorri zen HEOK (Helduen euskalduntzerako oinarrizko kurrikulua).

Eta aurrerago honela dio:

Dena den, bada luze joko digun lan bat. Noiz ordezkatu ahal izango dugu, izan ere, ikuspegi gramatikalaren arabera egindako ikas-edukien banaketa, ikuspegi komunikatibotik egindako batez? Edo, bestela galdetuta, noizko «gramatika» komunikatibo bat?

Baliabide egokia baita gramatika, bai ikaslearentzat eta bai irakaslearentzat, zertan ari diren jakin dezaten. Batzuetan gerta baitaiteke, gaizki ulertutako ikuspegi komunikatiboaren eraginez, jardunean jardutea irakasleak eta ikasleak, zertan ari diren ongi jakin gabe.

Gatozen, bada, helduen euskalduntze eta alfabetatzeak egindako ibilbide kurrikularra azaltzera, Joseba Erkiziak aipatutakoak zertxobait zehaztuz, eta ibilbide honetan lau gai nagusi ahaztu gabe: 1) hasiera-hasieratik euskara-erabilzaileak sortzea izan da helduen euskalduntzearen helburu, 2) funtsezkoa izan da ibilbide horretan ikuspegi-aldaketa: ikuspegi gramatikalaren paradigma ikuspegi komunikatiboarenaz ordezkatu izana, 3) ezinbestekoa da paradigma-aldaketa hori kontzeptu egokiz adieraztea eta horiek euskarari nola gauzatzen diren atzematea.

1.1. Senez, ikuspegi gramatikalaren baitan

Askotan, arrazoiz edo arrazoirik gabe, helduen euskalduntzeari leporatu zaió ezagutza eta erabileraren arteko dikotomiaren erantzule izatea. Alegia, euskaltegiak euskararen ezagutza eskaintzen diola euskaldungaiari, baina ez dituela euskara-erabiltzaileak sortzen. Horretarako, gizarteak bestelako erakunde, baliabide eta egitarauak beharrezko dituela, ikasitakoa erabiliko bada.

Joseba Erkiziak dioen bezala, ordea, hasiera-hasieratik izan du helduen euskalduntzeak gaitasun komunikatiboa helburu eta «hasiera-hasieratik jo zuen euskararen ezagutza eta erabilera lotzera, ikasgelatik bertatik hasita eta ekintza osagarriak eta kanpo-ekintzak eta barnetegiak sustatuz».

Esaterako, oraindik ere gogoan dut, duela 27 urte, Hondarribiko HABE-ren barnetegian, zer aldaketa egin behar izan genituen ikas-edukien hurrenkeran, hizkuntz formen hurrenkeran. Izan ere, gure ikasle haiek lehen egunetik euskaraz hitz egin zezaten nahi genuen. Ikasgelan eta baita ikasgelatik kanpo ere: jangelan, jolasgelan, liburutegian, herrian... Berehala ohartu ginen eskolatan ikuspegi gramatikaletik antolatu eta landutakoak ezer gutxirako balio zuela, eguneroko benetako behar komunikatiboei erantzuteko. Ezpairik gabe, ezagutza eta erabilera genituen helburu, nahiz eta zailagoa egiten zitzaigun ikas-irakas jardunean bi alderdi horiek uztartzea.

Nola lortu ikasitakoa eskolatik kanpo ere erabiltzea?

Irakasleok, irakasle orojakileok, hizkuntzaren berri ematen genien ikasleei: formak, lexikoa, arauak eta abar. Horiek osatzen zuten programaren lehen ardatza. Eta uste genuen ikasleen kontua zela batik bat hizkuntza gauzatzea. Beraiek eraman behar zuten praktikara; beraiek erabili ikasitakoa.

Baina ez genituen bakarrik uzten. Gertutik laguntzen genien lau hizkuntz trebetasunak lantzen: entzumena, mintzamena, irakurmena eta idazmena. Hitz egiten jartzen genituen; idazten eta entzun eta irakurritakoa ulertzen. Landutako formak erabiliz, arauak aplikatuz jardun behar zuten eta beti, hori bai, zuzentasunez. Hori zen irizpide nagusia. Horrela hornitu genuen programaren bigarren ardatza: trebetasunak.

Poliki-poliki, urratsez urrats, hizkuntzalaritza aplikatuak garai hartan zioenaren haritik eta askotan senez joan ginen gure jardun didaktikoa osatuz eta aberastuz, ikuspegi gramatikalaren baitan.

Berehala gehitu genizkien funtzioak eta nozioak hizkuntz edukiei. Urrats garrantzitsua izan zen, nahiz eta esaldien mailan geratu.

Urte batzuk geroago etorri ziren lokailuak, Euskaltzaindiaren eskutik etorri ere (Euskaltzaindia, 1990). Ordurako, hasiak ginen testua lantzen; eta ez soilik esaldiak: koherentzia, kohesioa, eta abar. Kontzeptu horiek, ordea, gehienetan ikuspegi gramatikal eta arau-emailetik lantzen genituen, hizkuntza araua besterik ez balitz bezala.

Baina, euskalduntzearen jardun didaktikoan, ikasleen beharrak eta bigarren hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko literaturak bultzaturik, pixkana-pixkana lekua hartuz joan ziren komunikazioak, pragmatikak, testuak eta testuinguruak, gaitasun testualak, gaitasun soziolinguistikoak eta antzeko kontzeptuak.

1.2. Ikuspegi komunikatiboa: HEOK

Euskaltegiek batez ere 1990-2000 hamarkadan egindako lan eskergari esker, helduen euskalduntzeak eta alfabetatzeak aldaketa itzela izan zuen. Ez bakarrik ikuspegi gramatikaren oinarri linguistikoa berritzen eta osatzen ari zelako; baizik eta ikaskuntza-teoriek zein didaktikak ere aldaketa asko bultzatu zituztelako. Gure esparrua –euskalduntze eta alfabetatzearena– ez zen mugimendu horretatik kanpo geratu.

Egoera horretan jarri zuen HABEk indarrean *Helduen Euskalduntzerako Oinarrizko Kurrikulua* (HEOK), hiru oinarri zituela –linguistikoa, psikologikoa eta soziologikoa–, oinarrizko hiru galderari erantzunez: 1) zer da hizkuntza?, 2) nola ikasten du helduak hizkuntza?, 3) zer testuingurutan ikasten da euskara Euskal Herrian?

Hizkuntzari gagozkiolarik honela dio HEOK dokumentuak (HABE, 1999: 17):

Hizkuntza sistema bat dela esateak honen alderdi estrukturala azpimarratzen du. Hain zuzen, sistema elementuz osaturik dago; elementu hauek elkarloturik daude, eta osotasunari erreferentzia egiten dioten neurrian lortzen dute beren zentzu eta balio osoa. Hizkuntzaren barruan hainbat sistema edo, hobeto esan, azpisistema aurki daitezke: sistema fonologikoa, morfosintaktikoa, semantikoa...

Baina hizkuntz sistemaren unitate komunikatiboa ez da ez hitza, ezta esaldia ere, diskurtsoa baizik, testuetan gauzatzen dena. Testuek, berriz, bere osotasuna lortuko dute, bere arau propioez gainera, azpisistema fonologiko, morfosintaktiko eta semantikoaren arauak ere betetzen badituzte, beti ere komunikazioa gertatzen den xedeari eta egoerari, kontestuari alegia, egokituz.

Ikuspegi eta paradigma berri hau, ikuspegi gramatikala zuzenduz eta osatuz, haustura bat gainditzera zetorren. Hizkuntza, bat izanik ere, urteak generamatzen bitan banatuta ikusten eta irakasten –forma eta esanahia, hizkuntz formak eta trebetasunak, ezagutza eta erabilera...–, nahiz eta helburua modu bateratuan zehazten saiatu.

Bereizketa hori beharrezkoa izango da zientzia egiteko (gogora Saussuren *langue* eta *parole*, Chomskyren *competence* eta *performance*); baina kaltegarria dugu irakaskuntzan, osotasuna banatzera eta sakabanatzera datorren neurrian.

HEOKak, berriz, hizkuntzaren alderdi guztien sintesia eta batasuna berraurkitzea bilatzen du; gaitasun linguistikoa osatzea. Hizkuntza ikastea ez da bakarrik esaldi zuzenak sortzen jakitea. Esaldi horiek egoki erabili behar dira komunikazio-ekintzetan.

Hala, gaitasun linguistikoaz ez baina, gaitasun komunikatiboaz hitz egiten hasi ginen. Are gehiago: kontzeptu horretan laburbil daiteke HEOKaren funtsa, paradigma berriaren bihotzean.

Canale eta Swain autore klasikoek eratu zuten (1980) kontzeptu hori, eta Canale-k berak garatu 1983an. Horren arabera zehaztu genituen, HEOK dokumentuan, mailaz mailako gaitasun komunikatiboa eta lau azpigaitasunak: gaitasun linguistikoa, soziolinguistikoa, diskurtsiboa eta estrategikoa. Honela dio HEOKak (HABE, 1999: 20):

- *gaitasun linguistikoa: hizkuntza baten arauak jarraituz osa daitezkeen eta beren esanahi konbentzionala duten adierazpen egokiak sortu eta interpretatzeko gaitasuna.*
- *gaitasun soziolinguistikoa: komunikazio-egoerari egokitzeko abilezia.*
- *gaitasun diskurtsiboa: testuak taxutzen eta interpretatzen estrategia egokiak erabiltzeko gaitasuna.*
- *gaitasun estrategikoa: hizkuntzaren erabiltzailearen kode-ezagutzan egon daitezkeen hutsuneak edo beste arrazoi batzuk direla eta gerta daitezkeen komunikazioaren etena konpontzeko, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazio-estrategiak erabiltzeko gaitasuna.*

Ikuspegi honetatik zehaztu ziren trebetasunez trebetasun maila bakoitzean lortu beharreko helburuak. Ikuspegi honetatik zehaztu ziren ebaluzio-irizpi-deak eta baita azterketa-probak ere.

Adibidez, hona hemen euskalduntzearen lehenengo eta laugarren mailetako helburu orokorrak (HABE, 1999: 33):

1. maila. Lehenengo maila burutzerakoan, ikaslea gai izango da eguneroko kontestu ezagunetan gai orokor eta arruntei buruzko kontaketa eta narrazio sinpleak, instrukzioak, pertsona eta objektuen deskribapen laburrak ulertu eta, ahoz nahiz idatziz, adierazteko. Halaber, eguneroko harreman hurbilen inguruan, solasaldietan parte hartzeko gai izango da. Dena den, testuaren mezu nagusia eta orokorra jaso/adieraziko du; eta zerbaitetan, helburuaren arabera eta testuaren egiturak bideratzen duenean, informazio xehea ere jasoko du.

4. maila. Laugarren maila burutzerakoan, ikaslea gai izango da kultura-maila goreneko eta norbere espezialitateko gaien inguruan elkarriketa mantentzeko eta iritziak eta azalpenak emateko. Halaber, testu espezialduak bere osotasunean jasoko ditu; eta, hizkuntza formalean nahiz informalean egoerari egokituz eta arrakasta lortzeko moduan, era guztietako testuak zuzen, zehatz eta jator idatzeko gai izango da. Euskalkietako berbaldiak eta idatzizko testuak ere ulertzeko gai izango da.

Ikuspegi berri horren baitan, indar berria hartu zuen jardun didaktikoak. Gero eta eragileago bihurtu zitzaigun *komunikazio* hitza. Ez zen nahikoa hizkuntza ikastea. Ez zen nahikoa baliabide linguistikoak ezagutu eta zuzen erabiltzea. Zerbait komunikatu beharra zegoen, esanahia zuen zerbait adierazi behar zen testuinguru batean. Diskurtsoa osatu behar zen. Komunikazioa gauzatu.

1.3. Gaitasun komunikatiboa eta ekintza-ikuspegia

Paradigma berri horren baitan, bigarren hizkuntzen ikas-irakaskuntzak urrats garrantzitsua eman du, nire iritziz, ikuspegi komunikatiboaren planteamenduari ekintza-ikuspegia erantsi dihonean.

Europako Kontseiluak, 2002an, *Europako erreferentzi markoa* eman zuen argitara, marko bateratua proposatuz Europako hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako. Ikuspegi komunikatiboaren harian, ekintza-ikuspegiak mintzo da (jatorrizko bertsioan: «perspective actionnelle») eta horixe du marko orokor. Ikuspegi komunikatiboa bera da, baina aldi berean era orokorragoan eta eraginkorragoan eta batera bilduagoan ulertua.

Esaterako, honela dio hizkuntzaren erabileraz eta ikaskuntzaz (Europako Kontseilua, 2005: 29):

Hizkuntzaren erabilerak –ikaskuntza ere barne hartzen du–, erabiltzaileak gizabanako eta gizarte-eragile diren aldetik, **gaitasun orokor** zein **komunikazio-gaitasun** batzuk garatzen dituzten pertsonen ekintzak hartzen ditu bere baitan. Pertsonak, **hizkuntz ekintzak** gauzatzeko, **testuinguru** ezberdinetan eta **balidintza** eta **muga** ezberdinen menpe erabiltzen dituzte eskuragarri dituzten gaitasunak. Ekintza horiek gauzatzeko **prozesu** batzuk abiarazi behar dituzte, **arlo** espezifikotan **gai** jakin batzuei buruzko **testuak** ekoizteko eta jasotzeko, eta egin beharreko **atazak** gauzatzeko egokien irizten dieten **estrategiak** erabili behar dituzte. Ekintza horien gainean duten kontrolaren bidez, partehartzaileek beren gaitasunak sendotu edo aldatuko dituzte.

Kontzeptu horietan daude ekintza-ikuspegiaren alderdirik esanguratsuena: hizkuntz ekintza, testuingurua, testua, estrategiak. Gaitasun komunikatiboa lortzeak esan nahi du hitzuna zerbait egiteko gai dela; ekintza orokorraren baitan berariazko hizkuntz ekintza burutzeko gai dela eta ekintza hori, ahoz nahiz idatziz, testu batean eta testuinguru batean gauzatzen duela; eta gauzatu ahal izateko aukeran dituen baliabiderik egokienak estrategikoki aukeratzeko gai dela.

Gaitasun komunikatiboaren funtsa, beraz, kontzeptu nagusi bakarrean bil daiteke: ekintza komunikatiboa. Eta, honen argitan, era bateratuagoan eta eraginkorragoan azaltzen du ikuspegi komunikatiboa, euskararen ikas-irakaskuntzaren planteamendua ere bateratuz eta aberastuz.

Printzipio nagusi bat dago oinarri-oinarrrian: hitz egitea gauzak egitea da; eta, hori biribilduz, eginez ikasten da egiten. *Egin* da hitz gakoa. Egitea da helburua. Beraz, ikasleak zerbait egitera heldu behar du ikas-prozesua amaitzean; bestela esanda, ekintza komunikatiboak gauzatzeko gai izan behar du.

Xeha dezagun termino hori. *Ekintza* eta *komunikatiboa*. Bi hitzok osatzen dute. Lehenak –ekintzak– mundu sozialera garamatza. Izan ere, batetik, *agente soziala* da hizkuntzaren ikasle eta erabiltzaile oro; bestetik, atazak (ez soilik mintzaira-atazak) ekintza-esparru baten baitan eta testuinguru jakin batean gauzatzen dira.

Bigarrenak –komunikatiboak– hizkuntzaren munduan kokatzen gaitu. Hizkuntz ekintzan eta hau gauzatzaren duen testuan. Ekintza komunikatiboa gauzatzaren duen testua, ahozkoa zein idatzia, osotasun bat da, hizkuntza bera bezalaxe. Unitate bat. Bloke naturala, nahiz eta unitate oso eta berezko horretan unitate txikiagoak ere bereiz ditzakegun.

Planteamendu komunikatiboaren arabera, gramatikak bereizitako hizkuntzaren unitate txikiak eta solteek ez baina, benetako komunikazio-unitateek hartu dute tokia irakaskuntzaren erdigune. Bloke natural hauek –ekintza komunikatiboak– izango dira hizkuntzaren i(ra)kaskuntzako abiapuntu eta helburu, eta ez unitate txikiak.

Baina bada besterik ere: planteamendu osoago honen baitan bestelako esanahia hartzen dute zenbait kontzeptu gramatikalek; esaterako, aditzaren aspektuak eta denborak. Gurean, pixkana-pixkana ari gara horretaz jabetzen (Elozegi, Esnal, 2004: 81-97). Eta horretan lagungarri izan genuen, adibidez, EGLU II (Euskaltzaindia, 1987).

Ekintza komunikatiboa terminoak, ordea, gainditu egiten du hizkuntzalari-tzaren esparru zehatza. Esaterako, ohartzen gara nola psikologiak ere –zenbait psikologiak, behintzat (Vygotskyk, adibidez)– ekintzak hartzen dituen objektutzat; zehatzago, zentzua duten ekintzak (frantsesez, *action sensées*; gaztelaniaz, *acciones con sentido*); ekintza horien bihotzean dago hizkuntz jarduera, azken batean diskurtsoan gauzatzaren den hizkuntz jarduera; eta diskurtso horiek dira, hain zuzen, hizkuntz zientzien objektu nagusia.

Bronckartek dioenez (1996: 30, 39):

Para alcanzar sus objetivos propios, tal como los había definido Vygotsky, la psicología debe pues, a nuestro modo de ver, «salir de sí misma» o, dicho de forma más precisa, rechazar los postulados epistemológicos y los corsés metodológicos del positivismo que la ha fundado, para tomar las acciones humanas en sus dimensiones sociales y discursivas constitutivas.

Así como la actividad social en general puede ser comprendida bajo el ángulo psicológico de la acción, la actividad lingüística puede ser comprendida bajo el mismo ángulo, como acción lingüística, imputable a un agente, y que se materializa en esa entidad empírica que constituye el texto singular.

Beraz, *hizkuntz ekintza (action langagière: acción lingüística)*. Edo, azken batean, *ekintza komunikatiboa*. Kontzeptu honek bildu nahi ditu psikolinguistika, hizkuntzalaritza, soziologia eta hizkuntzaren filosofia jakin batzuen –HEOKaren planteamenduarekin bat datozenen– ekarpenak. Eta, bereganatu ez ezik, sintesi berrian laburbildu.

Hizkuntza –hitz egitea, hizkuntz ekintza– osotasun bat da, lehen-lehenik. Osotasun hori aztertzean, bereiz daitezke zenbait elementu eta osagai. Baina osotasuna ez da elementu eta osagai horien pilaketa eta batuketaren ondorio.

Neurri berean, ekintza komunikatiboa ere osotasun bat da. Baina osotasun dinamikoa. Hitzunak, hizkuntzaren (euskararen) erabiltzaileak, ekintza gauzatzekoan testu bat (testu-generoa) sortzen du testuinguru batean. Testua eta testuingurua: elementu dinamikoak dira biak; hitzunak kontuan hartuko dituenak, aldian-aldian, ekintza komunikatiboa zuzen eta egoki gauzatuko badu.

Horren arabera, galdera bati erantzunez zehatz ditzakegu euskalduntzearen mailaz mailako helburuak: zer ekintza komunikatibo burutzeko –zer egiteko– gai izango da ikaslea ikas-prozesu jakin bat amaitzean? Adibidez:

Euskalduntzearen lehen maila amaitzean, ikasle bat gai izango da, lagunartean, berari gertatutako zerbait ahoz kontatzeko.

Kontua ez da halako hizkuntz forma(k) ezagutzea edo erabiltzen jakitea, baizik eta zerbait egiten jakitea; kasu honetan, gertaera bat kontatzen jakitea.

Baina gehiago ere zehatz daiteke helburua, hainbat elementu bereiziz.

Ikaslea, euskalduntzearen lehen maila amaitzean, gai izango da 1) lagun bezala (lagun-rolan) 2) lagunei zein familiartekoei 3) berak bizitutako gertaera bat kontatzeko 4) ahoz, 5) lagunarte-giroan, 6) informatzeko edo harremanak zaintzeko edo lantzeko xedeaz

Sei elementu bereizi ditugu: 1) enuntziatzailea (rola), 2) enuntziataria (rola), 3) zer egiteko, 4) nola, 5) erabilera-esparrua, 6) xedea. Kasu honetan:

- | | |
|----------------------------|---------------------------------|
| 1. enuntziatzailea (rola): | laguna |
| 2. enuntziataria (rola). | lagun bati |
| 3. zer egiteko: | gertaera bat kontatu |
| 4. nola: | ahoz |
| 5. erabilera-esparrua | lagunartea |
| 6. xedea: | informatzea, harremanak lantzea |

Sei aldagai horietako batek –4ak– bi balore besterik ez ditzake izan: *ahoz* eta *idatziz* baloreak. Hirugarren aldagaiak, berriz, lau balore har ditzake: *kontatu*, *azaldu*, *preskribitu* (agindu, instrukzioak eman) eta *gauzatu*. Gainerako lau aldagaiek, ordea, konta ezin ahala izan ditzakete.

Ondorioz, helduen euskalduntzearen eta alfabetatzearen helburua da kontatu ezin diren ekintza komunikatiboak gauzatzeko trebatzea ikaslea.

Baina –eta hau ere funtsezkoa da– ikas-prozesu batek hasiera eta amaiera izan ohi du, eta ezinezkoa da ekintza komunikatibo guztiak lantzea ikasgelan zein bestelako ikas-sisteman.

Horregatik, ikasle autonomoa eta estrategikoa lortzea du helburu helduen euskalduntze eta alfabetatzeak; egoera eta testuinguru ezberdinetan erabiltzaile on izango den euskalduna, arrakastaz komunikatuko duena.

2. EUSKARAREN ERABILERA ESTRATEGIKOA: EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZEAREN HELBURU

Erronka berri baten aurrean dugu, beraz, euskalduntze eta alfabetatzea: euskal hiztun osoak eta erabiltzaile estrategikoak lortzea. Hori lortuz gero bermatuko baitugu euskararen erabilera esparru eta egoera guztietan. Gaitasun komunikatibo hori duen hiztunak ez baitu aitzakiarik izango dena delako egoeratan bere gaitasuna adierazteko.

Hiztunak baliabide jakin batzuk izango ditu aukeran, dena delako ekintza komunikatiboa gauzatzeko. Eta aukera horien artean, bat ala bestea hartzea erabaki beharko du, egoera eta beharren arabera.

Erabakia da hitz gakoa; edo, bestela esanda, *estrategia*. Izan ere, estrategia egokiak erabiliz –aukera egokiak eginez– lortzen dugu komunikazio arrakastatsua.

Estrategien mundua, labur esanda, aukeren mundua da, eta erabakien mundua. Gramatikaren mundua, ordea, arauen mundua da. Arauak bete egin behar dira, eta kito! Baina hizkuntzaren erabileran dena ez da arau; eta eremu askotan har ditzakegu erabakiak. Adibidez, arestian aipatutako lehenengo mailako ekintza komunikatiboa, nola gauzatu? Kontaketa eginez ala azalpena eginez? Biak txertatuz, agian? Interaktiboa ala ez-interaktiboa? Ahots enuntziatzailea bakarria izango da?

Erabakiak hartzen eta estrategiak erabiltzen, berriz, erabakiak hartuz eta estrategiak erabiliz ikasten da. Bestela esanda, hizkuntza erabiliz landu beharko da erabakimena edo gaitasun estrategikoa.

Orain, esanahi beteagoa hartzen dute ekintza-terminotan zehaztutako helburuak (Elozegi, Esnal, 2004: 109-115):

Euskalduntzearen 1. maila amaitzean, ikaslea gai izango da, besteak beste:

Ahoz

Lagunartean zein familiarrean, ezagunei, ingurukoei zein familiakoei buruzko informazioa emateko eta jasotzeko, deskribapenak eginez jakin-mina asetzeko.

Maila bereko solaskide ezagun zein ezezagunen artean, ezaguna duen toki baten azalpena egiteko, tokiaren ezaugarriak deskribatuz eta bertara joateko gonbitea eginez.

Idatziz

Ezagun zein ezezagunei eskari-gutun bat egiteko, egoera zein den adieraziz eta eskaeraren arrazoiak zehaztuz.

Berari gertatutako zerbait kontatuz administrazioa zein beste erakunde batera jotzeko, gertaera zurutuz edota, adibidez, errugabetasuna adieraziz.

4. maila amaitzean, ikaslea gai izango da, besteak beste:

Ahoz

Bere lanean, iritziak emateko gai bati buruz. Iritzi horiek defendatu eta argudiatuko ditu, besteak konbentzitzeko eta zerbait egitera bultzatzeko asmoz.

Gai batean aditua den neurrian, mahainguru batean parte hartzeko, azalpenak egin eta iritziak defendatuz bere ikuspuntua egoki aurkeztea xede.

Idatziz

Dibulgazio-aldizkari batean zein egunkari batean, azalpen-artikula egiteko, gai bati buruzko informazioa ematea eta gogoeta eragitea xede.

Lan-esparruan, ekintzen memoria egiteko, xedea izanik ekintzen azalpena, ebaluazioa edo ekintzekiko aldeko jarrera sustatzea.

Kontua ez da hizkuntzaren (euskararen) baliabide guztiak eskuratzea. Kontua da behin eskuratu eta barneratu ondoren, testuinguruaren arabera, egokitasunez eta zuzentasunez erabiltzea. Eta hori eremu zabala da hiztunarentzat.

Baina didaktikak tresnak behar ditu; euskara-irakasleak tresnak behar ditu: estrategia eta erabilera estrategikoa ulertzen eta barneratzen lagunduko dioten tresnak. Besteak beste, euskara nola erabilia izan den eta nola erabiltzen den erakutsiko dioten tresnak. Euskal testuak (zaharrak eta berriak, klasikoak eta modernoak) aztertuko dituzten adituak behar ditugu, testuetan atzemango baititugu erabilitako estrategien aberastasuna eta egokitasuna. Horiek izango ditugu eredu eta horien jarraitzaile izanik lortuko dugu komunikazio egoki, zuzen eta eraginkorra.

Testuinguru horretan, benetan baliagarria da gaur goizean aurkeztutako liburukia, helduen euskalduntze-lanetan ari garenontzat eta, bereziki, laugarren mailan ari diren irakasleentzat. Izan ere, askok oharkabean erabiltzen ditugu bai testu-antolatzaileak eta baita beste baliabide linguistikoak ere. Eta ezinbestekoak ditugu irakaskuntzan horrelako hausnarketak eta azterketak. Ezinbestekoa dugu oharkabeko hori esplizitu bihurtzea eta, arau bihurtu gabe, ditugun aukerak era estrategikoan erabiltzen ikastea.

Bukatzeko, Euskaltzaindiaren eta euskalgintzaren arteko harremanak etenik izan ez dezan, eskari bat egin nahiko nioke Euskaltzaindiari, eta Corpus

batzordeari bereziki: jarrai dezala hizkuntzaren erabileran sakontzen eta egin-dako ikerketa eta azterketen berri ematen; hori baita, gure iritziz, erabilera estrategiko zuzen eta egokia lortzeko biderik eraginkorrena. Euskal testugin-tzak eskertuko du ekarri hori; ez gutxiago, ordea, euskalgintzak.

Mila esker

BIBLIOGRAFIA

- BRONCKART, J.P. 1996. *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionisme socio-discursif*. Lausanne – Paris: Delachaux et Niestlé.
- CELCE-MURCIA, M. ET ALII. 1998. Gaitasun komunikatiboa: asmo pedagogikoek sortutako eredu bat, osagaien edukiak zehaztuta. *Hizpide* 41: 59-89.
- ELOSEGI, L., ESNAL P. 2004. Euskaltegi-kurrikuluak egiteko jardunbide bat. *Hizpide* 57.
- ERKIZIA, J. 2007. «HABE eta euskalduntze-alfabetatzea, 1981 - 2007: lehenak badu gerorik». *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 62: 31-37.
- EUROPAKO KONTSEILUA. 2005. *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa*. Donostia: HABE.
- EUSKALTZAINDIA. 1987. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - II*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- . 1990. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - III (Lokailuak)*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- HABE. 1999. *Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Kurrikulua*. Donostia: HABE.

LEGEEN ETA ADMINISTRAZIOAREN HIZKERA, TESTU-ANTOLATZAILEEN IKUSPEGITIK

Andres Urrutia

Cedant arma togae, concedat laurea linguae

Zizero

Não é possível ser-se um bom jurista sem o domínio ágil,
hábil e pleno da Língua

Malato&Ferreira
Manual de Retórica & Dereito

1. ITZULPENAREN PREMIA

Egun legelari euskaldunak bere buruari galdetzen badio nola eman behar den euskaraz gaztelaniaz idatzitako lege-testuren bat edo Administrazioaren testuren bat, begi-bistakoa da itzulpenera jo behar duela, hots, lehendik egina dagoen itzulpen batera jo, edo, kasurik gehienetan, itzulpen hori, nola edo hala, eskuratu, itzultzailearen laguntzarekin edo bere bostean eginda.

Badira gure artean uste dutenak legelariak eta itzultzaileak bat direla, batez ere, gaztelania-euskara kontuetan, sinetsirik, besterik gabe, bi hizkuntza horien jabe izateak berez dakarrela itzultzaile-dohainen jabe izatea.

Ez da hori oraingo abiapuntua. Aitzitik, orri hauen oinarria arras bestelakoa da, itzulpenaren bideari den txikiena ere kendu gabe, itzulpenaren bide horri lagundu nahi baitio testu honek, agerian jarritz egunero gure gizartean present dauden testu juridiko-administratiboetatik hainbaten itzulpenak eta horietan zer-nolako garrantzia duen diskurtsoak, eta, are zabalagoa, diskurtsoaren gako diren testu-antolatzaileek.

Bihoaz, aldez aurretik, testu-antolatzaileen kontzeptuak eta xehetasunak jakinekotzat, horietan ez baikara sartuko. Beto, jarraian, horien zer-regina testu markatu batzuetan, alegia, hizkera juridiko-administratiboaren testuetan, batez ere, testu horietan haztatzeko horien ezaugarri nagusiak eta orokorrak.

2. EUSKARAZ ZER?

Haztatze-lanetan hasteko, ezinbestekoa da haztagarri ditugun horiek deskribatzea. Gure kasuan, euskaraz dagoen edo legokeen testu-masa juridikoa eta administratiboa.

Apartera joan gabe, badira egun Euskal Herrian, bost aldizkari ofizial, testuak egunero-egunero euskaraz ateratzen dituztenak. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoaren testu juridiko eta administratiboak eskura daude, paperean nahiz sarean.

Horien zerbitzura, itzultzaile-andana, egunero-egunero, Administrazio publikotik edo legebiltzarretatik zernahi etorri eta euskaratu behar izaten dutenak. Langintza horretan, esan gabe doa, ez dira bakarrak. Hamaikatxo udal, elkarte eta erakunde, eta bestelakoak ere horretan ari dira, unibertsitateetan, komunikabideetan, hizkuntzaren industrietan eta abarrekoetan egiten dena bazterrean utzi gabe.

Hala ere, euskal eragilea horra joaten denean, zerekin egiten du topo bat-batean? Testuak ulergarri al dira? Eta, horren ondorioz, erabilgarri al dira?

Eraitza gazi-gozaoren zaporea du horrek. Urte luzeak iragan dira, ia-ia mende laurdena, mundu juridikoaren arlo desberdinetan aritu izan dira itzultzaileak, eta nabaria da halako bat-etortzea, batik bat, lexikoaren eta esamoldeen barruan; baina oraindik urrun eta urri ikusten da euskarazko diskurtsoaren eraberekotasuna.

Gehienetan ere sumatzen da halako gogo berria, esamolde sinpleetara eta ulergarrietara doana, zuzenbide konparatuan ari den bide beretik. Orobat, euskal idazle klasikoak errespetatzeko jokaera, sarritan baitaude horietan izpi esanguratsuak, bidelagun eta gidari izan daitezkeenak.

Hitz gutxitan esateko, badira horietan euskararen esparru orokorrean sumatzen den prosa estandarren premiak, arlo juridiko eta administratiboari dagokiona egoki islatu beharko lukeena.

3. BI OSAGAI

Ezin konta ahalezko bibliografia kausi daiteke azken urteetan zuzenbidearen hizkerari dagokionez. Auzo-erdaretara joanez gero, frantsesak, italierak edo espainierak, ingelesa bera ahaztu gabe, gogoeta berezia eskaini diote afera honi. Esan gabe doa horretan asko lagundu duela Europako Batasuna eratzeko, batasun horretan gertatu baita, barne-barnetik, halako bitasuna: zuzenbide bakarra eta hizkuntza-aniztasuna.

Hartara, hizkera juridiko eta administratiboaren ezaugarriak zehazteko orduan, badira iritzi desberdinak. Oro har, bateratsu dator gehiengoa, hizkera orokorraren aldaki gisa zehazteko, ezaugarri bereziak dituen, hain justu ere, zuzenbidearen esparruak ematen dizkionak¹.

Berezitasun horietan, hainbatez, badira morfologikoak eta sintaktikoak, lexikorenak ere bai, eta, zer esanik ez, sozio-pragmatikoak. Azken horiek dira, gehienbat, lerro hauen interesekoak, horietan zehazten baita ahaleginaren ardatza.

Gogora ditzagun, bide batez, hizkera juridiko horren xehetasunak, euskararen ikuspegitik:

- a) Hizkera erkidearen formakuntza-prozesua bidean dago; eginaren eginenez, hau da, estandarizazio bete-betean. Euskaltzaindiaren euskara batua izan da horretan gidari eta norabidea. Gramatika eta lexiko erkidea ere bidean datoz, epeka bada ere.

Horretan «hizkera erkide-hizkera juridiko» bitasunean, bigarrena da lehenengoaren zordun. Eta zor hori, historian behintzat, oso gutxitan ordaindu du euskarak.

Izatez, tradizio laburra dauka euskarak horrelako zereginetan, eta arian-arian dator horren osaketa.

- b) Hizkera erkide-hizkera bereziaren ondoan, behar-beharrezkoa da produkzio-gune esanguratsuak izatea. Egun, halakoak dira Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta hiru herrialdeetako foru-aldundien egitura politiko eta administratiboak, horiek aitortzen baitiete euren buruei euskara eta gaztelaniaren ofizialtasuna, eta, horren ondorioz, bi hizkuntza horietan euskarazko diskurtsoa eraiki beharra.
- c) Bide beretik esan daiteke diskurtso horren antolatze garaian, sorkuntza eta berezkotasuna baino, itzulpena dela nagusi. Itzulpen juridiko eta administratiboa, gehienbat arau-mailan ari dena, legearen nahiz Administrazioaren eremuetan. Ez horrenbeste, horratio, zuzenbidearen irakaskuntzan nahiz justizia-administrazioan.

Batera zein bestera, itzulpena lagunik preziatuena dela, hizkera juridiko horren aurpegia zehaztea komeni da.

¹ Ikus, askoren artean, hurrengoak: CORNU, G. (2005): *Linguistique juridique*, Paris: Éditions Montchrestien, EJA, 3. argitaraldia, 443 or. MARTÍN DEL BURGO Y MARCHÁN, Á. (2000): *El Lenguaje del Derecho*, Bartzelona: Editorial Bosch, 387 or. GARZONE, G. eta SANTULLI, F. (Arg.), (2008): *Il linguaggio giuridico. Prospettive interdisciplinari*, Milano: Giuffrè Editore, 303 or. SCARPELLI, U. eta DI LUCIA, P. (Arg.), (1994): *Il linguaggio del diritto*, Milano: LED- Edizioni Universitarie di Lettere Economia Diritto, 497 or.

4. LEGE-HIZKERA EUSKARAZ: TERMINOLOGIATIK DISKURTSORA

Euskaraz sorturiko hori, dena den, begien bistakoa da lexiko eta morfologiari buruz.

Ezaguna da horretan CORNU-k biribildutako sailkapena. Horretan ere, bereizketa ez da nolana hikoia, hitz juridiko eskusiboen eta eskusibo ez direnean artean:

Les mots, à considérer ici, en eux-mêmes, sont les éléments du vocabulaire juridique, les termes juridiques. Deux critères associés les caractérisent comme entités de base du langage du droit:

- Ils sont **porteurs d'un sens**. Ce sont des unités significatives. Dans cette fonction, chacun constitue une entité linguistique distincte et autonome qui suffit par elle-même à produire un sens, à signifier.
- Ils sont porteurs d'un **sens juridique**. Ils ont un sens au regard du droit. Ceux que nous retenons reçoivent même plus spécifiquement leur sens du système juridique (CORNU, G. (2005): *Linguistique juridique*, Paris: Éditions Montchrestien, EJA, 3. argitaraldia, 61. or.).

Lexikoari dagokiona gutxiena ere kendu gabe, esan daiteke morfologia eta sintaxiaren aldetik ere hizkera juridikoa hizkera erkidearekin aldentzen ez dela nabariro.

Morfosintaxitik harago, ikuspegi komunikatiboa ere tartean dago. Komunikazio juridikoak, alabaina, baditu bere eskabide propioak eta behar premiazkoenak. Horietan sartuta, guztiz lagungarri izan daiteke, legearen esparruan, aztertzea auzo-erdarek eragin duten diskurtso juridikoaren komunikazioan zernolako isla izan dezakeen testu-antolatzaileen erabilerak, euskararentzat bereziki, hizkera juridikotik abiatuta eta orain arte sumatzen dugun hutsunea bilduz.

Hainbatez, ez dira oso ugariak horren inguruko gogoetak; ezta, gutxiago ere, egun Espainian indarrean dauden lege-testu nagusiak euskararen bidez emateko ahaleginetan.

Doktrinak ere igarri ditu halako hutsuneak. BEAUDOIN-ek ezin argiagi dio, Quebecoko egoera dela eta:

*En common law comme dans les systèmes d'inspiration romano-germanique, le système conceptuel est entièrement dépendant du discours. Et, au sein de ce discours du droit, la phraséologie tient une place de choix. D'où l'importance de trouver et d'employer les lexèmes susceptibles de se combiner de façon idiomatique pour former un énoncé déterminé. Ce phénomène s'appelle, en linguistique, collocation (ou cooccurrence) (BEAUDOIN, LL.L. (2007): «La traduction juridique au Canada. Contraintes linguistiques et juridiques. L'apport de la juri-linguistique», in SUEUR, J.J. (Zuz.), *Interpréter&Traduire. Actes du colloque in-**

ternational des 25 et 26 novembre 2005 Faculté de Droit de Toulon, Bruxelles: Bruylant, 181. or.).

Kexu dator, bide beretik, halako fraseologia nekez aurkitzen baitu bere zereginetarako:

Il existe peu d'ouvrages pour guider le traducteur juridique dans sa difficile tâche de trouver le bon cooccurrent, le syntagme approprié, la formule idiomatique. Ce domaine de la jurilinguistique reste largement encore à explorer. Les lexiques bilingues abondent. Les banques de terminologie –Termium, Eurodicautom– se multiplient, les vocabulaires, glossaires et lexiques spécialisés ne manquent pas. Mais beaucoup reste à faire en matière de phraséologie juridique bilingue (Ibidem, 182. or.).

Europar ere, arrangura bera erakutsi dute beste batzuek, hizkera juridikoaren ikuspegitik. PREITE-k honetara azaltzen du bere iritzia, testu-antolatzailerik buruz, hizkera juridiko eta administratiboaren barruan:

*La recherche des facteurs de cohésion se fait à travers le repérage de certaines stratégies qui recourent dans tout type de texte, comme la répétition des constituants, les liens anaphoriques et cataphoriques, le recours aux connecteurs entre les phrases, aux marqueurs d'intégration linéaire qui découpent et articulent le texte, aux ellipses et aux inférences. Ces phénomènes linguistiques, regroupés par Adam sous la définition de «texture transphrasique», ont le but principal de faire progresser le texte et d'en assurer la continuité à travers la répétition de certains éléments prédisposés par l'énonciateur pour aider la compréhension de la part du destinataire (ou co-énonciateur). La cohérence est plus difficile à saisir car elle est constituée d'une série de phénomènes sémantiques, rhétoriques et pragmatiques qui doivent être interprétés par le coénonciateur dans chaque texte et qui se manifestent tour à tour de manière différente (PREITE, CH. (2005): *Langage du droit et linguistique. Étude de l'organisation textuelle énonciative et argumentative des arrêts de la Cour (et du tribunal) de Justice des Communautés européennes*, Roma: Aracne editrice, 91-92. orr.).*

Badira, beste aldetik, arreta osoa jartzen dutenak testu-antolatzailerik alorrean, hizkera juridikoaren esparruan, batez ere, epaietan. ROVERE egileak xehe-xehe aztertzen ditu halakoak, Italiako jurisprudentziaren barruan, testu-antolatzailerik horiek izan ditzaketan zereginak azpimarratuz:

*La frequenza e le modalità d'impiego dei connettivi –per la cui categorizzazione adottiamo, in dipendenza dalla prosettiva sociolinguistica qui scelta, una concezione funzionale ampia, fondata soprattutto su Berretta (1984)– sono tuttavia determinate, considerando la natura del brano, anche da esigenze tecniche. La complessità dei fatti, la loro disamina analitica e il livello al quale si dibatte la causa impongono un'esposizione elaborata i cui riflessi linguistici, per l'altro nel sostegno dell'articolazione argomentativa, affidato a una fitta rete di mezzi di coesione lessicali (ROVERE, G. (2005): «Connettivi in sentenze e marche di registro», *Capitoli di Linguistica Giuridica. Ricerche su corpora elettronici*, Alessandria: Edizioni dell'Orso, 139. or.).*

Hartara, hizkera juridiko eta administratiboaren teknika eta teknifikazio-maila zehaztuta, badira horren barruan hizkera-mota desberdinak, jakina denez.

Arauen hizkerari dagokionez, zehaztu behar dira lehendaurrez horren ezaugarriak; eta, besteak beste, lexikoa eta morfojoskera alde batera utziz, testualitatea ere azpimarratzea ez da alferreko lana.

Izan ere, MANTOVANI-ren aipu luzea erabil daiteke horretarako, egoki laburbiltzen duelako zein ezaugarri dituen arauen hizkerak (azpimarratzea geurea da):

Considerati in quest'ottica, i testi normativi esibiscono una nutrita serie di tratti di superficie consoni con l'elevata rigidità del vincolo interpretativo posto dall'autore. Questo tipo di testo si presenta infatti, in genere, con un impianto ben scandito, articolato in blocchi spesso dotati di titoli e di numeri. Fa riferimento a precisi concetti di partenza (ad esempio, a norme sovraordinate) e fornisce talvolta definizioni di parole e concetti chiave. Fa uso frequente di legamenti sintattici e di rinvii interni espliciti (es. «Nel caso previsto dall'articolo precedente »); ricorre alla ripetizione, cioè evita i sinonimi, per garantire l'univocità degli elementi lessicali. Sempre per esigenza di univocità, il testo normativo si astiene da esemplificazioni (che possono creare incertezze circa la tassatività dei casi elencati). L'intento di attenersi al significato proprio delle parole impone di rinunciare a introdurre caratteri diversi nel corpo della frase e all'uso di virgolette, che implicino usi impropri; analogamente, nei testi normativi si cercheranno invano indicatori dell'emotività, come diminutivi e accrescitivi o focalizzatori (come gli avv. Persino, addirittura) o avverbi valutativi (ad es, purtoppo, fortunatamente). La necessità di stabilire esattamente i nessi comporta l'assenza di coordinazioni per asindeto.

*La scrittura legislativa è insomma impersonale e decontestualizzata, nel senso che la sua efficacia illocutiva rimane identica chiunque sia l'autore e il lettore (MANTOVANI, D. (2008): «Lingua e diritto. Prospettive di ricerca fra sociolinguistica e pragmatica», in GARZONE, G. eta SANTULLI, F. (Arg.), (2008): *Il linguaggio giuridico. Prospettive interdisciplinari*, Milano: Giuffrè Editore, 44. or.).*

WROBLEWSKY-ren aburuz:

Les normes sont des expressions linguistiques complexes. Leur parties constitutantes sont des noms, descriptions, prédicats, foncteurs et autres formes linguistiques qui ne diffèrent pas de celles qui existent dans LN. Leur sens pourtant est fonction de la normativité du texte de l'acte normatif (17. or.).

Aurrekoak ezarrita, eta euskararen arlo juridikora etorrira, esan dezagun gutxitan aztertua izan dela hori. Aipa ditzagun, IVAP/HAEE erakundearen lanetatik kanpo², berrikitan Eusko Legebiltzarrak ondu duen ahalegina, aintzat hartzeko modukoa.

²ZENBAITEN ARTEAN, (1994): *Hizkera argiaren bidetik*, Gasteiz: Herri Ardulariaritzaren Euskal Erakundea, 303 or. ZENBAITEN ARTEAN, (2005): *IVAPeko estilo liburua*, Gasteiz: Herri Ardulariaritzaren Euskal Erakundea, 447 or.

Bi-biotan kezka nagusia da arauen itzulpena, alegia, gaztelaniaz sorturiko araua euskaraz nola eman. Bi-biotan ere, guri dagokigunez, joera nabariak, itzultze-kontuak egiteko orduan.

Hitz gutxitan esateko, Eusko Legebiltzarrarena aipa dezagun, berak ekarzen duelako halako mezu nagusia, egun Eusko Legebiltzarraren itzulpen-joeretan zein gailentzen den azpimarratzeko:

*Azterlanean aurrera egin ahala, hiru irizpide joan dira nagusitzen: euskaraz autonomiaz erredaktatzearen garrantzia (horretarako, gaztelaniatik urrundu beharra, itzulpenetan sarritan zaila gertatu ohi dena), kalko sintaktiko-semanticoko neurri handi batean borrokatu beharra, eta parataxiaren aldeko aldarria (EUSKO LEGEBILTZARRA/PARLAMENTO VASCO. ITZULPEN ZERBITZUA/SERVICIO DE TRADUCCIONES: *Gaztelania formaletik itzultzeko estrategiak*, in www.parlamento.euskadi.net).*

5. DISKURTSOA: TESTU-ANTOLATZAILEEN ERABILERA ESTRATEGIKOA LEGEEN BILBATZE-PROZESUAN

Esanak esan eta idatziak idatzi, nabaria da, onik onenean ere, egun bade-la aukerarik euskaraz itzultzearen bidez sorturiko lege-administrazio hizkera horretan; eta, zehatzago esanda, arauen hizkera horretan zer-nolako eragina izan dezaketen testu-antolatzaileek neurtzeko aukera.

Bistan da azken urteetan argitaratu direla hainbat lan, testugintza eta komunikazioa uztartu nahian³. Euskaltzaindia bera ahaleginetan dabil horrelakoetan, Corpus Batzordean eta Pello Esnalen zuzendaritzapean. Horren fruitua da *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* izenburuko liburua. Hortxe dagoen metodologia eta sailkapena oinarri hartuta, horren aplikazioa egin dugu, egun Hego Euskal Herrian harreman juridiko pribatuetan nagusi den *Kode Zibil* espainolaren lege-testuan kokatuz aurretiaz jarritako testu-antolatzaileen sailkapena. Kasu bakoitzaren barruan, iruzkin laburrak egin dira, arauen hizkerak zein karakteristika izan eta horren arabera. Testuaren erreferentzia bibliografikoa hauxe da:

Kode Zibila/Código Civil (2007): Bilbo: Deustuko Unibertsitatea eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2. argitaraldia, 1281 or.⁴

³Besteak beste, ZABALA, I. (Koord.), (1996): *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 224 or. KALTZAKORTA MENTXAKA, M. (2007): *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I)*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 422 or. IDIAZABAL, I. eta LARRINGAN, L.M. (Arduradunak), (1998): *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratzeko baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*, Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea/ Arabako Foru Aldundia, 155 or. PLAZAOLA, I. eta ALONSO FOURCADE, M.P. (Arg.), (2007): *Testuak, diskurtsoak eta generoak. Euskal testuen azterketa korrontea*, Donostia: Erein, 251 or.

⁴Liburu honek biltzen ditu, Kode Zibilarekin batera, hasieratik gaur arteko lege-testuak, Kode Zibilaren testua moldatu dutenek.

Horren euskarri elektronikoa doan eskura daiteke, honako helbide elektorniko honetan:

http://www.iev.deusto.es/servlet/Satellite/Page/1116406939785/_eusk/%231116406939670%231116406939774%231116406939785/UniversidadDeusto/Page/PaginaCollTemplate

Gogora dezagun, bestalde, lege-testu horren euskarazko bertsioaren egi-leok esan genuena, diskurtsoa dela eta:

Zernahi gisaz, itzulpen onaren oinarriak ezin dira izan, besterik gabe, morfologia eta sintaxia. Aitzitik, xede-hizkuntzan idatzitako testuaren diskurtsoa moldatu egin behar da, itzulpenaren testuan jatorrizkoa behar bezala isla dadin. Gure kasuan, aurrekoaren adierazgarri, zenbait adibide jar daitezke:

a) *Liburu, titulu, kapitulu eta atalen euskarazko idazpuruak jartzeko orduan, ez da itzuli gaztelaniazko de preposizioa. Euskaraz, kasu nominatiboa jarri da, singularrez edo pluraleraz, lege-testu elebidunen bilduma honetarako finkatutako irizpideekin bat etorri.*

b) *Letra larri eta xehearen erabileraz denaz bezainbatean, irizpide orokorrrak jarraikoak izan dira: izen bereziak letra larritz idatzi dira; baina izen bereziok arrunt bihurtzekotan, letra xehea erabili da; pluraleraz egindako aipamenak letra xehez idatzi dira; eta bizidunei dagozkien karguak izendatzeko ere, letra xehea erabili da.*

c) *Zigor Kodean erabilitako irizpideei helduta, eta gaztelaniaz párrafo, apartado, número eta antzekoak nahierara erabiltzen direla kontuan hartuz, idatz-zati zenbakidunak identifikatzeko «paragrafo» jarri da euskaraz, eta zenbakirik gabekoetan, ostera, «lerrokada».*

d) *Zerrendak. Halakoak ohikoak dira Kode Zibilean. Beraien bitartez, kategoria juridiko zehatz batek barneratzen dituen osagaiak aipatzen dira. Zerrendarik ezagunenak dira, beharbada, ondasun higiezi nei buruzkoa (334), gozamina azkentzeko arrazoiei buruzkoa (513) eta ondasun pribatiboak nahiz irabazpidezkoak jasotzen dituen (1346 eta 1347). Edozein kasutan ere, euskarazko bertsioaren hasierako baldintza azaltzeko, [subjektua + aditza] formula erabili da, eta, jarraian, zerrendaren osagai bakoitza jaso, jatorrizko testuaren arabera:*

(513.1g) El usufructo se extingue: 1. Por muerte del usufructuario.

(513.1e) Gozamina azkentzen da: 1. Gozameduna hiltzen denean.

e) *Definizioak. Horiek ere ohikoak izaten dira lege-testuetan. Espainiak Kode Zibilean nabariena omen da jabetzaren kontzeptuari dagokiona (348). Adierazgarriak dira, orobat, zortasunari buruzkoa (530) edota oinordetzako senipartearen ingurukoa (806). Halako definizioak prestatzeko orduan, gure proposamenak kontuan hartu du euskaraz adierazgarriena dena eta tradizioetik hurbil dagoena. Horrela, lehengo lekuan, definitutako osagaia jarri da; ondoren, aditza; eta, aditzaren ostean, definizioaren edukia. Horrek guztiak [subjektua+aditza+objektua] eskema bete du:*

(348g) *La propiedad es el derecho de gozar y disponer de una cosa, sin más limitaciones que las establecidas en las leyes.*

(348e) *Jabetza da gauzak gozatu eta xedatzeko eskubidea, eta legean ezarritako mugapenak baino ez ditu.*

Beste kasu batzuetan, definizioen izaera predikatiboagoa da. Definizio horiek azalpenak besterik ez dira, eta, horregatik, beste eredu baten bitartez euskaratu dira:

(142g) *Se entiende por alimentos todo lo que es indispensable para el sustento, habitación, vestido y asistencia médica.*

(142e) *Mantenu gisa hartzen da elikagaiak, gelak, arropak eta osasun-laguntzak izateko behar den guztia.*

Modu berean ere, definizioak bere baitara bil ditzake definitutakoaren existentzia edo muinari buruzko baldintzak:

(1088g) *Toda obligación consiste en dar, hacer o no hacer alguna cosa.*

(1088e) *Betebehar oro zerbaite eman, egin edo ez egite horretan datza.*

f) *Kode Zibilaren zenbait artikulutan, subjektuaren egite edo ez-egite bat azaldu eta gero, horren ondorio juridikoa ezartzen da. Horretarako erabili da, hain zuzen ere, norbaitek... eskema ezaguna. Zigor Kodean finkatutako formula errepikatuz, euskarazko bertsioan, artikuluaeren hasieran norbait izenordaina jarri da ergatibo kasuan deklinatuta, eta aditz jokatuari baldintzazko ba- partikula gehitu zaió:*

(227g) *El que disponga de bienes a título gratuito en favor de un menor o incapacitado, podrá establecer las reglas de administración de los mismos y designar la persona o personas que hayan de ejercitarla.*

(227e) *Norbaitek dohainik ondasunak xedatzen baditu adingabearen edo ezgaituaren mesederako, ondasunok administratzeko erregelak ezar ditzake, eta administrazio hori burutu behar duen pertsona edo pertsonak izenda ditzake.*

Labur-zurrean, lan honetan berebiziko ahaleginak egin dira hizkuntzaren gorabehereri eta beraren etengabeko garapenari erreparatzeko, bai eta gizarte-beharritzanei egokitzeko ere. Ahalegin horien guztien xedeak, lehen adierazi bezala, bi izan dira: bata, zuzenbidearen esparruan, eta, bestea, hizkuntzalaritzaren eremuan. Lehenengo eta behin, euskararen normalizazioa iritsi nahi izan da, historian zehar arrotz izan zaión esparru batean. Eta, bigarrenik, euskarazko testuan behar bezala lotu edo uztartu nahi izan dira jatorrizko hizkuntza eta xede-hizkuntza, bi-bion arteko baliokidetasuna, eta, horrekin batera, segurtasun juridikoa ere bermatzeko. Ezaguna denez, euskararen normalizazioa zuzenbidearen esparruan nekez lortuko da, hori kalitatezko testu juridikoen bitartez ziurtatzen ez bada. Zailtasun hori gogoan izan behar dute, nahitaez, itzulpen espezializatuaren munduan dihardutenek (Kode Zibila/Código Civil (2007): Bilbo: Deustuko Unibertsitatea eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2. argitaraldia, 54-56. orr.).

5.1. Testu-markatzaileak Kode Zibilean

5.1.a. Informazioaren egituratzaileak (nahiz iruzkingileak, nahiz ordenatzaileak, nahiz zeharkariak)

Sarri ez: testu arau-emailean (hots, artikuluetan), nekez; erabiltzekotan, zioen azalpenean, lege-testuak horretan argitzen dituelako eraldaketaren nondik norakoak.

Iruzingileen zenbait adibide:

1889ko uztailaren 29ko Errege-Aginduaren azalpena

Artikulu horrek adierazten duenez, bihar-etziko ezkontzak Erregistro Zibila-ren akten bitartez frogatuko dira, eta, halakorik izan ezean, beste froga-mota batzuk onartu ahal izango dira. **Bada**, kasu horretan bakarrik, eta ordezkio froga gisa, 54. artikulua ekoera-erakutsia onartu du (109. or.).

Artikulu hori zabaldu beharra dago, zortasun horiei bihar-etzi aplikatuko zaien araubidea argiro-argiro zehazteko. **Horrela**, ez da uste izango aurretiazko legerian aipaturiko zabalera zortasun batzuentzat desagertuko diren (111. or.).

Ordenatzaileen zenbait adibide:

Urriaren 15eko 11/1990 Legearen hitzaurrea

Lege honen helburuak dira, **aurrenik**, sexuaren arabera bereizkeriak ezabatzea, halakoek legeria zibilean oraindik indarrean dirauten heinean, eta, **hurrenik**, arauen bitartez garatzea Konstituzioan ezarritako berdintasun-printzipioa (915. or.).

Uztailaren 21eko 49/1960 Legearen zioen azalpena

Alde batetik, antolamendu juridiko guztiek etorkizunerako joera dutenez gero, ez da nahiko gaur praktikan gertatzen dena berrestea; horrez gain, etorkizunean gerta daitekeena ere aurreikusi beharra dago. **Beste alde batetik**, arau guztien abiapuntua eta hurbileko destinoa da gizakien arteko harremanak arauzea (817 eta 818. orr.).

5.1.b. Operatzaile argudiozkoak

- Indartzaileak: ezinbesteko direnetan bakarrik (gutxitan).
- Zehatzaileak: askorik ez, legeetan ez baita ohikoa adibideak zerrendatzea.

Indartzaileen adibidea:

737. artikulua

*Testamentuko xedapen guztiak **berez** ezeztagarriak dira, nahiz eta testamentugileak testamentuan adierazi xedapenok ez ezeztatzeko borondate edo erabakia (408 eta 409. orr.).*

Zehatzaileen adibidea:

788. artikulua

*Baliozkoa izango da xedapena, jaraunsleari ezartzen badio aldiro-aldiro kopuru jakin batzuk ongintzako obretan inbertitzeko betebeharra, **adibidez**, dontzeila txiroei ezkonsariak edo ikasleei, txiroei, ongintza-etxeei nahiz herri-ikastetxeei pensioak emateko betebeharra, hurrengo baldintzak kontuan hartuta... (424. or.)*

5.1.c. Lokailuak (emendiozkoak, hautakariak, aurkaritzakoak, ondoriozkoak, kausazkoak)

1. Emendiozko lokailuak:

Arauk osatzeko datu berriak gaineratzen direnean.

68. artikulua

*Ezkontideek betebeharra dute, elkarrekin bizi, bestearenganako fideltasuna izan eta elkar sorosteko. **Gainera**, elkarrekin banandu beharko dituzte etxeko ardurak, bai eta aurreko, ondorengo eta euren ardurapeko beste pertsonen gaineko zaintza eta arreta ere (173. or.).*

142. artikulua

*Mantenu gisa hartzen da elikagaiak, gelak, arropak eta osasun-laguntzak izateko behar den guztia. **Halaber**, mantenu-hartzailea adingabea den bitartean, mantenuak bere barruan hartzen ditu mantenu-hartzaile horren hezkuntza eta haziera; mantenu-hartzailea adin nagusikoa izanik ere, horren heziketa oraindik ez denean bukatu berari egotzi ezin zaion arrazoiairen ondorioz, heziketa horren gastuak ere mantenuaren barruan sartzen dira... (205. or.).*

2. Lokailu hautakariak:

Betekizun biren artean hautatzea dagoenean.

1767. artikulua

*Gordailuzaina ezin da gordailupeko gauza baliatu, horretarako gordailugilearen esanbidezko baimenik izan gabe. **Osterantzean**, gordailuzainak kalte-galeren gaineko erantzukizuna izango du (700. or.).*

839. artikulua

Ezkontideari bere gozamen-zatia ordaintzeko, jaraunsleek esleitzen diezazkionte bizi arteko errenta, ondasun zehatz batzuen produktuak edo eskudiruzko kapi-

*tala; horretan, jaraunsleek eta alargunak elkarren arteko adostasunez jardun behar dute, edo, **bestela**, epailearen aginduz (442. or.).*

3. Aurkaritzako lokailuak:

Erregela orokorrari salbuespena/ñabardura jartzekotan.

586. artikulua

*Eraikinaren jabeak horren teilatu eta gainaldeak eraiki behar ditu euri-urak norberaren lurrera, edo, bestela, kale nahiz leku publikoetara eror daitezzen, ez, **ordea**, alboko lurrera. Urak norberaren lurrera erori arren, jabeak ur horiek batu behar ditu, alboko lurrean urok kalterik eragin ez dezaten (360 eta 361. orr.).*

1475. artikulua

*Ebikzioa gertatuko da, erosleari kentzen zaionean, epai irmoaren bidez eta erosketaren aurreko eskubide baten ondorioz, berak erositako gauza osoa edo horren zati bat. Saltzaileak ebikzioaren ondoriozko erantzukizuna izango du, kontratuan ezer adierazi ez arren. Kontratugileek, **alabaina**, saltzailearen legezko betebeharrak hori gehitu, txikiagotu edo ezabatu ahal izango dute (616. or.).*

4. Ondoriozko lokailuak:

Egitezko kasua eta ondorioa lotzeko erabilgarri oso.

1860. artikulua

*Bahia eta hipoteka zatietan dira, nahiz eta zordunaren edo hartzekodunaren kausadunen artean zorra zatitu. **Hortaz**, zordunak zorraren zati bat ordainduta ere, zordun horren jaraunsleak ezin du eskatu bahia edo hipoteka proportzio horretan azkentzea, zorra osorik ordaintzen ez den bitartean (725. or.).*

33. artikulua

*Bi pertsona edo gehiagori deitu bazaie elkarren oinordeko izateko, zalan-tzak badaude lehenago nor hil den jakiteko, eta norbaitek adierazten badu batarren edo bestearen heriotza aurretik gertatu dela, **orduan**, berari dagokio hori frogatzea (161 eta 162. orr.).*

5. Kausazko lokailuak:

Inoiz, zerbaiten eragilea zein izan behar den argitzeko.

1479. artikulua

*Ebikzioaren ondorioz erosleak gauzaren zati bat galtzen badu, eta, gauza osoarekin alderatuz, zati hori hain garrantzitsua bada, **ezen** zati hori izan ez balitz, erosleak ez baitzukeen gauza hori erosiko, erosle horrek kontratuaren hutsalketa eska dezake; baina gauza itzultzeko betebeharrak du, eskuraketa-unean gauza horrek zituen kargekin bakarrik (618. or.).*

5.1.d. Birformulatuak (esplikatioak, zuzentzuak, urruntzuak,

laburbiltzaileak)

1. Birformulatzailer espikatiboak:

Horiek ere zioen azalpenetan hobe.

1889ko uztailearen 29ko Errege-Aginduaren azalpena

*Dena den, eskubide berria izanez gero, **hau da**, kodean lehenengoz ezartzen den eskubidea izanez gero, eta aurretiazko legeriak ez badu halakorik aitortu, eskubide horri kodea bera aplikatu behar zaio... (120. or.).*

1928ko urtarrilaren 13ko Errege Dekretu-legearen azalpena

*Azken finean, eraldaketaren xedea jarraikoa da: abintestato oinordetzarako deien hurrenkeran, estatuari lehentasun handiagoa ematea, **alegia**, Kode Zibilararen 956. artikulua orain aitortzen dion lehentasuna baino handiagoa (773. or.).*

2. Birformulatzailer zuzentzaileak eta urruntzaileak:

Ez-ohikoak.

Maiatzaren 2ko 14/1975 Legearen zioen azalpena

*Hori dela eta, emakume ezkondua edo, **hobeto esanda**, ezkontideetatik edozein, merkataritzan aritzeari buruz, arauketa berria ezarri da... (881. or.).*

Maiatzaren 31ko 1.836/1974 Dekretuaren zioen azalpena

*Aldaketok ez dute aldarazi testuaren osotasuna, baina ahalbidetu dute testu horren egitura gizarte-errealitatearen norabideekin bat etortzea. **Nolanahi ere**, eraldaketarik garrantzitsu eta eragingarriena hauxe da, beraren emaitza atariko titulu berria baita (846 eta 847. or.).*

3. Birformulatzailer laburbiltzaileak:

Halakoak egotekotan, zioen azalpenetan, eraldaketaren xedea ongi finkatzeko.

Urtarrilaren 7ko 4/2000 Legearen zioen azalpena

*Epaileak heriotza-adierazpena ematen duenean, gizabanakoa hil delako presuntzioa sortzen da; presuntzio horren ondorioz gerta daitezke egiaztaturiko heriotzak berak dakartzan ondore juridiko berberak. **Azken finean**, mekanismo juridiko horren bitartez, segurtasuna, egonkortasuna eta konponbidea eman daizkieke administrazio, ondare eta ekonomiaren inguruko arazoei, halakoak jasan behar baitituzte desagertuen familiakoek (966 eta 967. or.).*

Azaroaren 11ko 21/1987 Legearen hitzaurrea

***Laburbilduz**, jarraikoa azpimarratu behar da: familia-harrera administrazio-bidean gauzatu arren, harrera hori hasiera-hasieratik dago Fiskaltzaren zaintzapean eta epailearen kontrolaren menpe (906. or.).*

5.1.e. *Berbaldi-markatzaileak: epistemikoak* (*noski, antza, jakina...*);
deontikoak (*tira, ondo da...*); ***bestertatzaileak*** (*aizu...*);
metadiskurtsiboak (*zera...*)

Ez dute tokirik lege-testuetan eta administrazioko testuetan.

5.2. Juntagailuak eta menderagailuak

5.2.a. *Juntagailuak (emendiozkoak, hautakariak, aurkaritzakoak)*

1. Emendiozko juntagailuak:

Lege-testuetako eta administrazioko testuetako esaldien luzera kontuan hartuta, guztiz erabilgarri.

620. artikulua

*Dohaintzek dohaintza-emailea hildakoan sortu behar badituzte ondoreak, azken nahiaren xedapenen izaera dute, **eta** testamentuzko oinordetzari buruz ezarritako erregelak aplikatzen zaizkie (371. or.).*

622. artikulua

*Kontratuei buruzko erregelak arautuko dituzte dohaintza kargadunak, **eta** titulu honetako xedapenek arautuko dituzte ordain gisa emandako dohaintzak, ezarritako kargaren baliotik gorako zatian (371. or.).*

2. Juntagailu hautakariak:

Betekizun biren artean hautatzea dagoenean.

741. artikulua

*Testamentuan seme-alabatasunaren gain egindako aitorpenak ez du indarrik galtzen, nahiz eta testamentu hori ezeztatu, horretan bestelako xedapenek jaso ez **edo** testamentuaren gainerako xedapenek deusezak izan (409 eta 410. orr.).*

742. artikulua

*... testamentu hori baliozkoa izango da, frogatzen denean kaltea testamentukileak nahi gabe eta jakin gabe gertatu dela **edo** testamentukileak zoroaldian egin duela (410. or.).*

3. Aurkaritzako juntagailuak:

Erregela orokorrari salbuespena/ñabardura jartzekotan.

710. artikulua

*Testamentu itxia eskuetsi eta gero, notarioak testamentukileari emango dio testamentu hori; **baina**, aldez aurretik, notarioak egilespen-aktaren kopia eskuestia jarriko du protokolo arruntean (398. or.).*

173. artikulua

Gurasoek edo tutoreak ez badiote harrerari adostasunik eman, edo horren aurka jarri badira, epaileak bakarrik erabaki dezake harrera, adingabearen intereserako eta Prozedura Zibilar buruzko Legearen izapideekin bat etorritz. Herri-erakundearen proposamenak ere aurreko zenbakian aipaturiko datuak jaso behar ditu. Zernahi gisaz, eta adingabearen intereserako, herri-erakundeak behin-behineko familia-harrera erabaki dezake; familia-harrerak bere horretan iraungo du epaileak ebazpena eman arte (225 eta 226. orr.).

5.2.b. Mota guztietako menderagailuak

Guztiak ere sarri-sarri erabiliak, batik bat, konpletiboak, baldintzazkoak, erlatibozkoak eta denborazkoak.

Menderagailuen zenbait adibide:

49. artikulua (zehir-galdera)

Espainiarrak ezkon daitezke, Espainiatik kanpo ere, ezkontza zein tokitan egin eta toki horretako legeak ezarritako formaren arabera (167. or.).

1819. artikulua (kausala)

Auzia epai irmoaren bidez erabakita egon arren, auzi horren gain transakzioa egiten bada alderdi interesdunetatik batek epai irmoari buruz ez duelako berririk izan, alderdi horrek eska dezake transakzioa hutsaltzea (714. or.).

1677. artikulua (baldintzazkoa)

Gizabanakoek ezin dute elkarrekin sozietate unibertsalik egin, baldin eta haien zat debekatuta badago elkarri dohaintza edo abantaila bat egitea (674. or.).

5.3. Zenbait adberbio, adberbio-esapide eta postposizio-sintagma

Jakinekoda da legegilearen joera, halakoak erabiltzeko.

1599. artikulua

Aurkako itun edo ohiturarik izan ezean, obraren prezioa ordaindu beharko da obra hori ematean (651. or.).

366. artikulua

Landak ibaiertzen mugakide badira, ugazabei dagozkie ur-lasterraren ondorioz landa horiei ezari-ezarian gehitzen zaizkien zatiak (290. or.).

1872. artikulua

Besterentze hori egin behar da, zehatz-mehatz, jendaurreko enkantean, eta zordunari, eta, hala denean, bahiaren ugazabari, zitazioa eginez (728. or.).

6. GEROARI BURUZ

Aurrekoak ikusita, esan dezakegu ondorio nagusiak berrindartuta ateratzen direla, euskararen barnean testu juridikoen eta testu-antolatzaileen arteko erkaketa egin ostean:

1. Itzulpenetik sorkuntzara doan bidean, erabilera estrategikoa oinarrikoa da, euskararen diskurtso juridikoa abiatzeko puntuan.
2. Euskararen diskurtso juridikoa abiatu beharrak, bestalde, ezin du tradizioa baztertu, alegia, hizkuntzaren tradizio linguistikoa eta tradizio juridiko urria.
3. Diskurtsoa eta lexikoa/terminologia estekatu behar dira, testugintza juridiko eta administratibo baten peskizan.
4. Euskararentzat espazio juridiko eta administratiboa antolatzeko premia dago, euskarak izan dezakeen estatusak erro-errotik baldintzatu dezake-elako euskararen corpusa zuzenbidean eta administrazioan eratzea.
5. Espazio juridiko horrek dakar diskurtso juridiko propioa eta aldi berean, diskurtso hori linguistikoak ontzeko baliabide arretaz ikertzea. Baliabideok mota askotakoak izan daitezke eta argi dago, diskurtsoaren nondik norakoak baldintzatzen dituztela gaiaren ezaugarriek; kasu honetan, lege eta administrazioaren hizkera bera.
6. Azkenean, bil ditzagun aurrekoak testu honetara, behinola idatzitakoa berretsiz:

*Hartara, **gramatikalitatea** bete dugu, hori zehaztua izan den neurrian, Akademiaren aldetik; **testualitateari** ere arreta berezia eskaini diogu, kasuan kasuko egokitzapenak eginez; **estrategiak**, era berean, helburu izan du gurean lege-munduaren maila desberdinei halako emaitza egokiak eskaintzea euskararen alorretik; eta **tradizioak**, azkenik, eraman gaitu beste puntu batera, hau da, euskarazko idazle klasikoak barru-barrutik aztertzea, prosa-eredu malgu baten peskizan (URRUTIA, A. (2004): «Kardaberaz en erretorikatik egungo testugintzara: bi-deak eta erakutsiak», in *Agustin Kardaberaz, Hirugarren Mendeurrena 1703-2003*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 255. or.).*

7. BIBLIOGRAFIA

7.1. Testu-antolatzailleak, oro har

CUENCA, M.J. (2006): *La connexió i els connectors. Perspectiva oracional i textual*, Vic: Eumo Editorial, 222 or.

- DOMÍNGUEZ GARCÍA, M. N. (2007): *Conectores discursivos en textos argumentativos breves*, Madril: Arco Libros, 219 or.
- GONZÁLEZ MARTÍN, C. (2009): *Curso de «Análisis» Sintáctico*, Berriozar (Navarra): Cénlit Ediciones, 271 or.
- MARTÍ SÁNCHEZ, M. (2008): *Los marcadores en español L/E: conectores discursivos y operadores pragmáticos*, Madril: Arco Libros, 94 or.
- MARTÍN ZORRAQUINO, M.A. eta MONTOLÍO DURÁN, E. (Koord.), (1988): *Los marcadores del discurso. Teoría y análisis*, Madril: Arco Libros, 286 or.
- MONTOLÍO, E. (2001): *Conectores de la lengua escrita*, Bartzelona: Editorial Ariel, 173 or.
- PORTOLÉS, J. (1998): *Marcadores del discurso*, Bartzelona: Editorial Ariel, 160 or.

7.2. Testu-antolatzaileak, euskararen ikuspegitik

- ESNAL, P. (2002): «Testu-antolatzaileak», *Hizpide. Euskalduntze-Alfabetatzearen aldizkaria*, 50. zk., 25-36. orr.
- (2002): «Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa», *Hizpide. Euskalduntze-Alfabetatzearen aldizkaria*, 51. zk., 19-33. orr.
- EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA. CORPUS BATZORDEA (2008): *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*, Bilbo: Euskaltzaindia, 102 or.
- IDIAZABAL, I. eta LARRINGAN, L.M. (Arduradunak), (1998): *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratzeko baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*, Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea-Arabako Foru Aldundia, 155 or.
- KALTZAKORTA MENTXAKA, M. (2007): *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I)*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 422 or.
- PLAZAOLA, I. eta ALONSO FOURCADE, M.P. (Arg.) (2007): *Testuak, diskurtsoak eta generoak. Euskal testuen azterketa korrontea*, Donostia: Erein, 251 or.
- URRUTIA, A. (2004): «Kardaberaz erretorikatik egungo testugintzara: bideak eta erakutsiak», in *Agustin Kardaberaz, Hirugarren Mendeurrena 1703-2003*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 255 or.
- ZABALA, I. (Koord), (1996): *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 224 or.

7.3. Pragmatika eta komunikazioa, oro har

- ARTIGAS, R. (Koord.) (1999): *Habilitats comunicatives. Una reflexió sobre els usos lingüístics*, Vic: Eumo Editorial, 363 or.
- BEAUCHENSE, J. (2001): *Dictionnaire des cooccurrences*, Montréal (Québec): Guérin, 402 or.
- GARCÉS GÓMEZ, M.P. (Zuz.) (2009): *La reformulación del discurso en español en comparación con otras lenguas (catalán, francés, italiano, inglés, alemán e islandés)*, Madrid: Universidad Carlos III de Madrid. Boletín Oficial de Estado, 223 or.

7.4. Pragmatika eta komunikazioa, euskararen ikuspegitik

- HIDALGO, B. (1996): «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (I): Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats batean». *Hizpide*, 35. zk., 39-51. orr.
- (1996): «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (II): Euskararen hitz ordena libre». *Hizpide*, 36. zk., 21-27. orr.
- (1996): «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (eta III): Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran». *Hizpide*, 37. zk., 23-31. orr.
- (1996): «Hurbiltze bat euskal hitz-ordenaren tradizioari», *Fontes Linguae Vasconum*, 71. zk., 21-43. orr.
- (2000) «“Galdegai” bat baino gehiago erakutsi ohi duten esaldiez. Hitz ordena esaldian: bereizi beharreko eztabaida arlo bi. Galdegaiaren inguruko ikuspegi berri bila (I)», *Uztaro*, 33. zk. 43-85. orr.

7.5. Itzulpen juridikoa, oro har

- AGUILAR, L. (2001): *Lexicología y terminología aplicadas a la traducción. Curso práctico de introducción*, Bellaterra: Universitat Autònoma de Barcelona, 86 or.
- ARNTZ, R. (Arg.) (1995): *La Traduzione. Nuovi approcci tra teoria e pratica*, Napoli: Cuen, 303 or.
- ASKOREN ARTEAN (1999): *Críteris de traducció de textos normatius del castellà al català*. Generalitat de Catalunya, Departament de Cultura, 1. argitaraldia, 63 or.

- (2006): *Études offertes à Jacques Vanderlinden. Étudier et enseigner le droit : hier, aujourd'hui et demain* (Castonguay, L. eta Kasirer, N., zuz.). Quebec: Les Éditions Yvon Blais Inc, 520 or.
- (2002): *Texto, terminología y traducción* (García Palacios, J. eta Fuentes Morán, M.T., arg.). Salamanca: Ediciones Almar, 1. argitaraldia, 250 or.
- BEAUDOIN, LL.L. (2007): «La traduction juridique au Canada. Contraintes linguistiques et juridiques. L'apport de la jurilinguistique», in SUEUR, J.J. (Zuz.), *Interpréter&Traduire. Actes du colloque international des 25 et 26 novembre 2005 Faculté de Droit de Toulon*, Bruxelles: Bruylant, 171-188. orr.
- BISSARDON, S. (2002): *Guide du langage juridique. Les pièges à éviter*. Paris : Éditions du Juris-Classeur, 357 or.
- CAO, D. (2007): *Translating Law*, Clevedon. Buffalo. Toronto: Multilingual Matters Ltd, 189 or.
- DULLION, V. (2007): *Traduire les lois. Un éclairage culturel. La traduction en français des codes civils allemand et suisse autour de 1900*, Cortil-Wodon: E.M.E. (Éditions Modulaires Européennes) & InterCommunications, 300 or.
- GÉMAR, J.C. (1997): «Traduire le langage du Droit en contexte bilingüe et bijuridique. Le Canada: Un cas d'espèce?», in SCHENA, L., (Arg.), *La Lingua del Diritto. Difficoltà traduttive. Applicazioni didattiche. Atti del primo convegno internazionale Milano, 5-6 ottobre 1995. Centro Linguistico dell'Università Bocconi*, Roma: CISU. Centro d'Informazione e Stampa Universitaria, 73-87. orr.
- (Zuz.) (1982): *Langage du droit et traduction. The Language of the Law and Translation. Essais de jurilinguistique. Essays on jurilinguistics*, Québec: Éditeur officiel du Québec, 320 or.
- ŠARČEVIĆ, S. (1997): *New Approach to Legal Translation*, The Hague. London. Boston: Kluwer Law International, 308 or.
- SPARER, M. eta SHWAB, W. (1980): *Rédaction des lois: rendez-vous du droit et de la culture*, Québec: Éditeur officiel du Québec, 300 or.
- SUEUR, J.J. (Zuz.) (2007): *Interpréter&Traduire. Actes du colloque international des 25 et 26 novembre 2005 Faculté de Droit de Toulon*, Bruxelles: Bruylant, 367 or.

7.6. Itzulpen juridikoa, euskararen ikuspegitik

EUSKO LEGEBILTZARRA/PARLAMENTO VASCO. ITZULPEN ZERBITZUA/SERVICIO DE TRADUCCIONES: *Gaztelania formaletik itzultzeko estrategiak*, in www.parlamento.euskadi.net

Kode Zibila/Código Civil (2007): Bilbo: Deustuko Unibertsitatea eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2. argitaraldia, 1281 or.

RIDEAU, J. (2007): «L'Union européenne face aux défis linguistiques», in SUEUR, J.J. (Zuz.), *Interpréter&Traduire. Actes du colloque international des 25 et 26 novembre 2005. Faculté de Droit de Toulon*, Bruxelles: Bruylant, 63-137. orr.

7.7. Hizkera juridikoa eta testu-antolatzaileak, oro har

ANDERSON, W.J. (2006): *The Phraseology of Administrative French. A Corpus-based Stud*, Amsterdam-New York: Editions Rodopi, 289 or.

CAZORLA PRIETO, L.M. (2007): *El lenguaje jurídico actual*, Cizur Menor (Navarra): Editorial Aranzadi, 163 or.

CORNU, G. (2005): *Linguistique juridique*, Paris: Éditions Montchrestien, EJA, 3. argitaraldia, 443 or.

DIDIER, E. (1990): *Langues et langages du droit*. Montréal : Wilson & Lafleur Ltée, 477 or.

FERNÁNDEZ BELLO, P. (2008): «Las colocaciones en el lenguaje jurídico», in MELLADO BLANCO, C., (Zuz.), *Colocaciones y fraseología en los diccionarios*, Frankfurt am Main: Peter Lang, 69-84. orr.

GUIDO, M.G. eta ZAPPULLI, L., (Arg.) (2007): *Il Discorso Legale in Contesti Multiculturali. Studi Interlinguistici*, Milano: Franco Angeli, 139 or.

HERNANDO CUADRADO, L.A. (2003): *El lenguaje jurídico*, Madril: Editorial Verbum, 143 or.

LEBARBÉ, TH. (Koord.) (2008): *Langue du droit. Mots, documents et raisonnements*, Grenoble: Ellug. Université Stendhal, 151 or.

MALATO, M.L. eta FERRARA DA CUNHA, P. (2007): *Manual de Retórica & Dereito*, Quid Iuris Sociedade editora, Lisboa, 350 or.

MANTOVANI, D. (2008): «Lingua e diritto. Prospettive di ricerca fra sociolinguistica e pragmatica», in GARZONE, G. eta SANTULLI, F. (Arg.), (2008): *Il linguaggio giuridico. Prospettive interdisciplinari*, Milano: Giuffrè Editore, 17-56. orr.

- MARTÍN DEL BURGO eta MARCHÁN, Á. (2000): *El Lenguaje del Derecho*, Barzelona: Editorial Bosch, 387 or.
- MORTARA GARAVELLI, B. (2001): *Le Parole e la giustizia. Divagazioni grammaticali e retoriche su testi giuridici italiani*, Torino: Giulio Einaudi editore, 264 or.
- POZZO, B. (2005): *Ordinary language and legal language*. Milano: Giuffrè Editore, 233 or.
- POZZO, B. eta TIMOTEO, M. (Arg.) (2008): *Europa e linguaggi giuridici*, Milano: Giuffrè Editore, 432 or.
- PREITE, CH. (2005): *Langage du droit et linguistique. Étude de l'organisation textuelle énonciative et argumentative des arrêts de la Cour (et du tribunal) de Justice des Communautés européennes*, Roma: Aracne editrice, 318 or.
- ROLAND, H. eta BOYER, L. (1991): *Dictionnaire des expressions juridiques*, Lyon: L'Hermès, 2. argitaraldia, 462 or.
- ROVERE, G. (2005): «Connettivi in sentenze e marche di registro», *Capitoli di Linguistica Giuridica. Ricerche su corpora elettronici*, Alessandria: Edizioni dell'Orso, 137-155. orr.
- SCARPELLI, U. eta DI LUCIA, P. (Arg.) (1994): *Il linguaggio del diritto*, Milano: LED-Edizioni Universitarie di Lettere Economia Diritto, 497 or.
- SCENA, L. eta SNEL TRAMPUS, R.D., (Arg.) (2000): *Traduttori e giuristi a confronto. Interpretazione traduce e comparazione del discorso giuridico*, Bologna: CLUEB. Cooperativa Libreria Universitaria Editrice Bologna, 1. bolumena, 389 or.
- (Arg.) (2000): *Traduttori e giuristi a confronto. Interpretazione traduce e comparazione del discorso giuridico*, Bologna: CLUEB. Cooperativa Libreria Universitaria Editrice Bologna, 2. bolumena, 217 or.
- SCENA, L., (Arg.) (1997): *La Lingua del Diritto. Difficoltà traduttive. Applicazioni didattiche. Atti del primo convegno internazionale Milano, 5-6 ottobre 1995. Centro Linguistico dell'Università Bocconi*, Roma: CISU. Centro d'Informazione e Stampa Universitaria, 285 or.
- VERONESI, D. (Arg.) (2000): *Linguistica giuridica italiana e tedesca. Rechtslinguistik des Deutschen und Italienischen*, Padova: Unipress, 500 or.
- WROBLEWSKY, J. (1989): «Les langages juridiques: une typologie», *Droit et Société*, 8. zk., 13-27. orr.

7.8. Hizkera juridikoa eta testu-antolatzaileak, euskararen ikuspegitik

URRUTIA, A. eta URRUTIA, E. (1980): «Onomasiologia eta Terminologia: www.iev.deusto.es Biblioteka juridiko elebidunaren hustuketarako irizpideak», *AVD-ZEA Academia Vasca de Derecho. Zuzenbidearen Euskal Akademia*, 13. zk., 91-152. orr.

ZENBAITEN ARTEAN (1994): *Hizkera argiaren bidetik*, Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 303 or.

—— (2005): *IVAPeko estilo liburua*, Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 447 or.

—— (2005): *Oinarrizko Hiztegi Juridikoa*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea eta Euskaltzaindia, 83 or.